

# Maiatz.

maria mestoy itxa  
 robor da jean lovi  
 s da dant mikela  
 o pak mikela duse  
 rt manex erdozai  
 ntzietsart pañtx  
 oa etxe goiñeña  
 dtetsamendul d  
 cienetxe zahar  
 retaleonhaiza  
 gerre daniel la  
 ndartoihan may  
 ipelot joseba sa  
 rriñaindia auzt  
 uzamora zigor



Aldizkari bat, gurea. Gauza batzu, denetarik, euskaraz, lantuak. Gure literatura.

Literatura, zertarako ? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasa bainan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan.

Literatura guretako. Ez gauza hil batzu, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak. Literatura bizirako.

# ΔURKIBIDEA

Léon HAIZAGERRE	Sortzekotan	2
Auxtin ZAMORA	Argiziloak	3
OIHAN	Udazkena da eta	4
Jean Louis DAVANT	Hiria	4
ZIGOR	Eskuak garbitu ditut	5
	Itsasoa	
	Hilbeta zelako	
	Egun uste dit	
Phil BOSMANS	Mintzatzea modan da (itzulpena)	6
Pantxoia ETXEGOIN	Nere izaitzaren oihana	7
Itxaro BORDA	Paramaribo	8
	Kaskezur	9
	Oraino mila solas inutit	9
	Marco Pottoloren ibilaldi harrigarria	10
	Euskal Herriko emazte, emakume	12
Manex ERDOZAINZTI ETXART		
	Amaren sabelean	13
	Zure begitartezaren honaindian	14
	Hire adin gordinean	16
Mikel DUPAK	Añarroza (IV)	17
Joseba SARRIONAINDIA	Poema itzulpenak	21
	Gauko izarretan (Andolin EGUZKITZA)	21
	Miquel MARTI I POL :	
	A Claus de Sorra	22
	Porto la tarda	23
	El fugitiu	24
	Parlo del crit unanime	24
	Heu estimat la patria	25
	Som pelegrins	25
	No la suavitat de la fruïta	26
	Canco	26
	Si parlo dels teus ulls	27
	Entzuleak (W.Delamare)	28
	Laberintoa (H.Michaux)	28
	Gernikako haritza (W.Wordsworth)	29
	Afusilatua (J.Prévert)	29
	Budapest-eko neska (H.Michaux)	29
	Josebari (M.PELOT)	30
Mayi PELOT	Telelabirintoa	31
Eñaut ETXAMENDI	Urto Urtzoak (KOXKE)	45
Rafael ZUHANETA	Ondikotz	51
Lucien ETXEZAHARRETA	Arbeit Macht Frei	52
Mikel DUVERT	Egiatzko ixtorio bat	55

Hainbeste lore eta koloreen  
miresgarriko piz tearen urrakoa  
Primaderaren oiharzu na!  
aurtengoak dakart  
orai artinokoek ez bezalako tirria  
ekarri daut  
hatsa.

Sartu nitz aio sabelean,  
ikusidut  
mendeak eta mendeak  
ibili naiz  
sukar, ikara, iz erdi hainitzen  
artetik  
bizitze eta heriotze bakarren  
erditik.

Garrasi bez enbateko hagunez  
hainitz eta hainitz  
xutiaraz ten zitu en  
jende, populu alalur  
hats horrek.

Eta  
egundainoko ixtorio  
berri heriotzerat zozatzen  
harrien orroitmenean seinalerik ez duen  
heriotzerat  
hainitz eta hainitz,  
igaiteak jastea duen mitoliluragarriak  
zirimolaz oramenean burtxoratuak zuzalaz,  
piztu nahian  
ezin piztuzko oihuminez  
zintzur eta hezurak higatuak.

Nihaur ere zoramen hortan  
luzaz igerikatu naiz.

Ez dakit zergatik  
ez dakit nolaz  
hatsaren zainetan  
denboraren mixterioa xurgatut.

Horra nua banoan  
eta ez naiz bakarrik  
hatsaren urratsean  
ate batetik besterat  
urrakoz urrako  
bainan ez hats hanturik,  
sortzekotan.

SORTZEKOTAN SORTZEKOTAN SORTZEKOTAN

ARGI ZILOAK

ARGI ZILOAK ARGI ZILOAK AUXTIN ZAMORA

Hil gabe,  
nola jakin,  
zer den bizia,  
madarikatu  
gabe,  
zer den  
Amodioa ?

Lurraren gosea,  
odol ixurien  
irestetik,  
atxikitzeke,  
argi ziloetan,  
ehortzi ditugu,  
amodioz eta odolez,  
erori diren,  
gure izaite ber bereko,  
Herriko ahaideak.

Lekuaren gainean  
paralesiatuak,  
zegunda batetik bertzerat,  
ikusi ditugu :  
argi ziloak  
hesten,

geroztik,  
ilunbean gabilta,  
itsu batzu bezala,  
gauz eta arrazoin guziera  
kuskakoka,  
nundik jinen zaukun,  
argi arraildura bat :  
artetik, oihuka,  
heietaratzeko.

Beren Euskaldun izaitearen gatik, gure artean,  
gehiago, xutituko ez direneri. (1984/03/07)

AUXTIN ZAMORA

Udazkena da eta....

Udazkena da eta bukatu duzu.  
Urria da eta utzi nauzu.  
Zure bidea bururaino eramanez  
edo hasi ote duzu?  
Hautatu duzu, bai hautatu.  
Udazkena da eta bukatu duzu.

OIHAN OIHAN OIHAN OIHAN

Zergatik zuk dakizu  
Edo behar bada zuhaurek ere ez.  
Hutsuneak deitzen,  
Bizitzak nazkatzen,  
Bakarrik, zu ere bakarrik  
Eta ez jasaiten,  
Bizi behar eta sufritzen  
Min, zuk ere min.  
Urria da eta utzi nauzu.  
Eta orai, lagun, behar zaitudala  
Ez dezakezu asma

Zure deiak ez nau hunkitu.  
Baina deitu ote nauzu?  
Ez. Ez zaitu nehorik lagundu?  
Laguntza zertarako?  
Laguntza zertarako?  
Udazkena da eta bukatu duzu.  
Minarekin bukatu.  
Eromenarekin amaitu.  
Eta ni hemen. Hemen.

Nola ausartu zara, nola?  
Ezin zenuen  
Eskubiderik ez zenuen, ez!  
Bi axola zaitu nire nigarrak, nire gau beltzak.  
Zuk ez duzu gehiago senditzen.  
Baina nik bai, nik bai!

Barka, lagun.  
Botatzen ditudan malkoak ez dira zuretzat  
Baizik eta nerontzat

Urria da eta utzi nauzu.  
Udazkena da eta hemen nauzu.  
Noiz iritsiko da nire udaberria,  
Noiz ezagutuko dut bizi berria,  
Edo berantago?  
Nork daki? Nik ez, nik ez.

Gero arte, Patxi, edo inoiz arte.

Hiria maite zaitut, harrizko, poema  
Mendi tiniko perla, zolako ibaia  
Argi xoragarrien ixuri alaiak  
Kale xabarretako artisten bohema.

Elektrokosken eta neonen grazian  
Izar bilen beltzean pindarrez josia  
Basa gatu nagien desterru zorrotza  
H.L.M.-etan biri berrien ilotsa.

JEAN LOUIS DAVANT JEAN LOUIS DAVANT

Harresi, alminarren edertasun botzak  
Karrika iluneko sotoen beroak  
Astintzen dizkidate neuronen erroak.

Hiria maite zaitut, harrizko bihotza  
Abañaren erdian neronek bazia  
Humea zaitut ote ala min bazia?

Non zaituztet ondikotz, Atena, Erroma  
Angers eta Donosti, Jeriko, Sodoma  
Aldiezair, Kesentina, Uargla, Babilona  
Parise, Paue, Skida, Iruña, Baiona?

Hiria maite zaitut, barri agortua  
Eresi eroria, gaztaro galdua.  
Hiroxima mon amour.

hiria

*Eskuak garbitu ditut*

Eskuak garbitu ditut  
begiak itxi,  
zaratak itto,  
aitaren begirakuna ahantzi,  
leioha zabaldu,  
eta desioz beteta, etorriko den  
arra etxoin.

*Itzasa*

Hilbetea zelako  
lepoa nion ezpainarekin busti,  
eta bere begi inguruarekin  
berriz ezpainak umeldu.

Hilbetea zelako  
ametsarekin eznatu zitun bularrak,  
eta nik eskuarekin ametsak luzatu.

Hilbetea zelako  
berotu nion sabela,  
orduana larruaren baia barrenetik aterazen.

Hilbetea zelako  
biziaren errekek sua busti egin zun,  
eta nere egarria itto.

Batzutan, ikusten zaitut  
urdin  
haurrak pintatzen zaituten bezala,  
eta  
irudi zait...

Bestetan, agertzen zira  
ia beltza  
nere aitajauna entierrotan bezala,  
eta  
irudi zait...

Askotan, hor zira  
zuriz  
hego aldeko etxeak bezala,  
eta  
irudi zait...

Gutxitan, begiak ixten baditut  
biluzik  
eperraren kantua bezala,  
eta  
irudi ezin.

*Hilbetea zelako*

Egun uste dut  
gizonaren erditik  
sortzen dela  
eman nahia.

Egiz, oso, sakon, bero,  
orregatik gizonan  
sinesten dut,  
naiz eta erditik kanporako bidean,  
egia gezurtu,  
osoa zatitu,  
sakona arindu,  
eta beroa epeldu.

*Egun uste dut*

«Discutitzea» on da bakarrik  
airearen muhitzeko  
«Egiteak» aldiz  
galde egiten ditu sosegua eta konkrezioa

Egundaino ez da jendea  
Momento huntan bezala mintzatu  
Egundaino ez zen holako hitz hutsezko  
eta sentido gabeko elurrausorik erori  
jendearen gainerat  
Denek nahi dute «partizipatu»  
Bainan guttik dute zer erran  
Ez baitute indarrik  
Ixiltasunaren idukitzeko  
eta gogoeta batzun egiteko

«Jauna», Lagun nezazu  
Ixilik egoiten  
Jakín aintzin zer erran behar duten  
Amen .

Gure munduak badu jende trankil  
eta sinpleen beharra,  
Komertsioetan irriño baten beharra,  
Ez dezatela gal beren pazientzia  
eta bertzeen hutsak kondena.

Kasu emazu zure jujamenduetan  
Hitzak arma indartsuak dira  
Gaitza haundiak ekartzen ahal ditu,  
Zure mihiak ez dezala  
nihori trufarik egin  
Zure ahoak ez dezala  
nihor mespreziatu  
Hitz azkar batek, hitz gaixto batek,  
Luzaz zure bihotzean min egiten ahal  
dute  
eta zikatriza luze bat utzi.

Onhar zazu bertzeak «bertzeak» direla  
behar bada  
ez dutela zuk bezala pentsatzen,  
obra egiten,  
senditzen,  
ez direla zu bezala mintzatzen.  
Zure solasketetan,  
Izan zaite bihotz-bero eta urrikalmendutsu  
Zure hitzek izan behar dute «argia»  
Hitzek behar dute baketu  
Jendea elkartu  
Hitzek ez dute armak iduri agertu behar  
Euskaldun guziak elgarren lagun baigira  
elgarren salbatzeko.



Larunbat arratsaldea. Zerua oskarbi dagoen bitartean, bide haundia uzten dut eta xendrak hartzen. Xendra hauek, noraino eramanen nauten ? Nik bilatzen dudana tokira agian ; toki bat ixila, bakardadez josia eta bizkitartean, mila gauzen egoitza. Oihan usain-on bat igerikatzen den toki bat. Sartzen naiz, nere gorputza sartua da deihanik ; oihanaren erritmoarekin bat egiten du. Nere oinek ere ! Arnasa hartzen dut, batean lurraren altxor guziak nereganatuz eta bestean, debaldetan etorri zaizkidanak kanporatuz. Inun luhartzarik. Bakarrik, ezker zuzazti, eskuin sasi, begira latsa-errekari. Orroitzapenetan nabil edo bederen xerkatzen. Bat heldu zait gogora ! Haur edo hobeki, ttipiagoinintzelarik, nere aitak egortzen ninduen egungo sasoin berean, udazkenean, behi zain, lats-erreka hortara. Hitzak dakarren bezala, toki bat, ur-bide, sasi haundi batek berexten zuena. Alde batetik, gure funtsak, bestetik beste norbaitenak. Eta, erdi-erdian, haritz bat. Hunek emaiten zuen ezker bi aldetara, ez zitzaiola-koan bekaizgo egitea laket, dudarik gabe. Bai, erraiten dut «zuen» zeren eta orain, nun zauden ? Zer egin zizun haizkor punta zorrotz haren ? Populuak iziturik joan ziren zure ilakinatik ; xori-kantariak, beren amodioan sarturik zeudenak luzaz ibili ziren zure bekoki gainean zinkurikan, zure oihu minen babesean. Egun, ezin diezadakezu erantzunik eman. Bizkitartean, zu ikusi eta, sekulakotz lurrari lotua zinela iduritzen zitzaidan. Bainan, zure izerlikak kolpe barnekorretik ihes egin zuen eta enborra eihartu eta berexi zen bere oinetarik.

Eta bihar, supazter distiratsu batean, suak hixtu eta zarta egiten du eta zu, egur zahar bilakaturik aspalditik, intzirikan tehentaz beteko dituzu gure sukalde epelduak. ZER erranen ote dute ? sortua zinela, lurrez asetzeko eta zeru urdinaren hurrupatzeko ? Urtero haundiago eta xorien ohantze izaitzeko ? Bai, erranen dute gizona sentimendu gabekoa dela haritz bat haizkor kolpez hozkatua izan dadin, izaitze bizi bat izanki eta... Eta supazterrean, egurra kurrumilkatuko da.

## NERE IZAITEAREN OIHANA

Bat batean, nere gorputza higitzen da edo bederen higitzen dut. Polliki polliki aurreratzen naiz abots baten bila. Nere oinek harrotzen ote dituzte zuhaitzaren azken erautsak ! Nabil, asmo horiek gogoan, sartuz lur barneraino, misterioitsuak zaizkidalako haren sabel zuloak. Nere oinek, berriz ere haiek, lur-arras dabiltzalarik, musikaren irudimen bitxiak ekartzen dizkirate, nere gorputz guzia inarosten dutela, haizeak firindaka daramatzalarik larrazkeneko azken ostoa. Lurrak berak, doinuzko oihartzunak dakartza, nere gorputzaren zama haren gainean kunkurtzen zaiolarik. Okhilak bere aldetik, beti erritmo berdinean jotzen eta jotzen du moko ukaldika, trunkoa zilatu artino.

Urratsak neurrituz, oraino bere zangoen gainean dagoen ametz bati hurbiltzen natzaio. Jauzi egiten dut, adar buluzi bat nahiz nere esku plegatuetan tinkatu eta laster lurreratzen naiz, burdingita bat bezala nere baitako zalutasuna aurkitu nahian: Huntz-osto eta goroldioek estalirik daukate arbol azala. Goroldi hori, harrotzen dut nere ehi punttekin, senditzen eta hurrupatzen haren usain gozoa nere sabel zuloraino sar dadin. Senditzen dut gaztetasunaren ezitia ; berpiztea merexi duena. Orroitzen naiz zenbat aldiz hurbildu nintzaion ttipietan, harrozkatu nizekion erroak jakin nahian zergatik sortu zen lur edo zuhaitzen mamian.

Egia erran, bidaia luze batean sartua naiz bainan ez luzarako zorigaitzez. Laster, bide haundia atxemanen dut, xendrak utzi eta... Eguneroko bizitzak berriro ere dei egiten dit, utzirik adarpean mila solas ixilduko direnak, lehen haize pafadan.

Egun batez, oihana hiltzen balitz, lurrak galduko luke bere urguluzko edertasun guzia ; amets gabeko mundu baten ordularian biziko ginatke.

# Paramaribo

Karaibetan, Pazifiko Itsasoari begira dago Paramaribo hiria. Saramacca ibaiak bazter hezeak bustitzen diskio. Holandes marinelek hunki Surinam herrialdean, Paramaribo. Guziek badakite kantuararen arabera holandresen ibarretan tronpeta entzuten dela, baike, tulipen eta eiharren artetik...

Egun batez, aspaldiko lagun beltzaren batengandik, kartapostal bat ukan nuen Paramaribotik : «orroitzen gozo bat hemendik horgo lur hotzeri...» besterik ez ordea... Eta izen hori luzaz ibili zitzaidan trostan, kasko zokoan. Izen horrek ametsaren zerbait bazuen. Trixtetzen nintzelarik euria erortzen gehiegi aditzean, Paramaribo nion nere baitako galernak oro jabaltzeko. Paramaribo...

Historio bat asmatu dut, han izan baintz bezala. Ordea dena irudimenak sortua duela aitortu behar. Diru askorik ez denean, hobe da ametsaren indarra sustatzea ! Hona beraz...

Paramariboko ostatu ketsu batean pianista beltz bat bazen. Jimi zuen deitura. Zuriz beztiturik, lepo inguruan pinpirin moduan estekatu ttattar batekin, baltsa arin eta fresko batzuekin jendeak dantza arazten zituen. Edaleak, ardurenean, ez ziren lan orduetarik kanpo baizik etortzen. Whisky edo bierra pizuak iresten zituzten, espainetan pausatu hagna beso ilezuekin garbituz. Ostatu hortan zabiltzanak ez ziren baitezpada aberatsak, izerdiaren gostuz irabazi sosa zuten manera hortan gastatzen. Gure herrietan ere baditake horrelakorik. Paramaribo...

Gehienak beraz holandesak ziren. Konkistador seme edo bagnetan higatu bakarren bastart xarneguak. Kaiena ez dago Paramaribotik hain urrun ; oihan umeetan zehar ibiliz, iheslariak errez hel zaitezkeen Surinameraino. Guziek bazituzten gauaren heineko historioak kondatzeko, edari epelak lagun naski. Zerbitzari pottoloek basoak mahainetan pausatuz geroaren hariak mozten zizkioten. Baina, beti, kar berarekin berriz hasten zuten beren

solasa ; pianoarekin bat, horrela goizeko lehen argi zirrintaraino, arroserraino. Paramaribo...

Paramaribo karrketan itsaso baketsuaren marrumak entzuten ziren ; uhainak harri apaletan hausten ziren aldikal pianistak jotzen zuen airea kanbiatzen zuen. Erran behar da, Txikagotik etorri soinu-lari horrek bazuela talendu, eta egin zitzazkeen hutseri nehor ez zela ohartzen. Ipar Ameriketako hiri hartan jazzean ari zen. Hogoitertan, maffiaz nazkaturik, belak Surinamen landatu zituen, baitzitudion Paramariboko aroak errekinok izitzen zituela !

Jimiren erhiak dantzan ari ziren klavier xuri-beltzaren gainean. Gizonak edaten. Mahain trakesen artean bat zutitu zen, eta erran zuen nola duela berrogoi mende bederen-etzuen denboraren neurri izpirik ; zaharrek ahanzten dute iragana - Surinameko indioek misionest katoliko bat jan zuten, marmitan egosi ondoan.

Halatan, arrotzek zekarzkiten gaitzen ezeztatzeko... Kantu batek dio omen, ona zela eta odoltsua apez jesuista gaxoaren haragia... Paramaribo...

Jesuistaren historioak denak irriz arazten zituen. Beste marinel batek kondatu zuen, zein maneretan Paramariboko hormazko palazio batean holandes gobernadoreak burua moztu zioten Surinameko ehun gazteri egun batez haren prezioen politikari oldartu zirelakoan. Kaoutxua biltzen eta mozten ari ziren Amazoniako oihanetan, eta holandesen peko ziren nagusiek ez zituztela aski pagatzen punalaz xitxikatu zituzten. Gobernadoreak jujatu zituen segidan.

Paramaribo...

Baina segur banuke oraino irudime-nezko marinel horiek salatu frango hitz erraiteko. Adibidez nola Ursula Arkadio Buendia enpailatua izan zen bere adin handiaz eta bere bizi ederraz denek etsenplu hartzeko...Zonbat horrelako. Paramaribon... Ondarrean, zuek, badakit zihauerek aitorturik, ez dituzue asmatutako historioak sobera maite, egiazkoak, realistik nahiago dituzue. Arrazoina duzue, ingurumen erreala aski dorpea da hartarik ez urruntzeko.

Ordea, nik, Paramaribo....

Itxaro Borda

*bai, zuek ez dakizue, baina nik badakit  
beriotz ondoan gizakiari zen gertatzen den.  
zerura doakela, hori bi mila urte hauetan  
sinets arazi diguten gezurra da.  
bai, zuek jakin nahi zenukete eta nik  
badakit, badakit zer gertatzen den.*

*beriotz ondoan gorputzeko ur bitxiak pizten dira,  
zelula hilak ezeztatzen hasteko,  
ur keldartsu horrek, biroduraren bidea irekiz,  
bakteria emankorren goseak susta ditzazke.*

*eta dantzaren zorabian sartzen dira  
baragia usteltzen, urrintzen, zirringatsutzen  
ibaurrika nabasian parteka erortzen ari denean,  
sartzen dira,  
arbiskak eta herrestariak,  
bar sortu berri malatsak, zizare familia osoak,  
mamutxa asekaitezak, eta  
airean, kinka kaltekor bontaz baliatuz,  
zirurikan, haserrez ziztaka, idurikan antziz eta zaunkaz,  
ulu beltzurdinak, muruak, lespadak eta arrano gosetiak.*

*denbora gutiz gorputza ezer ez da :  
eskeletako hezur gisukiz bustuak  
lur barnean edo gaimean  
abantztearen eguzki erreak zurituko ditu.*

*datorren larrazken begotsuan  
bare karakoilak, arkamela eltxarrak,  
suge hotz nagiak eta kuskandel hormatuak  
neguaren iragaiteko kaskezurraren ziloetan,  
ginarrez eta zainez beteak ziren zilo guzietan,  
kabituko, kokatuko, kokartuko dira.*

Kaskezur

Mila solas inutil

KASKEZUR... 1981ko ekainan, Itxaro BORDA. ORAINO MILA SOLAS INUTIL... TIENI SITAS VILA ONAINO... 1983ko abenduan

*Ez dut nehor triste ikusi nahi  
nere inguruan: ni naiz mundu zirkotu  
bontako jostari soberakina,  
sudur gorri borrobilaz eta  
arpegi orlegiz koloratuaz  
pista ondartsuaren itzulua dagit,  
zuen gogoen bide dorpeetan  
ez dezazuen penarik haz.*

*Mila solas inutil bebar ditut  
bospasei bitzen errankor pizuegia  
itotzeko,  
irriaren karkarak bebar ditut  
negar saminen gazitasun handiegia  
moteltzeko,  
debaldearen arintasuna bebar dut  
bul  
hurbilegitik bunkitzen nauen  
bizitzaren latza abantzeko.  
Mila eta bi solas inutil oraino.*

*Ixiltzen ba naiz  
butsaren leizeak  
iretsiko nauke,  
eta  
nere hezur herbailak  
erreko ditu uztailak.*

*Ni, haur naizen bezala, agertzen naiz  
euri ubarren xorta ibeslariak  
esku aburretan atxikitzeko,  
baize hotz azkarregien bufadak  
mokanes brodatuetan kartzelatzeko,  
edo doan denboraren hatz zimurtuak  
kopetetarik kentzeko,  
bilo xuriak belzteko.*

*Baina ez dut astirik aski  
nibaur naizen bezala agertzeko...*

*Iraganen dira lertsunak zeru grisetan  
neguko izotz nagiak begaletan ekarriz,  
pasatuko dira blintxak  
guk ez baitugu askatasunetik jastatuko,  
gu ez baigara tabernan zorionaz afalduko,  
zuzen ez baitakigu zer den askatasuna  
zer den zoriona.*

*Nibaur naizen bezala agertzen saiatzeko  
bebar bada ez du balio,  
kateak haustea kario  
baita, bona beraz  
mila eta zazpi solas inutil.  
Oraino...*



satimezko galtzak erortzera utzi zituen. Biluz gorri gizona ! Marco Pottolo beldurtu zen, eta orduantxe Pette Casanovak lurrera bizkarrez botatu zuen, bi azpien artean zaukan zilo bakarra betetzeko. Ondarrean Marco Pottolori gustatu zitzaion joko bitxi hori. «Berriz !» eskatzera zoalarik, autoa partitzen entzun zuen...

Bakarrrik egon zen haritz baten itzalean, jarririk. Gaua etorri zenean, bere huntz eta kabaka pareekin begoruntz abiatu zen. Bi egun eta hiru arrats oso iragan zituen etxerik, autorik, jenderik nehon kurutzatu gabe. Astelehen goizean, hamaikak irian, hiri batetara heldu zen. Hiri hortan karrika bat baizik etzen, bi buruetarik hetsia. Gizon-emazte lerroak hortik pasatu behar zuten lanera, jokora edo beste norapeit joateko. Bi etxe gotor begiztatu zituen. Bat eskuinaldetik, dorre kurutzadunarekin ; bigarrena, bisian bis, hau arras desberdina.

Hormak barri tailatuz edertuak zituen, eta barnean dena argi gorri, hori, urdin edo orlegi. Elizetan hotz zegiela orroiturik bigarren etxe hortan jotzea erabaki zuen...

Atea pusatu zueneko barnean aurkitu zen, bistan dena. Ateak irekitzeko eginak dira, eta zerbaiteri sarrera ematen diote. Ardurenean ez da giltzen beharrik ere... Baina guk segi dezagun gure tipulen biltzeari... Marco Pottoloren inguruan hamar emazte oparo bildu ziren, denak bular borrobil lodiekin eta oibal beltzez arinki jantzirik. Lastotxak biloetan, txanpan basoak eskuetan. Koroak eskatu zion : «E ! mutil zein nabi duk ?». «Nik ? Ezer, berotu, mintzatu eta jan bakarrik...» arrapatu egin zioten. Zaharrenak, zimurtuenak zerraion : «Har ezak Maritxu...» Zer ? Etzuen balere Maritxu osoan janen, sandwich batekin aski zuelarik... Errefusatzeraz zioan ; entzun zuenean : «Ez dakika non haizen hemen ?. Euskal erakustokian, maison de passe de la culture basque delakoan !» barritu zen.

Maritxu eskalerretan gora joan zen. Marco Pottolok oihu bat menturatu zuen : «Maritxu nora zoaz ?» ...Zabarren hura irriz karkasailka basi zen. «Mutil honek ez daki zer egin behar den emazte batekin, ala hire amak ez dauk sekulan erakutsi !» . Gutiarena ez izateko, Maritxuren batzetarik abiatu zen. Zabarrari irriak bere bular borrobil flakatuak dardarazten zizkion... Gelaratzean, Maritxuk frantsez : «Tu viens chéri ?» eskatu zion. Tüvienxerritu zen beraz, eta ordu bat berantago ganbaratik jalgi zen gaitzeko buruko minarekin. Orain pagatzea galdegin zioten, eta Marco Pottolok dirurik ez. Emazteek kalera botatu zuten gibeledko mazelak zartakoz gorriturik eta bi ostikorekin...

Karrikan nekatu arte ibili zen amets inguma horren abantzeko. Konturatu zen zenbat bide zegien Italiako atetik bertan zagon lekuraino. Euriarekin batera gaua erori zen. Belarrean lokartu zen...

Biharamonean, iratzartu zelarik, ezkilak nabaitu zituen, eta nonbaitik zetorren intsentsu usain sukratua usnatu. Erroman ote zagon, San Piarres plazan ? . Ez alta... Eliza borta batetik bi jende lerro kanporatu ziren, kantatuz, gizonak gizonekin, eta emazteak emazteekin. Tokiko saildua ospatzen zutela ulertu zuen «Ibarreko beila» irakurtu zuelarik taula baten gainean idatzia. Norbaitek, apezpikuaren gordez «IKarreko beila»z aldatu zuen perpausa. Graziek hunki gizon barek hori balekus, mitra fandangoa dantzatzen has lekiokela segur !

Eguzki argi begotsuak Marco Pottolori begietan min zegion. Bat batean, esku bat senditu zuen bere sorbaldan pausatua. Itzulikatu zen. Hor zagon, gizon zahar bat, bizarduna, kalota urdina buruan, haragia usteldurik puskaka eroria; zilo guzietarik har zuriak eta zizare arrosak ateratzen zitzaizkion. Marco Pottolo herabetu zen : «A !. Zuk ere nerekin nabi duzu ? Agureak ezetz ibardetsi zion, hura zela Betarramen ebortzi eta Ibarren sortu San Michel Garikoitz, eskualdunfededun guziek preziatzen zuten saildu bakarra...

Marco Pottoloren eskubian urraska zabilalarik, noiztenka, zitzi zati zirringutsuak galtzen zituen, edo hortz bat, edo begi nimika. Harrek eta zizareek beren lan burria segitzen zuten. Michel Garikoitzek murmuratu zion beharrira : «Oraino ere eskualduntsa fedegabe batzuek gauero otoizten naute, Itoizen diskak estereotan eskuatzean, zerbait mirakulu egin dezadan...». Orduan «gure saildua» urtu zen. Inguruetan pestilentza gelditu zen. Marco Pottolok ez zuen deusik konprenitu, ez baitzen arras herri bontakoa !

Azkenekoz, Marco Pottolo asea zen. Mugitu ezinean zutik egon zen. Etxe xuri alai bat zuen auzoan... Mende luze batzuren buruan, sustraiak-erroak sortu zitzaizkion, eta lurrari lotu zen. Bere gorputzeko haur larrua gogortu zen, arbolen azala bezalakotzeko. Besoen puntatik, behatzen artean, hostoak loratu ziren udaberriko sapan, eta mila urte berantago txoriak pausatu ziren Marco Pottolo hariztuaren abarretan, beren maitasun zinezko kantuek abesteko. **REQUIEM IN ETERNAM DOMINE...**

# Euskal Herriko Emazte Emakume

Liburu askotan irakurri ohi dugu emazteek leku berezi bat zaukatela euskal gizartean. Nik badakit non, baina ixo !... Jainkosa Mari zela gizonetzko jainko herbailen buruzagi ; bere indarra ilargian oinarritzen zuela. Ordea, ilargiak nondik hartzen du argia, ez bada eguzki erregetik... Hasteko gure kosmogonia nork asmatu zuen behar dugu trenkatu eta finkatu. Ez dirudi hain zaharra denik, eta grekoen edo erromanoen moldean eraikia dela konturatzen gara ongi aztertzen badugu... Dudarik gabe, jakintza zahar batzuetarik abiatuz, XIXgarren mendeko ikerlariak sinesmen sistema bat sortu zuten, ikurriña, Euskadi hitza eta Aberri Egunak pentsatu zituztelarik. Bixtan dena, ez da hortan deus ahaltzekorik, guk ere, euskaldunek Krixtau erlidioa baino lehen beste erlidio bat ukan dugulako...

Diote gainera, emazteek zituztela gizonen orde, bizitzaren harat-honartak gidatzen. Orduan, zergatik hain sakratuak iduritzen zaizkigun Biltzarretan, Lapurdin, Nafarroan edo Zuberoan, etziren etxeko jaunak baizik aurkitzen ? Etxeko jaunen (l'echeco jaune) indarra handia zela badakigu bestalde. Ondarrean, Euskal Herrian nola auzo herrietan, emazteen leku bakarra sukaldea zen, eta zerbait ohore ardiesten bazuten lanaren izerdiaren gustuz zaitekeen... Sorginak ugari kondatzeak ez duke erranahirik !

Eliza bai, fedea bai... Iragan mende krixtauetan podorerik emendatuena apezek zuten. Haiek, noski kiki, ohar-tu ziren elizetan gizon baino emazte gehiago bazabilala, eta oihukatu zuten beren interesak zaintzeko Herri hontan emazteek zutela manatzen. Egia, apezaren «azken hitza bere» hura emazteek zekarten etxera senar-haur-erri hedatzeko. Neurri hortan baizik etzen emaztea buruzagi. Bazter solas guziak faltsuak dira/ditazke...

Apezek mugatu zuten emazteak nolakoa izan behar zuen, predikuen eta kaseten bidez. 1919eko maiatzaren 30eko «Eskualduna» astekarian emazteen eta hortik harat gizonen gogoak moldatu zituzten emakumeen bozka-dretxoaren kontra : «Dena denaren erraiteko, gisa zautzia emazte bat xatarren latsa artetik bozketa ibil dadin ? Eta emazteak hola dabiltzalarik punpeka, barneko lanak gizonen gain ? Emazte bihi batek ez du horrelakorik nahiko...» Oraino ere, 1983 urtean, emazteen botza premiatsua agertu arren, despreziatua da. Gehienek diote emazteek gizon kandidatuaren edertasunaren eta xarmearen arabera hautatzen dutela... Ez gara, beraz, Akinoko Tomasen teologiatik hain urrun : ez dugu arimarik, ez dugu ideia politikorik..

Eta gure poeten poeta Mose Bernat DETXEPARE delakoa emazteen defenditzale hoberena dugu, bizpahiru koplak demagogikoren gatik. Besteak errezi ahanzten ditugu. Euskaldun gizonak, berenaz ez bazen matxista hutsa, frantses oilarren eta espainol zezenen artean etsenplu ona atzeman zuen. Ez dut aipatuko AXULAR mai-xua, ez eta haren sailetik datozen guziak... Iragan urtean, Euskalzaileen Biltzarrak banatu sariketarako egin ziren bertsuak errankorak ziren, pentsamen orokor baten azaltzeko : emaztea = ama, haurduna, goizeko ihintzaren goxotasuna ! Emazte langileaz, borrokalariaz, neskameta ez ez. Emazte «askatua» haierdi gizon-erdi marimutiko bat zaiote, edo txarreanean puta bat... Herri honetan atera biderik ez da...

Poloniak zein aldetara jo erakusten dauku egun. Han badute Lech Walesa, bere emazte Danuta zazpi haur girixtinoren ama eta aita saildu bat Erromatik goraki mintzo dena. Hauxe ohorea !... «HERRIA» astekarian, 1983ko hirugarren asteen lau artikulua irakurtu ditut Danuta Walesa-ren kuraia laudatzeko eginak. Hori baizik ez balitz gure kontzientzien bake-tzeko, bueno pasa !... Baina bada gehiago : aita saildua mintzo da apezpikueri emazteek Jesusen atzetik ongi bizitzeko nola behar duten ibili erakusteko : ekintza haragizkoa haurrak edukitzeko, abortorik ez, eta ahalaz haur «sakratuen» ez ukaiteko mediorik ez segi... Ez da ohartzen mendeak emeki emeki pasatzen direla ! Ni ez naiz emazte «askatua» baina gizarte honek manera berean badarraika kasu ! Askatasun osotik kartzelara ez da mila urratsik. Ez dut ere erdi biderik... Nola konpondu ?.

Urrunetik  
 Gero-ta hurbilago  
 Herabe, arin, doi-doi  
 Soinu firrinda bat  
 Hauteman zuen haurrak  
 Amaren sabelean...

Uren higiduran  
 Gero-ta sakonago  
 Gora, apal, ozen  
 Ots firrinda lasterra  
 Hautematen zuen haurrak  
 Amaren sabelean...

jauzi, irri, zalaparta,  
 ipui, istorio-misterio, oihu,  
 intziri, kalapita, maitasun :  
 Familiako batzarrea zen-eta...  
 burrunba, hixtu, sakre,  
 solas, tratu-misterio, desafio,  
 erasia, arralleria, elkartasun :  
 Asteko merkatu eguan zen-eta...  
 urrats, joko, musika,  
 dantza, amodio-misterio, besarkada,  
 kantu, irrintzin, adiskidetasun :  
 Herriko besta zela-eta...

Ama bazabilen  
 Batetik bestera  
 Etxetik merkatura  
 Lerden eta bipil  
 Merkatutik plazara  
 Airos eta alai  
 Ama bazabilen  
 Euskara lepotik  
 Haurra sabelean...

Gero-ta zaluago  
 Xotil, kartsu, erne  
 Sentitu zuen haurrak  
 Euskararen zirrara  
 Amaren ezpainetan...

Gero-ta biziago  
 Bilduki, arretaz, xuxen  
 Berexi zuen haurrak  
 Euskararen elea  
 Amaren bihotzean...

Sortu zeneko  
 Haurra bazabilen  
 Batetik bestera  
 Ohakotik merkatura  
 Lerden eta bipil  
 Merkatutik plazara  
 Airos eta alai  
 Haurra bazabilen  
 Euskara lepotik  
 Amaren altzoan...

Amaren  
 sabelean

Dere ama zezari  
 bere egonezko sabelean  
 hasi daipintzen  
 Euskara jakitea

Zore

begitartearen

hopaindian

MANEX ERDOZAINZI-ETXART

Emeki-emeki zeru zohardiak  
Inguratu eta bildu gintuen bortu gain hartan  
Izarrak kondatzeaz burtxoratuak eta  
Gure pentsamenduen zabalaz izituak  
Leize ilun batén aurrean izan baginte bezala...  
Olan sartu gintuzun, ixil-ixila  
Gure pentsamendu leize aurrean beldurrak hartuak  
Izarigabeko zeru zohardi zabalak  
Huxatzen bagintu bezala  
Ola hertsu baten murru parata beltzen bilgialat  
Bortu gain hartan...  
Eta geure gorputzen izateak  
Galdu genituen memento bat  
Ilunpearen babesean  
Gorde eta ahantzi genituen  
Memento bat !

Ordoki eta nabak gauean berdintzen direlarik  
Zeru zohardiaren ixiltasunak baretzen dituelarik...  
Burutik behera dohakit  
Leize zulora botatu harrien pirripita lasterra  
Eta barruan galtzen den soinu ozen baten musika...  
Leize beraren barne beldurgarrian  
Dohazkit  
Nere atzoko lanak, urratsak eneguak  
Nere amets eta bihotz ikara zoroak...  
Eta han nonbait desegiten dirade !

Ala ilunpea urruntzeaz  
Ala mugimendu zerbaiten intziriaz  
Bizia sentitu beharrez ala  
Nik dakita, beste zerbaiten gutiziaz  
Hurbildu zinen supazter ondora  
Eta hasi zinen hautsa harrotzen :  
Hauts-pulua polliki-pollikiño kitzikatu zenuen...  
Mugimendu ixil batean  
Su-hazi pikor baten bila  
Hautsa mugimendu lasaiez barreiatu zenuen :  
Su-hazia hasi zen polliki-pollikiño ilunpea urratzen...

Eta gero, abar xeheak ezarri zenituen  
Pausatu ere, ttartteka, egur mehe zenbait :  
Sua  
Su eder bat  
Abiarazi zenuen mugimendu lazo batean  
Eta sua  
Dantzan hasi zen  
Olako murru paratetan  
Eta suak  
Zure begitarte argitu zuen  
Eta berexi zuen  
Ilunpetik  
Eta animatu zuen  
Gauaren ixilean  
Zure begitarte...

Haizearen arina zenuen gorputzean  
Eguzkiaren dirdira begietan  
Iratzeen usaina larruan...

Bele-erroiak eta buitriak  
Ardi hil baten haragiaz aseak  
Harroka zuloetan antzkatzen direlarik...  
Mendi bazterrak gauaren ixiltasunaz  
Jabaltzen direlarik...  
Eta su-lamaren argiak  
Zure begitarte  
Ilunpetik ateratzen duelarik...  
Bihotzeraino dohakit  
Zure mugimendu bilduen hunkia :  
Harrotzen eta, polliki-pollikiño, arrapizten dizkidatzu  
Maitasun baten hazi kukutuak...



Gutizia xoil bat  
Desira bero bat  
Bizia  
Bizitzea...

Haizearen arina zenuen gorputzean  
Eguzkiaren dirdira begietan  
Iratzeen usaina larruan...

Atzoko nere ahaideak, lagunak, adiskideak  
Nere desira eta bihotz pilpira nahasiak  
Zure begitartearen haraindian  
Urruntzen dirade !

So egiten zenidan...

Etorri nitzaizu  
Aberre kolpatu baten antzera  
Neure bizitzaren bide hautsiak  
Daramazkit bihotzean  
Gorputz nekatu honen  
Hezur inguruetan koropilatuak...  
Flakezia handi bat sentitzen dut  
Ez jakin zergatik  
Akidura astun bat  
Hezur inguruetan geratua...

So egiten nizun  
Aberre flakatu baten antzera...

So egiten zenidan...

Haizeak, lanoak, trumoiak,  
Euriak, elurrak...  
Oro ditu mendiak jasaiten, irensten...  
Mendiari ez zaio endurtzen  
Bere zabalaren oparotasuna...  
Mendiaren zabalera  
Ez da enoatzen eguzkia  
Ez da etsitzen ilargia...

Etorri nitzaizu  
Aberre flakatu baten antzera...

Emeki-emeki zeru zohardiak  
Inguratu eta bildu eta tinkatu gintuen  
Bortu gain hartan  
Gau barruan  
Bagenizin okupazio :  
Suari begira  
Geure besoak kurutzatu genituen  
Mendiak zelaiekin egiten diren bezala  
Suari begira  
Gure begiak ihes zohatzen  
Eguna gauaren barrura dohan bezala  
Gure eleak zohatzen  
Beren segetu eta guziekin  
Txinkak bezala  
Gure pentsamenduak zohatzen  
Airean ilaflak bezala...  
Suari so eta beha  
Elkar goaitatzen eta  
Ezin aurkituz  
Bagenizin okupazio  
Orduan !

Gutizia xoil bat  
Desira bero bat  
Bizia  
Bizitzea...

Ordoki eta nabak gau zohardi betean gordeak direlarik  
Bele-erroien eta buitrien karrankak ahantziak direlarik  
Su baten dantza arina murru paratetan erortzen delarik  
Eta su-haziaren dirdira ahula ilunpean galtzera dohala  
Zure gorputzaren mugimendu murrizak loan baretzen dirade...

Ixiltzera dohakit, aldiz, polliki-pollikiño, ezpainetan  
Maitasun galde baten ele minbera !

# hire adin gordinean

Jose Arregui  
eta beste gure Lagunei  
nigar ororen artetik

Hire aurpegi alaia  
Hire abots kantaria  
Hire bertso dantzaria  
Herri hontako bazter-inguruetan  
Hire so garbi sarkorra  
Hire irri sano lasaia  
Hire esku-aire trebea  
Nola musean nola lanean  
Hire aupegi kezkatia  
Ixil eta zimur  
Lagunen berriak jakitean  
Hire so eroria  
Ilun eta triste  
Lagunen heriotzak jakitean  
Itzulika eta itzulika  
Gela batetik bestera  
Sukar eta minbera  
Klandestinoko egun haietan...

Leihotik so  
Eta begira  
Ixil eta pentsati  
Leihotik han-harat  
Eguzkiari  
Ilargiari  
Lanoeri  
Goizetik arratseraino  
Eta gauean oraino  
Goibel eta triste  
Askatasunari  
Maitasunari  
Herriari  
Deika  
Eta ezinean  
Itzulika eta itzulika  
Gela batetik bestera  
Klandestinoko egun haietan...

Hire lagunekin  
Joan hintzelarik  
Hire lagunekin  
Mendiruntz  
Abiatu hintzelarik  
Negu hartako  
Arrasteri batez  
Bestaldi arte  
Erran ondoan  
Abiatu hintzelarik  
Hire begi bustiak  
Bideskan urruntzean  
Mendiruntz  
Klandestinoko arrasteri hartan...

Ez huen mundua harrotu nahi  
Ez huen mundua menperatu nahi  
Ez huen mundua zapaldu nahi  
Xoilki  
Askatasun handi baten gutizia  
Maitasun sakon baten desira  
Herri puskatu menperatu  
Eta zapaldu honentzat  
Amodioz  
Ez huen beste ametsik  
Beste asmo eta xederik  
Xoilki  
Eguzkiaren dirdaia  
Ilargiaren hezea  
Lanoen bustia  
Herri ebaki, xurgatu  
Eta zigortu honentzat  
Iraultzan  
Ez huen beste askatasunik  
Ez huen beste maitasunik  
Ez huen beste herritasunik...

Hire lagunekin  
Harrapatu hindutelarik  
Hire lagunekin  
Madrileko kale ertzean  
Tirokatu hindutelarik  
Otsaila hartako  
Egun batez  
Kartzelaratu hindutelarik  
Hire begi hantuak  
Kartzela zuloan  
Torturatu eta  
Beren errabian  
Erhaili hindutelarik  
Hire askatasunean  
Hire maitasunean  
Hire herritasunean  
Gorputzeraino  
Otsaila hartako kolpean...

Hire adin gordinean  
Herriak amultsuki eta  
Kexu  
Bildu hinduen kartsuki eta  
Odoleraino nigarrez  
Hire Herri hezgaitez  
Ehortzi hinduen  
Askatasunaren eta  
Maitasunaren  
Lurrean  
Eta biziko hintzen...

Gure askatasunean  
Gure maitasunean  
Gure herritasunean  
Gure adin gordinean !

# Añarroza

Mikel Dupak

AMETS HARKOR ETA ETSIMENDU BUHADA BATZU  
IZAN EZIK DEUSIK EZ NEKIEN MARGAITA EUSKAL  
HERRI URRUN HARTAN EGONDAKO NIRE GOGO  
AMETSETAN HAMAICA URTE HONETAN ATXIKIA  
NUEN HAURKIDEAREN ITXURA ZITZ AidAN HAREN  
ORRAZEA IKUSTEAN HARRITUA IZAN NINTZEN

ALAITASUN HONI GAITZETSIKO OTE DIOKE ?  
EZKONT-NAHIA GOGORA HELDUKO AHAL ZAIO ?  
MAITEKO AHAL NAU !  
EZKONDUKO AHAL NAU !

## Añarroza - IV -

Handik zortzian goizean egin zuen nere bizian agerpen berri bat. Oihanaren gain berri sortutako Eguzkik ibai azalean ez zituzten sula luze batzu baizik sortarazten. Oraindik hotza zegoen ihintza : doi-doi ke egiten hasten zen zuhaitzen baten burua, zeinek urre-ingurua hartzen baitzuen. Haur artatzera joaten zela banekien: Mura etxolen ingurutan nenbilen eta berehala, azken etxolatik hurbil, ur hegian, niri so egitean ikusi nuen.

Trankoka hurrantzen nintzela ikusi zue-neko, ihesari emateko olde motza izan zuen eta gelditu zen. Haren atxikitzeke keinua egin izan nuen, eta presaka nenbilen, baina neure barnean, atrebitu gutiagoa nengoen. Dudarik bat ere gabe, herabetzen ninduen neskak. Beldur, bai, beldur nintzen ; hura ere bai. Baina elkarrengandik hurbil-hurbil izan ginenean, niri begiak altxatu zizkidan.

Ez nituen gehiago ikusten ez haren gorputz hunkigarria, ez haren aurpegia, haren begi zabalegiak baizik ; bai betespal bazter hezeak, bai nini beltz-beltzak, bai begi-xuri ubel-urdin-xkak. Ez ziren betetzen ninduen argi ilun baizik.

Ez nuen hitzik egin behar izan :

«Nahi ahal duzu, ...Senhor Elixondo, ...nahi baduzu..., hemendik hurbil dagoen aintzira batetaraino elkarrekin joan bagintez zoriontsua ninteke...»

Atso mokorren bat bezain ofentsatu eta haren ausartziaz samurturik, ondolik ibili nintzaion !

Soinekotzat ez zituen erpil haundi gorputza bihurtzen zioten igandeko gona zabala ez eta meatilla xuria ere. Liranjatan mokoka hegal gorridun ara urdin batzu ari ziren kotoin inprimatuzko gona aztal erdietaraino jausten zitzaion. Oihal xurizko mantar motz lepo hutsak soina tinkatzen zion. Agerian zituen beso-axiroinak.

Noiz behinka ibiltzeak hanka marratzen eta gerrian, gona-mantarren arteko larru beltzarran legun poxi bat erakutsarazten zizkion.

Añarrosa xoragarri hura ! Irrño egin eta zuri ederretsi beharrean, hara nun fida-gaitz eta bekaizti nengoen !

Aintzira ez zen zabala, bainan oihanez hertsiki inguraturik, ur eremu beltz, gogor, argi izpirik gabeko bat iduritzen zuen. Erdian, zankaluz bakarti batekhatz bakar baten gainean lo egiten zuen.

Xinauriek mirakuiluz etxetat hautu ez zuten goroldi une bat aurkitu nuen : betiko jakinen nukkeen guretzat xarmatuak zirela bazter haik.

Jauntzi arina kentzen ziolarik, ez nuen Añarrosaren aurpegia ikusi, bizkarrez argira baitzegoen. Bainan goroldi ohean etzanik, dirdiratzten zuen argitan. Papo xumeak zituen argitsu, tontorren inguruan. Sabeleko eremu ezta distirant zitzaion xoko doi-doi itzaltsuraino ; izter gainean argiak urka arina marrezten zion...

Añarrosarengana makurtu nintzen eta haren gorputza itzaldu zen. Ordainez neure eskuaren pean pixka bat firfira egiten zuen larru samurrezko bide luzean sartzen ari nintzen. Hosto usain hau zeukan. Neure lepo-gibean haren besoaren tinkatzea eta haren hats aldizka bahitua ala baketua ere neuzkan. Luzaz begizpalek atxikia eta azkenean bildua, neukan ere haren begietako argi iluna.

«Besteak bezala ez hengoela eta beste oihaneko Indianoak argitzera joan gintezen eskeiniko hidala baniekian.

Bai, Manex maitea, lehen bait lehen joan gaitzen :

«Mesaiek Mathiasi amor emanerazten ahalko agian zioate !»

Erdizkatzen ninduen egoera larri honetan, aspal-diko zapalduen eta gu Euskaldunon aldea azkanean hautatua nuen :

Arindua sentitzen nuen neure burua eta Zumalakarregik irripar egiten zidala iduritzen zitzaidan.

Mesaia herriak ez zuen ohi ez bezalakorik deus, zabaltasuna izan ezik : berrogei bat etxola, karratuak nire ustez, beti bezala palmaz estaliak, belar gorribelzko soropil baten eta oihanaren artean. Uhaldeak ibaia ezpondaren berditzean ekarri izan zuen.

Ohart gabetarik leihorreratu ginen. Atso zenbait, kokorika jarriak, kotoin xuritzen ari ziren. Neska batek, buluz-gorriak, haur baten ileetan miatzen ari zela, noizean behin ahora behatzak ekartzen zituen.

Añarrosa eta biok aintzina jo genuela, kopetadunena eta lasaiena egiten genituen. Kasik emazteen erdian etorriak ginelarik, orro-hurrubi egiten hasi ziren. Denak batean xutitu ziren, matrailak estiratu.

Ihizin ziratekeen gudari gehienak : lauz-pabost gizon baizik ez ziren etxoletatik jauzi, burumakilak eskutan.

Ixiltasun tipus-tapas ezarrian, Añarrosa mintzo abiatu zen. Hitzetan behaztopatzen zen

JAUNTZI ARINA KENDUKO NION  
GOROLDI UNE HARTAN ETZANEN  
PAPO XUMEAK TONTOR ARGITSU  
SABEL EREMU ITZAL EZTIA  
ANARROSARENGANA MAKURTU  
LARRU SAMURRA FIRFIRATUKO  
BIDE LUZEAN NI NAIZ SARTUKO  
HOSTO USAINA HAREN BESOA  
BELARRIETAN HATS BAHITUA  
HAIZE MARRUMA PLAZER AUHENA

JAUNTZI ARINAK KENDU NIZKION  
PAPO XUMEA PEREKA NION  
SABEL EZTIAN SARTU SAMURKI  
GORRITUKO ZAIT TIRRIA ETA  
BIDE LUZEAN IRAUNEN DUT  
BERO USAINA HAREN BESOAK  
HAREN BESOAK HAREN IZTERRAK  
TORRADURA  
PEREKA  
EZTIA  
PIPERRA  
SUA  
NI  
NI  
ETA

IRRRRINNNTZINNNA !!!

BARKATU JEAN GEROAZ BELDUR NAIZELA  
PERUTAR JESUISTAK EHUN ALDIZ AMAZONAN  
BEHEITI JOAN DIRELA GURE HERRIAK BAHITZEKO  
BAITA BRASILGO KARMELDARRAK  
ESKLABORIK GABE IZANIK GORA UCAYALI  
IBAIRAINO HAUR EMAZTE LAPURKETOK  
BETIKO GELDITU OMEN DIRELA BAINAN  
MESAIK IPARRALDERA BILDU DIRELA  
JAPURA AHUATI JUNTATIK HIRU EGUNETARA  
HAN HERRI HETSI BASA BATZU OSATZEN  
DITUZTELA BETI KASU EMAN BETI BURRUKATZEKO  
ALA OIHANERA ALDE EGITEKO PREST EGONIK

BETI KASU EMAN



eta zertako Añarrosa hil ? Bi gudariak neskaren mintzatzeko moldean beste leinu etsai baten alaba ezagutu ahal zuten ? Ala, orroitmenaren azpitik jalgirik, goizean goiz miranha preso bat etxola atean agertzen deneko ohartgabeko jես-tua izan ahal zen ? Buru-muina odolez betetzen eta ginarrak oldartzen zituen bulta beharbada ?

Atera egin zen Añarrosa. Oihala erori zen. Ez nuen aihen labor bat baizik entzun. Berehala zutiturik, itsutuki atetik iragan nintzen : Eguzkik azotatu eta, soropiletik zehar bitxiki klankatzen ziren bi gorputz gorri ihesari emanak besterik ez nuen lehenik ikusi, eta gero bat-batean, haien atzetik, Añarrosaren burua lurtean punpaka, belar zimurtuzko ildo luze baten muturrean.

Dena orroaz ari, lauhazka lotzen neure hankak sentitu nituen. Eta bat-batean, kosk izigarria garondoan... Begi ondoan belar lasto haundi nahasi... Niregandik berexiak bezala eskuak, armi-amo gisa lurraren gainean ibilki... Buruan gora, ponpoil lanbro-burrunba... Ximist kosk berriz... Deus ez...

Etxolaren barru-barruan, hertsiki estekaturik eta ahotapaturik iratzarri nintzen. Axolarik ez. Mugitu beharrik ez. Dena akabo eta kito. Galtzera utzia nuen Añarrosa. Añarrosarik ez. Nihoiz ere.

Begiak hertsirik, han etzanik luzaz gelditu nintzen. Ez nuen neure gorputza gehiago sentitzen, neuri lotutako herstura ezin kenduzko hori baizik. Nere arimako zilo zabal ilunean gaindi ibiltzen ziren arrazoinamendu xirtxika batzu, ia aspaldikoak, birpizkorrak. Tranparik ez... Mentura hutsa... Hura aintzin atera banintz... Atxiki banu... Ni nauk hobendun... zozoa... Añarrosarik ez... Nihoiz...

Ez nintzen gehiago etsimenduzko gau zati bat baizik.

Ah ! Ez dut ipuilari atsegirik gehiago sentitzen. Neure baitan Añarrosa berriz eskuratzeko, duela hogeituro urteko itxura haik gaztetzeko, kondatze honi lotu nintzaion. Pixkanaka banazka itzaltzen etsituki ikusten nituela, azken indar batez nahi izan ditut baliosenak lotu, bai eta liburu bat ni baino sendoagoa osatu ere, azken hatseraino atxikitzen ahalko dizkidana ; Añarrosari gordetzen diodan amodio hau, zombaitetan hain hauskor dagoena niregan, gostaia gosta piztarazten dudana, bortxaz salbatu behar dudana, beste norbaiti egun batez jakinarazten ahalko diona.

Burura dezadan : Argibide hitz bat ere gabe (nola ulert alabainan ?), Indianoek Añarrosaren gorputza erakutsi eta gero, arta-jaki eman eta, berriz ere egaritean Japura ibaian bidaia luzea, Amazonara eramane ninduten : han hegian utzi ninduten Belen-erako pyroscafo delakoa pasatu gabe !

*mikel dupa.*

OIHAL XURI MEATILLA GERRIA MEHATXA  
ESKU BELTZ HORI LUZE MIRANHA NESKA  
ORRAZE BELTZARAN TRIXTEKI BEGIRA  
BEGIAK IHES EGIN HIPAKA HIPAKA HIPAKA  
AHULENA AINTZINEAN BULTZATU  
AHULENA AINTZINEAN BULTZATU  
AHULENA AINTZINEAN BULTZATU

ZU JEAN ELIXONDO HAUREN ARTATU BEHAR  
ZUMALAKARREGI JESU KRISTO SALTZEN DUK  
BELDUR BEGI ZABALEGIAK NINI BELTZAK  
BEGI XURI UBEL URDINXKAK

NAHI AHAL DUK MANEX NAHI BADUK  
HEMENDIK HURBIL DAGOEN AINTZIRA BATETARA  
ELKARREKIN JOAN BAGINTEZ HIL HIL HIL  
LIRANJATAN MOKOKA HEGAL GORRIDUN ARAK  
GONA MANTARREN ARTEKO LARRUA PEREKA  
BULUZ GORRIRIK ANARROSA EDERRA

PAPU XUMEAK SABEL EZTIA BURUA  
LURREAN PUNPAKA NIRE LEPO GIBELEAN  
HAREN BESOA ILDO LUZE BATEN MUTURREAN  
LARRU SAMURREZKO BIDE LUZEAN SARTU  
AZTAPARKA

*Jarrakitzeko.*

Gauaren atzekaldetik heldu zaizkigu  
itzulpen hauk, Joseba Sarrionaindia  
dugu itzultzaile ; Miquel Mari i Pol ,  
Henri Michaux, Jacques Prévert,  
William Wordsworth, Walter Delamare  
hor ditugu. Mayi Pelot-en gutun batekin.

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

#### GAUEKO IZARRETAN

*Gaueko izarretan lebena  
iparreak dugu lerdin,  
udazkeneko arratsen ilunetan  
hasten denean argitzen ;  
balakoa dut nik adiskide  
oroz lehen maite dudan laguna.*

*Itsasilunetan  
ekaitzak hondoratzean,  
gaueko izarretan adiskide, desertuetan bezala barkaitz latzak lerdin  
balakoa baita maite dudan laguna,  
bizitzean lebena  
nola heriotzean argitzen.*

ANDOLIN EGUZKITZA

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

A CLAUS DE SORRA

---

Harezko iltzetan eskegi ditut tresnak  
eta behelaino kutxetan gorde ditut liburu guziak.  
Orain, eskuak kolorez margoturik,  
festarako arropak jantziko ditut  
eta zinematik irtetzen diren neskak itxarongo .  
Euria bada margo deigarriko guardasola eramanen dut  
eta ferde ausarteko zapata handi batzu.  
Neskak iragan eta esanen dute -Arratsaldeon  
(agian guziek, nork daki !, maite naute isilean)  
eta karrika izugarritan barrena aldenuko dira  
leinu ezezaguneko gizonen besoen barruan galtzeko.

Akitu eta etsiturik, oraindik maite ditudan bertsoak  
ahopean errepikatuaz, itzuliko naiz  
iluntzean etxerantza : eta astuna eginen zait erropa  
nagitasunaren keinu herabearen gainean.

Eta atari bakoitzean bikote bat egonen da  
mosuka edo nork daki zertan, artean nik,  
bakarrik eta babesgabe, pentsatuko dut  
gaua igurikatzen nauen dontzeila bat dela  
eta oihuka urratuko dut harengandik bereizten nauen lilura.

Miquel Marti i Pol.



JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

### PORTO LA TARDA...

---

Besoa ebatu eta daramat arratsaldea  
andere maitatua ebatzen den bezala,  
nigandik ustekabeko bizi arnasesturekin  
sortu den arratsalde gaztea.

Besoa ebatu eta daramat arratsaldea  
eta neu ere arratsalde barruan galdua  
argiaren eta bideen mendean  
oroimina ametsen urre adiskideaz urreztaturik.

Eta baretasun zabalean erideiten zaitut, maitea,  
hegazitigalduak atsedean hartzeko abarra  
erideiten duen bezala, udaberri ezezagunez  
helduriko bere abestiaz loratuaz.

Eta are gehiago eridenean zaitut, espiritua  
zugatik gauzen gainean abaildu dadin arte,  
andere eder bat iturrian edateko makurtzen  
den bezala, eta bere burua han behatzen.

Orduan eroriko da gaua eta pentsamenduak  
zu edukitzearen alaitasaunaz irabazirik  
argitasun abesti bat erritmatuko du  
susmoz beteriko itzalen barruan.

Miquel Marti i Pol.

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

### EL FUGITIU

---

Heldu berria naiz leku guzietan  
eta eskaileretan egiten didate gela  
edo osasuna galtzen dut estalperik  
gabe lo eginik eta ez dut hegalik.  
Iheslaria naiz ez dakit nondikoa  
ifarra eta haizea eta gida dut galdu  
mundutik lekora hainbeste egoteaz  
neu bakarrik bait naiz neure laguna.  
Iadanik ez dut ezer, abotsa soilik  
eta profeta zaharraren keinu nekatua ;  
herri guzietako zaindarien  
ezagutzen dute ene gaiztotasuna  
eta karriketan eta balkoietan  
andere ilunek errepikatzen  
dituzte egin ez ditudan bekatuek  
letaniak, eta larrean edo  
harpean lo egiten badut zakur  
zaunkek eritzen naute gauean.  
Akiturik naute hainbeste zarataz ;  
larruak ere ez nau iadanik babesten  
eta erabat urratzen nau gatz haizeak.  
Oraindik bizi banaiz, esan ditudan  
hitzak ordaintzeko da, eta zorigaitza  
hasten da berriro hitz bakoitzean.  
Kezka mamiak ditut eskatuko,  
dudana ere sobera dudalako.  
Inork galdetzen badizue zer gogoan  
harrapatu nauen azken frogak  
esan egiozue gosez eta ahazturaz hil naizela  
zabaltzen ez den ate baten aurrean.

Miguel Marti i Pol.

### PARLO DEL CRIT UNANIME...

---

Odolaren oihu sakonaz mintzo naiz  
eta aurreritzi ilunek  
naute galerazten.  
«Behiala...» esaten dute  
eta mendetan naiz zaharra.

Zer ildo hautsezatutan  
apaintzen dituzue hitzak ?

Lagunak : aska ditzagun itsauntziak  
hainbeste hede hutsaletik.

Ibai handiak daude gure haiduru.

Miquel Marti i Pol.

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

HEU ESTIMAT LA PATRIA COM S'ESTIMA...

---

Aberria maitatu duzue izatea ematen zizuen  
andere zaharra maitatzen den bezala ;  
Aberria, harroa dena eta mendiak dituena  
eta itsaso bat, amoltsuki seaskatzeko.  
Hain zuzen, bere errai bizietan hazten  
zinduzten populua maitatu duzue ;  
historia puskarik gabeko populu zaharra  
gaitzeritziz beteriko giroan dena.  
Eta kentzen zenituzten itzalak eta hazten zineten  
amodioaren fruitu garratza eskuetan hartu arte  
eta beste gizasemeetan loratu zineten.  
Eta une honetan, hiltzori geldo batek  
laudatu du zuen haragi hutsala eta  
baretasunean hil zarete, espektakulorik gabe.  
Oh zuek ! Hainbeste pertsonaia !  
Nork egingen du otoitz zuen hilobien gainean ?  
Nork eramanen dizue lehen lorarik udan ?  
Nork erestuko zaitue doinu erromantikoz ?  
Munduko errautsa zarete eta joritu egiten duzue  
bizitza hilobitiko zuen kexuaz.  
Herregatik onartu zaitue lur amoltsuak  
maitaleak lehen gaua onartzen duen bezala,  
eta ez da bereizten besarkada sakonean  
zer den lurra eta zer zuek, hilak, zuek guziok.

Miquel Marti i Pol.

SOM PELEGRINS

---

Zure isiltasun gorenerantzako erromesak gara,  
Jauna, abots galdua berratzematen.  
Asunez eta behelainoz ditugu eskuak  
eta begiak ere itzala hainbestetan burrukatzeaz.  
Erromesak gara, Jauna, abotsaren mirakuluak  
haurren lehen keinu dohatsuaren  
garbitasunera itzul gaitzan,  
burrukan gure harma egon dadin  
haragiz eta kezka, ezen ez dirau ezerk  
zure atsedena sortzeko gure buruen  
gainera altzatzen duguna baino gehiago.  
Ez da ezer zihurra, harean izkribatua bezala,  
eta harriaren gainean nahi dugu idatzi.  
Itzuli egiguzu behialako baretasuna edo  
xarma gaitzazu betirako zure keinu gorenaz.

Miquel Marti i Pol.

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

### NO LA SUAIVITAT DE LA FRUJTA

Ez fruituaren lehuntasuna  
zure lehuntasuna,  
esku arinen azpian  
umel eta ikaratia.

Gordeleku bat eridenen dugu  
haizeak eszena desegin ez diezagun.  
Han izanen da hare eta mangolina  
edo ihiak  
edo basaliliak agian.

Oro da eder zure begietan irakurtzeko  
zure ezpainetan musukatzeko.

Hitz tristen nahasmen geldoaren  
gainera alzatuko zaitut.

Gaua bada, zure gorputz  
hain zuriak  
itzala eginen die itzalei.

Miquel Marti i Pol.

### CANÇO

Nahi nuke ukan itsasontzia  
eta etxe bat mendian ;  
su bat haizetan eta beste bat  
barean irazeki ahal izatea ;  
egunez emakumea maitatzea  
eta gauez uretako andereak.

Hain ugaria izan nahi nuke  
aidea bezain aske eta ugaria,  
bide guziak ezagutzea  
eta hondartza guzietan etzatea.

Damen ganbaretako sektretuak  
aurkitu nahi nituzke  
eta guziak maitatu,  
ezkondurik leudenak ere,  
eta hil, heriotz lehunez,  
asteazken arratsaldean.

Miquel Marti i Pol.

JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA SARRIONAINDIA JOSEBA

SI PARLO DELS TEUS ULLS...

Zure begietaz mintzo banaiz oroitzen ditut  
mihimenezko aulkitxoak eta uso sartaldea.  
Zure begiak, ilunbetan oihua bezain sakonak.

Zure ezpainetaz mintzo banaiz oroitzen ditut  
leize sakonak eta erritmo nagiak.  
Zure ezpainak, gaua bezain hurbilak.

Zure adatsaz mintzo banaiz oroitzen ditut  
hondartza ezezagunak eta eliza gelditasuna.  
Zure adatsa, haizearen aparra.

Zure eskuetaz mintzo banaiz oroitzen ditut  
mertxika lehunak eta arropa zaharraren usaina.  
Zure eskuak, hasperena bezain arinak.

Zure gorputzaz mintzo banaiz  
maitatu dudan zure gorputzaz,  
ez dut ene abotsa baino oroitzen,  
eta orduan zikoikeriz hersten ditut begiak  
eta, enetzat bakarrik, diot argia bezain beroa  
isiltasuna bezain betea den  
zure gorputzean zehar jarraitu  
ditudan bideen sekretua.

Miquel Marti i Pol.



## GERNIKAKO HARITZA !

*Gernikako haritza ! Zubaitz indar saindukoa,  
Dodonan bere adasken sakonetik jainko abotsa  
entzun araziz (fede sineskoraren ustez)  
gordetzen zuen haritz profetiko hura baino gehiagokoa.*

*Zelan loratzen zara sumtsidura haro bonetan ?  
Zer esperantza, zer laztan ekartzen dizu eguzkiak,  
Atlantiko itsasotik iristean baize samurrak,  
goizeko garoak, apirileko euri gozoak ?*

*Kolpe gupidatsu eta zoriontsua litzateke  
zure abarrik hurrean barreiatuko litzatekeena,  
zure gerizpe zirkuluan ez badira gebiango*

*biltzarrean elkartuko beren eserlekuetan  
laborari eta jaunak, legegile dobatsu borik,  
Bizkaiko askatasun zabarraren zaindariak.*

William WORDSWORTH

## AFUSILATUA

*Liliak lorategiak iturriak irriak  
Eta bizitzearen alaitasuna  
Gizon bat zerraldo eta bere odolotan blai  
Oroitzapenak liliak iturriak lorategiak  
Haurtzaroko ametsak  
Gizon bat zerraldo zama odoltsu bat bezala  
Liliak iturriak lorategiak oroitzapenak  
Eta bizitzearen alaitasuna  
Gizon bat zerraldo baur lokartuaren antzera.*

Jacques PREVERT.

## BUDAPEST-EKO NESKA

*Neska arnasa baten behelaino epelean  
eriden nuen ene lekua.  
Han gelditu nintzen eta ez naiz aldendu.  
Ez dira astunak bere besoak. Haietan  
uretari bezala egon daiteke.  
Desagertu egiten dira bere aurrean  
zimelduriko garzak. Bere begiak soilik.  
Belar garai ederrak, belar eder garaiak  
bazten dira gure baratzean.  
Zelan sostengatzen zara orain, oztopo mehea,  
Zelan sostengatzen zara ene bularrean  
orain taadunik ezer ez zarenean.*

Henri MICHAUX.

1984ko Urtarilaren 12an,  
Miarrizten, eguzkitik 3gn planetan.

Joseba,

Zor dizudan emaitzaren gatik milesker: zure lerroaldiari esker irakurtu baitut Haur Besoetakoa delako elaberri gaitza ! Behin eta berriz ! Maiz berrirakur-tzen ditudan, ninfulei buruzko lerroaldiak bi zientzia-fikziozko ipuinak oroitarazi dizkit ; frantses autore batenak dira.

Lehenak, androidea bat eta hameka urtetako neskatxa baten amodioa kondatzen du ; bai eta ere neskatxa hartaz hil eta nola androidari gorputza, gazti-guaren gisan, zatikatzen duten... Bainan androidak, anartean, -gizon psikoteknologo batek eraginda- neskatxoaren gogo guzia bere mikrokrystal batean, metakopiatu du. Kristala beste puxkekin espaziora airatu eta, ondakin-biltzaile batek hatxemanen du eta neskatxoaren gogoari (edo neskatxo-androidaren gogoari ?) beste gorputz bat erosiko dio. Baina beste osmosis arazoa : teknologoak ez al dio androidari, bera egi-tera ausartzen ez dena, eginerazten ? Bai eta ere androidea, ninfula duela gidari, gi-zontzen ari - gizondu nahian bederen...

Bigarren ipuina desberdina da. Galaxi gerlaren ondoan, Lur planeta goseteak porroskatua da. Gainera, eritasun berri batek gizonetan gehienak hil ditu eta egon direnak emazteen menpean dira. Emazteek ez dute zibilizazio gozori eraiki, erleenaren antzeko bat baizik, hierarki-zatua, askatasunik gabea, gogorra. Emazteek, gosetei uko egin nahian, gizonen ar-mada bat «haraginak» planeta urrutietara, igorri dute, haiak ahal bezain izaki-gizaki-erahiril eta haien haragi hormatua Lurrera ekartzeko asmoz.

Ipuinekoa, Lurrean gertatzen da. Haragin ohi batek, gizon zahartu ba-tek, lan zikin hura bere bizi guzian eginda, beste lan bati lotu behar zaio : emazteek, lehenengo, aintzineko, hots gizonen zibilizazioaren arrasto guziak kendu nahian, hypermerkatu denda bat suntsitu behar du - salbatu nahi dituen bizidunak hautatu eta bere lan zikinaz nazkaturik.

Denda, zigante eta bitxia da, liluragarria, hordigarria ; planeta guzietatik ekar-ritako makina-izaki, janariez betea. Haurren - adinduendako Disneyland bat, makina-erdi biziez eta androidez betea. Edozer sinestarazteko haina : eguzki, euri artifizia-len pean, haragi ibai baten ertzean, gizonak bere aurpegia mirail berezi batean gaz-teagoa ikusten du, adibidez... eta txoratzen...

Bat batean emazte-haur (ez haur eme) bat hatxeman du, hamahiru urtetakoa iduri. Emagalduek emagaltzailea, eme ausart trebea. Gizona «haragin» ohia dela ulertu eta joko krudel batean sarrerazten du, psi dohain berezi bat baitu : jendea iraganera itzulerazten ahal du. Harek gizonari, bizitu dituen unerik mingarrienak berriz bizierazten dizkio : haren haur zenak, bortxatu zituen emazteak, maite eta galdu zuen emaztea, erahiril zituen izaki baketsuak...

Gizon-neskatxoak ez dira ez paradisu batean elgarretaratu, lilurazko Kapharnaum batean baizik ; hots duda mudazko herrialde batean, iragan eta orainaren, bortxatze ta samurtasunaren, lilura ta errealitatearen arteko leku-une batean bat (?) egiten dutenean, neskatxoak bere erabakia jadanik hartu du : ez du salbatua izan nahi, eta libroa hiltzeko dendarekin zartatuko da. Gizona bakar-rik abiatzen da... Zertarako jakin gabe...

Itsas lantxurdak, itsasoaren marruma, suetako kea, gizakumeen kantuak eta hilen hautsak zirimolaka eramaiten dituen galernaren erditik, agur bero bat, Joseba.

Mayi Pelot.



# Telelabirintoa

mayi pelot

New York-en 19gn astea hasia zen. Argi zirrintan piztu egin zen Anaiz-en ohea. Gela argitzean, boz ezti batek "Egun on. Gaur 2050ko 19gn astearen Ina da. Egun on. Gaur 2050ko 19gn astearen Ina da" "Anaiz jeiki arte errepikatu zuen. Orduan boza "Zigmak zuri egun on bat" erran eta ixildu, leiho-ohola ixilki lerratu, argi artifiziala itzali.

Kanpoan egun sentia. Building arteko pasagierri esker, karriketarik ez zen zeru izpirik ere ikusten. Plazarik ez. Zuhaitzik ez. Hiria, dena karrika zen. Ez hain tristea, buildingak era ta kolore guzietakoak baitziren. Aireko batetik begiratzuz aldiz, karrikak eta building multxo baten teilatuek letra greka baten era bazuten,  $\Sigma$  (zigma) handi batena. Han zelakotz hiriko Gogoaren Tenploa, Zigma S.A. ren laboratorio ta bulego handiak. Han U.S.W. (Munduko Estado Batuetako) etako ordinadore nagusiak. Bai ta ere Zigmatiar batzuen bizilekuak. Han bizi zen Etxeberry'tar Anaiz.

Lehen asteko goiz hartan, neskak, sukaldera sartu eta gosaldun baino lehen hormabista piztu zuen. Etzuten batere harritu goizeko berriek: aireko pans-labitar batzu Indiako zeruan atxemanak zirela... U.S.W. etako lendakariak etzuela Irandarrik Perpiñanen ondoan gehiago onhartuko... hots, eguneroko ogia. Sukalde perdeko horma bakotxean, makina bat; hormarik luzeenean (ateari begiratzuz zionean) "baza-kalemaileko" argitxo ta atzolak eskuinekoan, atetxo zehargi bat, labe batena iduri: hura automatikoki ideki-ta, jaki beroak metalezko azpiletan handik ateratzen; urrunago, asteko janarien hautatzeko eta programatzeko klamera ttikia; ezkerreko horman, edariemailea, bere klamera ta leihotilekin Atzol bakotxa edari baten izenarekin; makina hark azukrea ere ematen ahal zuen. Atea zegoen horman, hiperizozkutxa automatikoa. Anaizek 3 atzol hunkitueta kafesne beroa leihotilatik paperontzi batean ateratu zen. Dena hormetan zelakotz, gelak mublerik ez, mahain bat eta alki bat salbu. Anaizek mahaieko atzol bat hunkitu eta ideki zen mahaingaina, metalezko azpil bat ogi xigortu ta gurunez estalia barnetik igan. Nahiz eta bizileku horrek Anaizi eraberrikoa iduri, egon gela klasikoa zen: jaki eta edariak sukaldetik eskuz ekarri behar. Anaizi laket zitzaion New Yorken atxemandako lanak eskaintzen zion bizi errex hori, banaan min ematen zion zeru gabeziak. 3gn Munduko gerlak odolusturikako Europa zaharrean sortua zen eta, bere herrian, etzuen bizi bera ukanen. Haren aitaren etxean (Esqwal Herryko herri guzietan bezala) janaria mubleetan, oraino ezartzen zuten ez hormetan, bai eta kasolak erabiltzen. Esqwal Herryan egon balitz... banaan urrikiak utzi behar. "Dena den, Zigma gizartearen arkigrafa edo telidazkaria lan leku bat atxemaiteko xantza ukan dut. Agian lana Byorn'en laister izanen dut".

Egongelatik pasatzean, telegela ttikiko inprimagailuari behatu zion: mezurik ez. Gogotik abaitu zen lanera.



## LANA HERRIAN

Natanael Opusday jauna, Zigma gizartearen zuzendariak (ofizialki koordinatzaile) bere bulegoko klabez ordinadoreari langileen artean esqwaldunik baden galdegin. Baietz, 50. Byornen zenbat? 2o. Nolako lanetan? Sukalde automatikoetan, ostatuetan, eritegietan, sendagailuen laboratorioetan (hauk oso kalifikatuak). Natanael Opusday jaunak holakorik ez behar; egitarau egileak edo arkigrafak nahiago zituela klaberaz jo. Baietz. Batto. Etxeberry'tar. Anaiz. 00.2027. 30.15.1524.

144gn lan-boxean Anaizek hasperen bat eman zuen. Berak goizeko telemintzaldian makinaz hartutako notak laburtu, antolatu... idatzia zen (EH 2050-0205garren egitaraua: terminaleko pantailan irakurtzen ahal. Anaizen erhie terminalako klamera azkenean utzi. "Bidal" atzola hunkitu baino lehen textoa berrirakurri behar; hutsik ez... baietz, bi ortografazko huts. Ez zuen axolarik: telidazgailuak zuzenduko...

Opusday jauna harritia zen. Zigma gizartearen Esqwaldun guti. Zergatik? Etxeberry horri edozer galdatu gabe psikomemoriari dei egin behar. Ordindore hark 3gn munduko gerla ondoren European jende guti ta janari guti egoen zela, ta esqwaldun gehienak Telagiren laguntzarekin laborantza ta hazkuntzari lotu zirela eta Zigmaren bulego berrieri janaria salduz aberastu zirela. Estatistikoen sintesisaik errana.

"Ongi hasia benetan! Beren lurrari estekatuak... Gibelkoiak ote? ez, haatik... Herri bakotxean Zigmak ezarritako terminalak erabiltzen baitituzte. Lurra metodo berriez lantzen... Etxalde barreatuetan bizitzen direa? Ezetz: laborarrietan bizi. Pentsa! Hiri bakotxaren pean nuklear kontrako aterbe bat badelakotz! 3gn gerlak bonbaren beldurra zuzurtziaren hasiera dela jendeari erakatsi!

Anaizek «bidal» atzola hunkitzean, bere lanmahaineko argitxo gorria klixkan hasi : zuzendari baten deia. Neskak «entzun-ikus» atzol perdea hunkitu, lanboxeko argia berehala itzali, nagusiaren bulegoa ageri, Anaiz Natanael Opusday ezagutzarekin harritu zen. «Nausiak NERI dei egin ?»

Opusdayren begiak ez zitzaizkion ez hotzak ez eta ere gogorrak. Egia erran ez zuten deus berezirik Anaizen lan boxari lasaiki so egin zioten begi beltz haiek. Haleta Opusday jaunak dena ikusi : «Ziklopo» fitxategi ixilikakoak egia erran, Anaiz langile ona, zeren eta haren lan-mahainean linalezko bloke bat eta arkatx zahar bat baizik ez baitzen. XXIgn mendean, denek makinez idazten zuten, baina psikoestatistikoek idazkariak mahainetan jostagailuak edo holako gauzak behar zituztela frogatu zuten, eskuz zerbait erabiltzean edo marrazki ttiki batzu egitean JENDEAK hobeki entzuten baitu. Beraz, Zigmako langile guziek beren bulegoak apaintzeko eskubidea ardie-tsi zuten. Gehienek arkatx bat eta bloke bat hautatzen zuten, beren eskola denborako oroitza-penez segurki. Munduko haur guziek eskuz idazten ikasia baitzuten, bertzela zer, beste gerla batek makina guziak geldieraziko balitu ? Bere baitan irripar egin zuen Opusdayek «edo kasik guziak...»

Anaizen bozak nagusia ametsetarik ateratu «Jaun Koordinatzailea... Goizeko mintzaldiaren agerbidea duela minutu bat igorri d...»

- Ez du axolarik (Aaaa bai ; fitxak Anaiz E.A.S. zela, emotiboa beraz... emeki ibili behar). Ez beldur izan... Zure sort herrira itzuliko zara... bai...Byorneko bulego berrian lan egingen duzu. Hazparr delako alderdian dago. Bihar goizean abiatuko zara ta Jep Weber injinadoreak xeheki erranen dizu. 19,4ean lanean hasiko zara. Anartean turista talde bati laguntzeniezaioke, baina nahi duzun bezala, e ? Erreferentziak zure telegelan atxemanen dituzu». Itzali zen NAUSIA-REN irudia. Anaiz dena bozkario. Azkenean ! Lana herrian !


17etan maleta, beteta, hetsia zen. Hyperezkozko mezua telegelako inprimagailutik kendu zuen ; horrialde perdean hitz guti : «Weber Jep-injinadorea-01.2025.18.03.534 Hazparneko bulegoan ikus». Zigmatiarrek astirik ez galtzen.

Berri ona aitari ikusfonatu zionean gaixo gizonak nekez sinetsi. «Nere alaba New Byorneko bulegora 23 urtetan izendatua !» U.S.W. ta Panslabiako jakintsun eta teknologoen BIL-TZARRAK Esqwal Herryan egiten zirelako, bulego haiek ez ziren edonorentzat eginak. «Turistak» hara lan egiteko joaiten ziren. Gehienetan, kanpotarrak astebete bat egoiten, week end arte lanean. Eztabaida edo arazo bat sortzen ba zen, gauaz ere lanean, jateko ta relaxazioa egiteko pausak soziopsikologo batek antolatua. Week-enda Ingalaterra zenean bezain sakratua zitzaien, ta «laguntzaleek» nahi zutenentzat opor-ak apailatzen zituzten. Esqwaldunek bi egun haiek «turistena» eta «turistartea» deitzen zituzten. Herriko laborariak ostatueri janaria saltzen zuten. Ostatu batzu herritarrenak, beste guziak, Zigmarenak. «Pozten nau Zigmaren handitzeak» erran zuen Anaizen aitak «aberasten baitgaitu». Ba al dakizu Zigmakgero ta gehiago erosten digula, ta gobernuak gero ta gehiago sustatzen gaituela ? Tenore onean itzuliko zatzaizkigu».

- Jende gehiago etortzen da beraz ?  
Aitaren arpegia ilundu pixkat. «Ez, ahatik... ohi bezala... Agian... ez dakit nik...»

Goizeko 8ak ziren ta Anaiz Byorneko airekoan aitaren hitzez gogoratzen zen. Gobernu eta Zigmak janari ainitz erosten... Zergatik ? Halere U.S.W. etako bizilagunek ez zuten janari-arazorik. Iragana zen erzatzen denbora. «Stock» haiek zertarako ? Agian Byorn handitzeko.

Hazparnera burasoak ikusi gabe joan zen. Zigmaren buildingeko hall handian terminal bat. Anaizek klaberaz 383614a eginta gero «lot/buka» atzola seinalea : pertsona bat nun zen atxemaiteko programa ihardesteko prest.

			
PERTSONA :	JO	<input type="checkbox"/>	GERO <u>BIDAL</u>
LEKUA :	JO	<input type="checkbox"/>	GERO <u>BIDAL</u>

Neskak Weber-en erreferentziak eman.

Zerrenda ageri :

bi Weber, Jep ta John ; anaiak behar bada.

Bakotxa bere lan-boxako ikusfono-zenbakia-ekin. Anaizek Ziklopo utzi ta Weber-en gelara ikusfonaldi bat igorri. Alferrik. Etzuen mezurik utzi : bilatzea hobe. «Ez balin badut atxemaiten, ihardesgailu automatikoaz baliatzeko astia ukanen dut. Ziklopori berriz deitu, 2 jo, «bidal» atzola hunkitu eta biltokiak telemiatzen hasi zen ; ostatuan ? Nihor ez. Eritegian ? Weberik ez. Azkenean, arroltmatikoen geltokian idazkari ilegorridun pollit batek «Weber ez da oraino ikastalditik itzuli» erran zion. Harritua zen Anaiz. Ikastaldi bat luzatzen ari ? Zigmatiarrei sekulan etzitzaiela holako gauzarik gertatzen uste zuen.

«Gure Weber-ek Panslabitar pollit bat han aurkitu bide du...» zioen idazkariak. Hark elker hizketa berehala moztu, gehiegi hitz egin balu bezala. Emazte hori bekaitza zela bixtan, Gezur bat erran ziola ere bai. Ikastaldi guzietan jendeak holako gauzendako week-endak beti libroak zituztelakotz. Asmo bitxi bat Anaizi gogoratu zitzaion : «Norbaitek Weber delako hori garbitu badu, polizi elaberri ederrean sartuko nintzateke». Interziklopoak polizi elaberria berehala bukatu. Bai, Zakopaneko ikastaldia (kolketibitadeen planningei buruzkoa) 19,5a arte luzatu zuten ? Han zegoen Jep Weber. Misterioa pikotara Anaizek bere lanboxa nun zen jakiteko Ziklopori 3gn aldikotz dei egin zion. Pantailan ikusi zuen planean, puntu gorri batek 25gn boxa klixketan erakutsi zion. Hara joan zen ; handik Weberen lan boxera mezu bat igorrita arroltmatikoz bere burasoen etxera abiatu zen. Bidean Weberi buruz ikasi zuena gogoan bildu : «Ea...Idazkariak «gure» Weber deitu du ; «gure» hori ez bada «nere» gorde bat

Weber-ek errekesta bat ukan dezake ; gainera ni naiz etorri berria eta deneri irripar egin behar diet».



Ortzaizeko aspaldiko etxe hartan egongela zurrezko mubledunean, ikusfonoaren dei ezitia ozendu. Etxeberrytarrak sukalde-blokaren aintzinean lerroka ; bazkaria apailatzen ari ziren : aita haragia erregailu automatikora sartzen ari, ama baxerak garbigailutik ateratzen, eta Anaiz ongi jostatzen, krespagile zahar batez «txapatiak» edo Indiako taloak egitera entseatzen. Aita erregailua piztu eta ateratu eta «Anaizentzat, Weber» erranez berehala itzuli zen. Krespagilea bere alabaren eskutik zalu kendu. Anaizi bost axola, bere aita kozinera ona zela baitzakien.

Telegelako pantailan bizkar beltxatu bat, «barkatu, zaude pixkat» hitzez lagundurik besterik ez zuen somatu. Gero, artoskiago begiratzuz, Zaldunen piznako argi gorrixka ta plaztikazko palmondoak ezagutu zituen Weber irriño alai batekin itzultzean, hark gorputz eder bat bazuela ohartu zen. «Gure Weber atseginzalea iduri... geroak erranen».

- Egun on, Weber jauna.
- Jep nauzu.
- Jep, lanean hasteko zu behar zaitudala erran didate ta... Jepek so egin zion, irriz.
- Ez, Anaiz. Nik behar zaitut, egitan. Hemen-go zarelakotz eta ni aldiz etorri berria. Oso defasatua gainera, Panslabian ilabete bat egon eta... (Ikastaldia, ilabete batekoa ?)
- Nun ? (Galdera zozoa benetan, pentsatu zuen Anaizek. Jadanik dakidalakotz. Ez... funtsean ez... holako gizonekin zozoarena egitea hobe !)
- Zakopanen, Polonia delako herrialdean.
- Zertarako ?
- Ffff... (Weberek bere ile horailtan eskua pasatu). Talde-planning ikasteko. Zigmako prinzipioak ezagutzen dituzu : bakotxak bere lana, baina bakotxak beste lan bat noiztenka egin behar, eta abar... Esqwal Herrya... ez dut ezagutzen ; Panslabitar batzuekin handik itzuli naiz ; haiekin, Byorneko Trinketeen Setan izanen naiz. Zato gurekin.

(Gizon hori ez zen batere galdua. Gaztea, ongi egina, alaia...)

- Sak arte, beraz ; milesker...)
- Agur.

Setan, Weber eta Panslabitarrak trinketeen aise haxeman zituen. Pilota partida, gaitza. Robota pilotariak eta dantzariak, ongi antolatua. Weber so et eta so. Pilota kanpora zihoanean, soinu berezi batekin indar-alde batek barneratzen zuen bitartean, Weber Anaizi so.

- Baserrian jendeak oraino dantzatzeko duela egia ote da, Anaiz ?
- Bai.
- «Eta pilotan ?»
- «Bai ta».

Bainan turistentzat androidak hobe. Hutsik ez egiten, beti goizaski etortzen, sekulan ez

mozkortzen ez eta haserretzen...

- Ez eta pagatzen» bukatu zuen Weberek, irriz. Gero Anaiz, Weber ta Panslabitarrak ohizko arrutkerietan murgildu.

- Anaiz, nola irau du herri hain ttiki bateko mintzairak ?
- Esqwal Herrya 3gn munduko gerla ondoren luzaz aparte egon zen. Gerlak husturikako Frantzian, kasik itzali egin zen frantsesa, Lyon-eko bazterretan salbu. Helbezia, Qebek eta, XXgn mendean mass media eta eskola guzietan sartu zen esqwarra aldiz, gero ta gehiago, azkartzen. Mendebaleko Europa guzia bezala, pobrea egon da Esqwal Herrya. Gaurko egunean ere, Baserria teknika-ren arloan ahula da. Byorn Esqwal Herryko hiri bakarra da, eta Zigmari esker automatizatu da.

19gn week endean, Arbonako iguztegi edo solariumean. Plaztikazko palmondo urdinak. Egiazko iguzkiaren pean biluzia izaiteko atsegiña.

- «Anaiz ?»
  - «Jep ?»
  - Ba al dakizu zergatik Zigmak huna igorri zaituen ?
  - Ez ?
  - Arkigrafa baita ere esqwalduna zarelakotz. Hitzaldi teknikoak esqwaraz egiten ahal dituzulakotz.
  - Ez dut nere ohizko lana eginen :
  - Ez, publizitadea baizik... OI ! Barkatu ! Week endetan lanaz ari ! ta hemen egoiten bagara iguzkiak erretuko gaitu. Gainera 3 aste igeri egin gabe egon naiz ni ! Burua hauntua zait ! 1, 2, 3, go !»
- Eta Weberek, Anaiz ondarrean utziz igerigiraino laisterka dantzatu, pulunpatu, irriz itzulikatu...



## HORMA ETA GOPOILA

«Ikusten duzuen bezala, nahiz eta itsas-bazterreko robotek lan ainitz egin, bazter zikintzea egunetik egunera handitzen ari zaiku. Huna Zikintzearen aurkako Horma, hango Miradorarekin...»

Holofilman Horma ageri, Anaizen bozak komentatiboak zituela emaiten. Luhusoko telebilkotarian, Herritarrak Anaizek grabatu zuen holofilman so zitzaitziona. Anaiz Luhusotarren erdian jarria zen, haien oharren zai. Miradoraz oroitzen zen. Barneko Horma solariumetarik askotan ikusi arren, nihoiz etzen Hormaren gainera (Miradorera) igan, Weberek hara eraman arte. Han ikasi zuen bere lan berria zer zen. Oroitzen zen...

Arroltmatiko gorria espalo mugikorraren ondoan bere hasperen bereziarekin gelditu zen. Jep ta Anaiz espaloitik ibiltokira joan ziren. Anaizek barneko hormaren hegiz hegi ibiltzean, eskultura margo guzitakoak miretsi zituen; mare, kurubila, uhain disdiratsuak, begiraleak xoratu arte, dantza eta dantza ...

- Kasu, Anaiz ! Huna atea».

Weber eta Anaizek baimen ofiziala (hype-rezkozko lerro bat) atezain automatikoan ezar-

ri eta, atea ixilki lerratu. Anaiz akitua zen, baina bere maskako oxigenak laister esnatu zuen. Weber xehetasunak emaiten hasi : «Bazter zikintzearen aurkako hormak ezin urratuak omen dira...»

- OMEN ??

Hemen ez da oraino holakorik gertatu. Halere hemengo robotek Horma eta itsasoa gauaz eta egunez begiratzen dituzte».

Beriganak Miradoreko gela handira eraman zituen. Gela makinez bete. Paretak plexiglas-sezkoak. Robota bakotxa bere lan-mahainaren aintzinean. Zutik, naski ; robotek ez baitute jarri behar. Metalezkoak, mutuak.

- Ez dago androidak ?

- Huntarako ez du balio, Anaiz. Robotak merkeagoak eta azkarragoak direlako. Baina pollitagoak izateko herriko kolorekoak. Gorriek itsasoa begiratzen, ala hobeki erran analitzen, perdeek, Horma».

Roboten begi gorriak beti itzultzen edo mugitzen ari ziren. Begiak baitzituzten, baina aurpegi ez, ta aurpegi eza hark begiraleak xoratzen zituen. Neska pareta zehargietarik itsasoko uhain oilotsu lanbrotsuak ikusi. Okagarriak. Baina jakin nahi zuen.

- Jep, goazen kanpora !

- Ezin da. Maskekin ere gizakumeei debekatu zaie. Horma oraino sana da, Herriko ur-lurren garbitasuna atxikitzeke, ez da luzaz naikoa izanen. Horregatik Zigma gure gizarteak beste medio bat bilatu du. Jadanik, ekai berri bat aurkitu dugu. Gogor-gogorra, zehargia, hotsgabea, ezin hautsia.

- Zer du izena ?

- Hyperglass.

- Eta ekai hori beste horma bat egiteko erabiliko dute ?

Weberen hasperen bat eman zuen («Zozokeria bat erran dut» pentsatu zuen Anaizek).

- «Horregatik hunat detu zaituzte. Hormak ez direlako naikoak. Byornen entsegu bat eginen dute : hiria estaliko.

- Estaliko ?

- Bai, hyperglassezko gopoila batez. Hiria bazter zikintzearen aurkako aterbe bilakatuko da.

- Baserria, gopoiatik kanpo egonen beraz ? Ez da zuzena !

- Beste gopoila bat berantago egingen dute. Gopoila indar-aldeen bidez atxatuko eta zurkaiztuko dute.

- Zertarako behar nauzue ?

- Indar-aldeen egiteko makinak Baserrian ezarri behar direlako. Zuk lur haien jabeeri dena azalduko diezu, grabaeraziko dizugun holofilma erakutsiz ; holofilma esqwaraz izanen da, naski. Eta gainera jendeak hezur mamizko herritar bati hitz egiten ahalko dio. Zuk tratuak egingen dituzu, makinak izanen diren lurra ahala den neurrian Zigmari saleraziz.

Solas hortaz oroitu zen Anaiz. Gerortik herriz herri hitzaldiak eginez ta holofilma erakutsiz ibili zen.

Norbaitek, ez tul (ez tul ala komentario bat ?) eginez bere oroitzapenetarik elki zuen. Anaiz berriz ere Luhusoko telégela handian zela ohartu. Holofilma, telikastoletan ere ikasten zituzten zenbakiak errepikatzen ari :

«Baserrian % 30 bazter zikintze arrisku  
Itsas aldean, Hormatik 5 kmrains % 90  
U.S.W. etako hiri gehiernetan % 50  
Haizeek itsas aldeari kalte ainitz egiten...»

Zenbat aldiz paserazi zuen filma hori ? Laborari askorekin solasean aritu zen. Lehen, jendea ez fidatzen. Hormako arraildurak eta itsas bazterreko langileen eritasunak (bularretako leproa bereziki) holofilman ikusi eta, gehienak beldurtzen ziren eta gopoila onhartzen zuten. Zigma rekin tratuak egiten... Bai... Zenbat aldiz jendea ez fidatzen, ta gero beldurtzen ikusi zuen. Hitzaldia, galderak, holofilma, jendeen beldurra, tratuak, hitzaldia, galderak, holofilma, jendeen beldurra, tratuak... Anaizi bizia disko arrailatu bat bilakatu zitzaion. Behin batean disko hori itzuli behar : beste alderdian, hiri bat, eta gero herri bat gopoiako aterbean salbu. Gopoiaren pean preso.

Baina egun hartan, holofilma aspertzen zuelako behar bada, Anaizen gogoan dudu sortu zen. «Itsas aldean % 90 arrisku... Baserrian % 30, kasik ez, alegia... Baina Weberek erran didanez, Horma oraino sana da. Ta Byornen, ez da hainbeste bularretako leprorik gertatzen... Itsas aldea ta Itsas Bazterra leku bera direa ? Haize Hegoa Baserria ere heltzen !

Arratsean, bere dudak Weberi aitortu zizkion ; Weberek gopoila entsegu bat zela, baitzepadakoa zela, publizitateak egia batzuetan tindatzen zuela...

- «Ulertzen dizut, Jep, baina...»

- Akitua zara zu ! Goazen dantzara edo piznara !

Azkenean Anaizek zenbakiak bere lanboxetik galdatu zituen : terminala piztu, «lot/buka» atzola mezua hasiera seinatu, «bazter zikintzea» hitzak klaberaz jo, ta «bidal» atzola hunkitu, pantailan bazter zikintzeari buruzko aurkibidea irakurri :

#### BAZTER ZIKINTZEA ■

- 1 HERRI ZIKINDUEN ZERRENDA:  
KONDAIRA
- 2 ESTATISTIKOAK ; MAPAK
- 3 .....

3gn tituluarri so egin gabe pantaila bete zedin igurikatu zuen ta 2gna hautatu. Ez alferrik : memoriak estatistikoetan eman zizkion zenbakiak holofilma baina ttikiagoak baitziren. Mapek ere itsas bazterrean zikintze guttiago zela frogatzen zuten. Norbait trunpatu ote zen ? Ala... zertarako aldatu zituzten zenbakiak ? Anaizek pentsatu gabe «zuzen» atzola hunkitu. Alferrik : pantailan zera ageri.

#### BESTE XEHETASUNAK UKAITEKO AURKIBIDERA ITZUL

Bat batean txirrinta jo. « A bai, egia da... bulegoen hesteko tenorea eta lekuak 10 minutuz hustu behar. Hobe dut terminala hil eta Weberi etxetik ikusfonatzea».

Halaxe egin zuen. Weberek trufaz ihardetsi : «Zer bada ? Holofilma zenbakiak hantutak

direla ? Bost axola ! Akitua zara zu benetan. Publizitatea zer den ahanzi duzua ? Zenbaki tiki-ekin, jendea nola bil ? » Jepek, ixildu eta, aurpegiari begiratu zion, boza eta begiak eztizen zitzaizkiola :

-«Anaiz, arratseko gomitatzen zaitut, e ? Brindoseko pizinean, 17,5k aldean ? Baditakea ? Eta, otoi, lan-kezkak utzi ! Zu bezalako neska pollit bat, lanaren ondoan inkesta bat egiten ari ! Ez da seriosa ! Lanari buruz zerbait erraiten badidazu, esku hauekin (bere esku horailak irri bero batekin astindu zituen) urkatuko zaitut ! Laister arte, beraz ?»

- Ados». Itzali egin zen Weberen irudia.



Brindoseko pizinean ura ubela, sasi-iguzki termostadunaren argia, gorrixka. Musikarik berrienak aire beroan zirurikan ari. Ondarririk ez : Lurrean, axal perde-urdirak, zedazko oihalak baino goxoagoak.. Noiztenka, musika zati bat-zuen batera, diz diz ezti batzu horma gorrixketan gaindi pasatzen. Anaiz eta Weber, hatsa ezin hartuz, lurrera erori. Goiko psikodancingean beste bi lankideekin «egite-joko» edo kreatibitate ariketa launako batean sartu ziren, eta haien taldeak, doinu-makinaren musikan urratsik erhogarrienak asmatu eta dantzatu. Talde goxo bat egitan.

- Kaixo Anaiz ! Aspaldi ! Bizi zara ? » Anaizek bi gazte-lagun ezagutu zituen.

- Baldi... Kepa... Jep. Zigmatiarrak nauzue orai eta hemendik aintzina lana herrian eginen dut.

Hiru gizonak hizketan hasi. Kepa eta Baldik, Anaizek aipatu etzuen berehala aitortu : laborien semeak eta laborariak zirela. Baldi bederen, egun osoko laboraria zen.

Weberentzat beste mundu bat. Hark Esqwal Herryari buruz dena jakin nahi.

- «Nolako har-emanak dituzue Españarekin?» Kepa, Baldi eta Anaizek elgarri behatu ; azkenean Baldik :

- «Ez dugu har-emanik».

- Zergatik ? España Iranena delakotz ?

- Ez ; España eta Esqwal Herryaren artean Basamortua badelakotz : leku debekatu bat. Hura lehen Esqwal Herryko zati bat zen...

- A bai, zerbait holakorik entzun dut. Halere, han ezin da erradiodurarik oraino izan, ezta ? Aspalditik debekatua baita ? Ez duzue hango berririk ?

- Ipuiak... hango itsasoan arrainak oso aldatuak direla... edo gizakumeek arrainak edo sasi-arrainak bilakatu direla... Lurrean muntstro batzu badirela... (Kepak hasperen bat eman zuen). Dena den, Iranek beste arazorik ukanen du, Indiako gobernua (irantiarra zena) erori omen baita.

- Eta gopoila hori, zer ?» galdegin zuen Baldik.

Weber jautzikaretu : «Zer ? Ez duzue holo-filma ikusi ? Gure Anaizen lan-nausia ? Ez dizuet barkatuko !»

- Bai ikusi dugula. Baina Zigmatiar batekin

izanez gero, gure interview ttikia gogotik eginen gin...

- Ooo ! erran zuen Weberek auhenka. Mundu guziak hil nadin nahi du. Ezin pausa ! Eta dena den, gauzarik gehiena jadanik ikasi dituzue, beste xehetasunak oso teknikoak dira, ta...fff ! Burua holakoa daukat ! Eta eztarria idorra. Nork nahi du zerbait edan ?



24gn asteko 3ean, Anaiz jeiki eta aita etorri zitzaion : «Anaiz ! mezu bat inprimagailuan duzu Irakur ! Bulegora joan behar duzula ! GAURKO HITZALDIA EZIN EGIN ZATO BULEGORA GOPOILAREN PLANA ZEHATZ BAT MARRAZKITU BEHAR KALASTRAKO BAT GOPOILA DELAKO MEMODISKOA OSA TZEKO DA ZIGMAK IGORRI

Anaiz, lan-boxean sartzean, hyper ezkozko horrialde bat inprimagailutik ateratzen ari : hark gaineratiko argitasunak (herrietako mapen erreferentziak) ekartzen zizkion. Anaiz, Weberekin beste egin ondoan, berant lokartu eta erdi lo zegoen. Mezuaren hitzak gogoan biribilkatzen ari zitzaizkion ; «gopoila» memodiskoa osatu behar ; gopoila delako memodiskoa...» Horregatik terminala lotu ondoren, haren erhiak «gopoila» hitza o-hargabetarik jo zuten.

«Zer zozoa ! Erreferentzia eman zidaten... Berdin... Ea nolakoa den ! Eta mezua «bidal» atzolz ordinaroreari igorri zion. Hark aurkibide bat itzuli :

GOPOILA ■
aurkibidea ■
1 - zer den
2 - etxegintza
3 - estiloak edo erak
4 - New Byorneko xedea

1, 2, ta 3 ez zutelakotz Byornekin zer ilusirik, 4a jo zuen, bere baitan, nihoiz ez zuen entzun izen aldatua errepikatuz : «NEW Byorn... Byorn berritua ote ?»

Pantaila horia bilakatu : Z0 ren seinalea ; 4gn saila ardiesteko, Zigmaren Ordinarore pribatuari dei egin behar. Gure Zigmatiarrak Z0 ren kodigoa berehala eman : 10000010, eta sekulako harridura batekin bere notak (gopoilaren zurkaizteko makinak beren lurretan onhartu zituzten laborien zerrenda, eta abar) pantailan irakurri zituen... bere holo-filmaren erreferentzia ere bai !

«Anaiz ! Zer ari zara...» Weber oihuka sartu zen, klaberara laisterka hurbildu, «buka» atzola brast jo, erranez : «Ez da posible ! Zer duzu go-goan ba, xoriburu hori ; denak gopoilarako lan-tan ezin heldu, eta zu denbora galtzen ari ! Pito-

kerien egiteko astia badugula segur ote zara ?»

Nahiz eta bere baitan hasarretu, Anaizek ahal zuen bezeinbat lasaiki ihardoki : «Noiz galdu dut denbora ? Nere lana, bai New Yorken, bai hemen beti goizaski bukatu dut. Ez dut ulertzen zergatik kexatu zaren !»

Weberrek bere ezpainak ausikitu. «Barka zaidazu... Akitua naiz pixkat eta... (irri faltsu bat eman zion). Ez dizut erran atzokoaz urrikitzen naizenik». Hasperen ttiki batekin, neskari behatu gabe eskua haren sorbaldean poliki ezarri zuen. «Lan ainitz, eta gopoilako zera laister osatu behar. Hala izan ere, ez diozu memoriari deitu behar, xehetasun guziak aspaldi ezagutzen dituzulakotz. Ez duzu gauza berririk ikasiko. Ez du balio. Lanari lot, orai ! Joan behar dut. Gero arte ». Gizonak burua makurtu zuen. «Barkatzen didazu, maite, ezta ?»

-«Baietz, Jep»

Weber gelatik irriparez ateratu zen. Baina haren jestuz eta urratsez beti zainetan zegoela ageri. Anaizi zainak airean zitzaizkion : «Atzo haren besoetan nintzen, eta gaur zernahikeriak erranez erasiatu nau... Gogorregia naiz ; nik akitu dut ; atzo berantegi etxeratu zen... Haleta... holakoak erran eta, ateratu aintzin musu bat eman liezadakeen, ahatik... Oi, eta aski ! Lan egitea hobe !»

Eta Anaizek gertatu zena ahantziko zuen, Jep ez balitzaio oren baten buruan ixilka itzuli. Neskak norbait gibelean bazuela somatu eta burua itzuli : Weber atetik terminalako pantaila irakurtzen ari zen. Anaizek ikusi zuela ulertu eta irriño samur batekin eskuz agurtu zuen, eta sartu gabe joan zen. Presatua balitz, zertarako etorri ? Anaizen baitan sortu zen mesfidantza.

«Guardiatu banindu ez luke besterik eginen. Funtsean, zergatik nere ondolik dabila ? Desiragarria naizelakotz ? Iñoiz ez dit erran maite ninduenik, eta orai bekaitza balitz bezala ari da. Ez. Ez bekaitza. Beste zerbait. Anaizek mahainean utzia zuen telestiloa eskuan berriz hartu, pantailara hurbildu; pantailan marra urdin argitsu bat ageri. Marrazkitzean ere pentsatzen ahal...

«Lan ainitz baduela... Halere xehetasunak galdatu nizkion guzietan, haurrarena egiten zuen ; behin dantzatu nahi zuela, beste behin ez ginela lanean, eta abar... Eta orai, zertan ari naizen jakitera ohoin bat bezala etorri zait ! Ez du nahi izan NIK terminalari dei egin niezaion. Zergatik ba ? Ez dut nihoiz lanik berant igorri. Zer, bada ? Harentzat zozo bat naiz, fitxik jakin gabe lan egiteko ona, eta doi-doi !»

Fitxik jakin... Anaizi jauzi egin zitzaion bihotza. Beraz... eta... «Weberrek, aldiz, zerbait baleki ? Nik ez dudana jakin behar ? Eta... badakiena nolabait memoriari lotua balitzaio ? Nik «gopoila» saila irakurtzean hasarretu baita...

Gopoilarekiko zerbait... Oi ! Zer egin dut ?» (Telestiloa, eskutik lerratu zitzaion, pantailan marra makur bat utziz. «Ken» atzolaz marrazkia zuzentzen hasi zen). «Gopoilari buruzko zenbakiak sail batean faltsuak, bestean egiazkoak dira, eta Weberrek hori onhartzen du, axolarik ez duela errepikatuz... bai eta ere ni guardiatuz ! Hark dion baino inportanteagoa izanen da».

Ikusfonak «dilin» : Weber zuen ; «Arratsean elgarrekin afalduko bagenu nere barkamendua ardietsiko ote nuke ?»

Jep berriz ere haurrarena egiten ari...

-«Baietz, Jep ; laister arte !»

Anaizek gopoila zertarako zen bere buruari galdegitean ikusfona utzi.



28gn astean «New Byorn» gopoila zehargi batez estalia zen. Natanael Opusday, Zigma taldearen zuzendaria, bere bulego berrian jarririk, hiriaren lehen argazkiari so egon zitzaion. Luzaz. Pozik zen. Lan on bat. «Dilin» mehe bat entzun eta argazkia itzali zuen, bulegoa berehala ageri. Hobe zuen argazkiaren gordetzea. Interfonoan «Bai, sar bedi» erran eta, bisitalaria igurikatu. Atea ixilki lerratu...

Ordu bete bat solasean iragan. Opusday hasperen batekin besteari ihardestean denbora galtzen ari zela pentsatzen.

- «Adizu, Lasa jauna... gure solasaldia ez da burruka bat izan behar... Zertarako ?»

- «...» Lasa'tar Gorkaren begiak, aintzinean zuen hogoitamar urteko gizon lodian, finkatuak ziren.

- «Ulertu zaituztet. Sindikatuak langileen arazoak adierazteko igorri zaitu ; normala da hori. Baina zenbat langile lanik gabe utziko dugu ? Arras guti...

- Bai horixe ! Nihor ez ! Herriko langile guziak salbu, naski !

- Adizu, otoi. Zigmak hartu zituen langile horiek, gopoilaren altxatzeko hartu zituen. Beste hitzik eman gabe ! Denek bazakiten gopoilaren altxatzea ez zela betierekoa izanen, behin batean bukutako zela ! Gainera, lan horren ondoan lana gehienei eskaini diegu, Marz planetan zerbait muntatzekotan baitgaude. Batzu han dira lanean jadanik.

- Eta Byornen aspaldi bizitzen zirenak ? Zenbat joanak, bizitzaren kariotzea ezin onhartuz ? Hoiere ere lana eskaini ote diezue ?

- Ez dituzu langileak... zera... ez dituzu Zigmatiarrak. Bizitzaren kariotzea ez da gure arazoa, merkatu-arazo bat baizik. Ez dugu falta. Ez dugulakotz holakoetan zerikusirik. Halere, ahal duguna eginen dugu...

Gorkak etzion jarraitzera utzi : «Eta zerga berria ? Byorneko bizilagun guziek-ZIGMATIARREK SALBU- ordaindu behar dutena ? Hortan ere ez duzue zerikusirik, ezta ?»

Opusday-tar Natanaelek berriz ere hasperen bat eman. «Ez nauzue ulertuko... Ez baita sinesgarria... baina egia da, erabaki hori gobernuak hartu duela... Zigmak fitxik eskatu gabe. Guk ere gure arazoak baditugu. Ez ahantz Zigma ez dela beste gizarteak bezalakoa, entsegu-talde bat baizik. Entseguak bururaino eta ahal bezain laister jarri behar ditugu. Horregatik ukan dugu gobernuaren laguntza... ala... begirantza. Agian bigarren gopoilak herria estaliko duenean nolako buruhausteak jasan ditugun ikasiko duzue».

Gorkak bere eginkizuna bete zuela pentsatu zuen. Funtsean, berantegi zela ederki bazakien. «Zure azken hitza, Opusday jauna ?»

- Hemengo lan-gabezia handitu dela ikusita, ahal den neurrian, Hego Amerikan ere lana eskainiko dugu... Baina zer erranen dute hango langileak ?



Anaiz bere ohizko lanetara itzuli : New Byorneko Kirolen Zentro Berriko planak. Pozik zen, ez baitzuten New York-era igorri. Kexu ere bai : Week-end-eko ez zuen Weberik nahi. Horregatik ikusfonatu egin zion, edozion aitzakia erabiliz ; burasoek ikusi nahi zutela. Weber galderarik gabe hartan egon. Urrundu nahiz ? Bazitekeen...

Beraz, turizartean edo igandean, menditxo perde baten bizkar gainean etzanak ziren Kepa, Anaiz eta Baldi. Etzanak bai, lotan ez. Beherago Gorkaren etxalde xuri-gorria ikusten ahal zuten. Hiruak lagunak. Hiruak gazteak. Hiruak esqwaldunak. Hiruak ixilik...ta ez ados. Anaizek Zigmarentzat lan egin zuelakotz. Anaizek jendei bazter zikintzeari buruzko holofilma erakutsi eta tratuak egin zituelakotz, haren gazte-lagunek berinezko edo hyperglassezko horma baten gibeletik bezala hitz egiten zioten, azkenean ixilik egoiteko. Neska Baserrira pausatzeke, libertitzeko eta bere kezka eta dudak ahanzteko etorri zela pentsatzean etsitua zen. Indar aldea egiteko makinak herritarren lurretan ezarriak ziren orai. Baina lana bukatua izanikan ere, Anaizentzat bakerik ez. Denek galdez itotzen baitzuten : mila eta mila aldiz entzun zituenak : gopoilako hyperglassa aski gogorra izanen zenetz... zarta zitekeenetz... Lehenago, Anaiz, entseguak balio zuela segur zen. Bai eta ere herriko ekonomiarendako ona zela gopoilaren altxatzea, zeren eta Gerlaren ondoko sortze-handitzearengatik eta Zigma herrian zabaldu makinengatik, jende batzu kanpora joan behar ziren, eta gopoilari esker aldiz, gazte batzuek lana herrian atxeman zuten. Baina orai Anaizek ez zakien gehiago zer pentsa.

Baldi bere hortzen artean kantu xahar xahar bat abestutzen ari zela,

«Eguzkiak musua damaio  
gure etxe pollitari»

Gorkaren bozak beren amentsetarik elki zituen :

- «Bietarik bat, Anaiz ! Aditzen ? Azken hila-bete hauetan herritar bietarik bat Byornetik joan da. Batzu Zigmak, legearen arauera (omen !) botatuak, besteak Marzera joanak, bizitza-kariotzearengatik New Byornen ezin egon. Byorn garbi-garbia izanen dela nun nahi aitor dezakezu. Laister herritarrik gabe egonen baita. Hiria gopoilan pean, herritarrak eta bazter zikintzea, hots, zikinkerri guziak, kanpoan. Bai, badakit : herritar Zigmatiarrak salbu, ez beldur izan. Gora Zigma ! Azkar bizi bedi ! Zure trust maiteak kanpora botatu nahi eta, egin dituela, bixtan da !»

Anaiz hasarretu. «Zer nerea ? Nere Zigma ote ? Harentzat lan egiten dudalakotz ? Beste esqwaldun batzuek ere bai !»

- Bai, horixe, «the happy few» ! New Byorn Zigmatiarrentzat ! Zigma City ! Hortarako zure dokumentu faltsu eta ele zuriekin enganatu gintuzun ! Zoazi zure lankide maiteengana !»

Baldik ahoa azkenean ideki. Hura tiki-tiki-tiki Anaizen adixkide mina. «Gogorki mintzo zara, baina funtsean arrazoi duzu». Ateraldi hark Anaizi ihes egiteko gogoia eman zion. Neska bat batean xutitu.

-«Bai, egia duzuela. Agur!» nekez erran eta, hitzak irentsiz eta erdi nigarka etxera laister egin zuen. Han, sukaldetik herri himnoko azken notak (Aidaren trunpetak) entzun zituen. Egon gelako ate zaharra bultzatu zuen eta, holotelebistaren medioz, U.S.W.etako lendakariaren bulego hormablindatadunera sartu zen. Sam Nottobe lendakariak begietan tristezia, ezpainetan irriño zuhur bat.

Anaiz, adi, adi. «... ere Indiako gertakari dorpeen ondoren atsegin zait berri alai baten zabaltea : bihar nere bakesolaserako lanak New Byornen eginen ditut, hango entseguzko aterbea bisitatuko baitut. Gora zuek Zigmakideok, mundu guziko etsai bakarraren kontra - bazter zikintzearen kontra, naski - ari zaretenok. Herritar maiteak, huntan uzten zaituztet. Deneri agur».

Anaizen aitak hormabista hiltzean bere alabari so egin zuen. Lendakariaren bulego gehiagorik ez, egon gela xaharra berriz ageri. Anaizen arpegia ere bai. «Hots, herrien arteko buruhauste ainitz izanen da... Ene ! Zer duzu ba ? Zergatik nigarez ? Irandar talde bat Indian sartu edo galdu delakotz ? Zer dizu egiten, Ayatollah hark sudurra nun nahi sartzen badu ? Gure lendakari Nottobe ez da zu bezain kexu, New York utzi ta New Byorneko gopoil estrenatzera heldu baita... Zer duzu ba ? Xuri xuria zara orai !»

- Ffff itxik ez... aita... Gorkak erasiatu nau...»

- Gorkak denak erasiatzen ditu. Bere emazte gaia bularretako leproaz galdu eta batzuetan minorra bilakatzen da. Sindikatuarengatik ere... ez egin hari kasurik.

- Arratsean Byornera itzuliko naiz.

- Jadanik ? Hain akitua izanikan ere ?

- Bai lana lehenbailehen apailatu behar. Gero pausatzeraz etorriko naiz. Ez naiz eri, aita. Ez beldur.

- Weberen kontsolamenduak behar, e ? Ez, fitxik ez erran».

Anaizek fitxik ez zuen erran. Zorionez.



«Ama, zerua ikusi nahi nuke !» John tikiak New Byornera ekarri zuen airekotik hedoiak miretsi zituen eta orai, Byorneko karriketarik, zerrurik ez ageri, gopoilarik ezta ! Haren ama presatua zen. Espaloi mugikor urdinak errekaño bat iduri, pollita zen, baina zer hurria ! Smith andereari berantetsia zitzaion bere bizileku berriaren ikustea.

- «Ama, nun da gopoil ?

- Han, buildingen gainean, neretxo».

- Behazu, Ama ! Hor... Zer ? Armiamak !

New Byornen pesta zen. Hiriak bere izen berria osoki merezi. Etzen etxe zaharrik gelditu, karrika guziak estaliak ziren orai, ta haietako gain artifiziala irudi holografikoez bete zen : ama eta semea ibiltzen ziren karrikan, irudiak urrezko armiamak ziren. Haien amarraunek, (memozintek hobeki erran) mugituz doinu ezti batzu sorrazten zituzten. Bat batean, Smith andereak, berin urdinezko building bat hauteman eta, espaloi mugikorra utzi zuen. Mutikoak buildingeko izena nekez irakurri zuen.

- «Ger...ni...ka... Ama, zer erran nahi du ?
- Etzekiat. Lore baten izena izanen duk.

Ate perdea ixilki lerratu. Sartu ziren. Pasagitik. Beriganetik. Smith andereak «Hemen dago» erraiten ari zen bitartean, berin gorritzko ate biribila lerratu, argia sartokian piztu, roboten aboz ezti batzu «happy birthday to you» abesten hasi, bizilekua Smith anderearen sorteguna emaitza baitzen. Gobernuaren dekretoak «ez-Zigmatiarrak» kanpora botatu zituenean, hiri guzia «entsegu-lekua» aitortuz, jakintsun eta teknologo ainitzek bizilekuak merke erosi zituzten. Gero, Zigmak Zigmatiar etziren industri-gizon batzueri ere bizileku batzu saldu zizkien. Hala nola Smith jaunari.

Barnean, Smith anderea dena ikertzen ari. «Ttikia bainan ederki antolatua» senarrak erran. Sartokian, bi ate, sukalde automatikoarena, eta egon-gelarena. Beste trenkadarik ez.

Egon gelan hiru altuglassezko «box» : logelak bere bainugelarekin. Eskuineko xokoan, jan-lekua, bere mahain automatikoarekin, sukaldeko makineri zuzenki lotua. Erredizarik ez, mahaina salbu. Tronadura, hormak eta lurra bikosez estaliak. Lurrean konkor batzu : jartzean alkiak bilakatzen. Karrikari begira zegoen horma, berinezkoa eta zehargia, bainan haur batek ere, atzol bat hunkitu-ta, hormaren lekuan hormabixta, edo holirudiak pizten ahal...edo argi guziak hiltzen. Bainan John ttikia lokartzen ari zelakotz, ez zuen burukeriak egiteko gogorik. Haren ama pozik zen : «Bizileku pollita... eta merke, gainera...» John oheratu eta, pestara joanen zen...j

Karrikak argi, lore, izar holografikoez beteak. Zigmaren saloin handian, tronadura kolore guzitako pinpilipausez betea. Emazteen ile eta besoe-tan, harrizko lore piladunak hatsaren arabera idekitzen eta hersten, usain ona hedatuz. Pinpirin robota ttikiak hara eta huna. Sam Nottobe lendakaria dena irri. Panslabiako lendakaria ere berehala omen etorriko zela, bainan ez zuela mezu ofizialik errezebitu, Omar Miaulisek lan ainitz zuela, kasetaliariet bizpahiru aldiz pazientzia galdu gabe erran zien. Batzuek Gobernu eta Zigmaren zilarrezko etzeiak zirela...

Baserrian, Byomdar ohi batzu telazko etxolak apailatzen ari ziren. Jende guti Marzera joan zelakotz, etxe gutiegi bazen.

Gopoila berria perla bezain bat emeki gauean disdiratzen. New Byorneko lehen pesta...



Anaizi zainak airean zitzaizkion. Weberen guardiatzea, Gorkaren erasiak, bere gogoak bere baitan itzulikatzen. Lan-oren baten buruan, galdegiteko terminala dardarrez piztu zuen...ez ! Terminala ez zen piztu ! Zer ? Indarra kendu ote zioten ? Weberek «salatu» suelakotz ? Zorionez, Anaizek eskua klaberan utzi zuen eta horregatik bere zozokeria ulertu : «Bazter zikintzea» titulu «lot/buka» atzola hunkitu aintzin jo zuela.. «Zer inkestari gaitza naizen ! Amenslaria ere bai behar bada. Eta trunpatu banintz ?» Berdin. Koropiloa ebaki behar zuela pentsatuz terminala lotu eta titulua kasu eginez jo. Gero, sail guzien tituluak bururaino eta polliki irakurtu :

maiatz. 38

B A Z T E R   Z I K I N T Z E A   ■

AURKIBIDEA

- 1- Herri zikinduen zerrenda ta kondaira
- 2- Estatistikoak - Mapak
- 3- Zergatik gertatu den
- 4- Ondoriok
- 5- Zikintzearen bideak
  - 5.1 airea
  - 5.2 lurra
  - 5.3 ura
- 6- Bazter zikintzearen aurkako hormak
- 7- Bazter zikintzearen aurkako ekaiak

(SAILA HAUTATU ETA BIDAL JO) ■

Anaizek 1 ta 2 jadanik ezagutzen, 3, 4 ta 5 beharrik ez. 6gn saila galdatu. Ardietsi zituen dokumentoak, aspaldi ikusiak, Telikastolenak edo Telunibertsitadearenak baitziren. Neskak xehetasun teknikoak «gida» atzolaz galdatu : berriz ere dokumentu xaharren tituluak ageri. Haren erhie «segi» atzola ez uzten. Ikasi zuen laister irakurtzeko metodoaz baliaturik ere, pantaila gero ta pollikiago betetzen zela iduri zitzaion...Dudarik ez. Nihun ez zen ez hyperglassik ez eta gopolarik aipatzen...

BESTE ZERBAIT GALDATZEKO JO ZAZU AURKIBIDERA

Hitzak mezuaren azken lerroan klixketan egon ziren.

Hutsune bat. Anaiz bereganatu zen, hitz haiei begira fitxik pentsatu gabe egon zela ulertuz. Haren erhie «AURKIBIDE» atzola jadanik hunkitu : dudarik ez, aurkibideak etzuela gopolarik aipatzen ageri zen. Hyperglass are gutiago. Zein sailetan atxemaiten ahal ziren ba, hyperglassari buruzko xedeak ? Zigmako injinadoreek beren idazkiak memoria batean sartu behar !

Ea. «Bazter zikintzea» sailean, gopolarik ez.

«Gopoila » sailean, hyperglassik ez.

Hyperglassak aurkibide aparte bat bere deza-ke. Beraz, New Byorneko xedea uste nuen baino inportanteagoa da !



Sam Nottobe, United States of the World (Munduko Estado Batuetako) etako lendakaria, Lurreko maparen aintzinean amensetan zegoen. Han ageri ziren IIIgn munduko gerlaren ondorioak : erresuma urdinak, ubelak, beltzak, horiak ala xuriak. Ubelak : aintzineko U.R.S.S., Erdi ta Sortaldeko Europa, hots Panslabia. Indonesia beltza. India, urdina. Africa (Maghreb salbu), Madagazkar, Japuna eta Txina, horiak : Txinarenak. Bi Amerikak, Mendebaleko Europa, Wizlaraino, gorrixkak : U.S.W.renak. Nottobek



irripar garratz bat egin. United States... Estado Batuak... hori bai... «of the World» aments zahar bat baizik ez zen. Halere nihork ez zien «Munduko» titulua kendu.

Lendakariaren soa erresuma xurietan gelditu : Iran, Herrialde Arabak, Erdiko Sortaldea. eta Ezpaña «Arrano Xuriaren» erresumak bilakatu ziren. Iran, bere ekaieri esker, gero ta inperialistagoa. Ekonomiaren arloan ere bai. Nun nahi erosten ahal ziren «made in Iran» salgaiak. Aireko irandar batzu bostpasei aldiz Indiako zeruan atxeman zituzten... bainan Panslabiarenak Indiako zeruan atxemaiten zirenean, Txina eta Iranek beren anbazadoreak itzulerazten... Arrano Xuria gogotik kuku bilakatzen. Nottobek atzol batez mapa argitsua itzali. Haren lekuan, horma urdin bat. Lendakariak bere lan-mahaineko mikroa piztu.

«Mezu ofiziala. Mezu ofiziala. Hormabixtendakoa: U.S.W. etako gobernuak ez duela gehiago Perpiñanen ondoan Irandarrik onhartuko berriz aitortzen du. Harrapatuak izanen direnak «ez-adiskide» hartuko ditu. Kitto». Agian mehatxuek Iranen gerla-gosea ematuko zuten.

Dilin. Robot-boz bat mahainetik ozendu. «Berri ofiziala. Berri ofiziala. Indiako gobernuak erori eta, gudari irandarrik Indian sartuak. Panslabiak Irani ultimatum bat botatu dio. Berri ofiziala... Holobixtatik hedatzekoa, Jaun Lendakaria ?» Nottobe ilundu. Hitz batzu usterik gabe erranez «arte» atzola hiru aldiz hunkitu : berria holobixtara igorria. «Jadanik... goizegi».

Ez zuen astirik galtzeko. Klaberan zenbaki bat egin zuen. Beste bulego bat agertu. Lan-mahainaren gibelean gizon burusoil handi bat : Natanael Opusday, «Zigma Jauna». Nottobe zainetan zegoen, bestea aldiz oso lasai, gertakariak fitxik ez baliote egin bezala.

- «Arratsalde on, Opusday. 3gn plana hasi behar.

Gizon burusoilak galderarik ez. «Ederki, Nottobe jauna.

- Eta... atzo erran zenidana... Zer ?

- Gauza bera ? Dudarik ez dugula segur izan zaitezke.

- Laister arte beraz». Opusdayren arpegia itzali zen ; Nottobe argitxo gorri bat mahainaren gainean klixkan hasi zela ohartu zen : Mozku eta New Yorkeko lendakariaren bulegoak elgarri zuzenki lotzen zizkion «hologorri» arena. U.S.W. etako lendakariak pixkat igurikatu ondoren hologorriko atzola esku leka batez perekatatu. XXgn mendeko liburutegi bat ageri, Omar Miaulis (Panslabiako lendakaria alegia) liburuzalea baitzen eta terminalak laneko bakarrik erabiltzen baitzuten. Miaulisen begi zorrotz beltz beltzak, irriz beteak, beti bezala. Haren sentimenduak ezin asma.

Haren arpegia, Txerkess batena : «Uste baino lehenago, ezta, adixkide ?»

- Zuk erabakia hartu. Zuri hitza».

- Irandarrek bi aireko panslabiar «jautserazi» dute. Hobeki erran...» (Miaulisen eskuak yagan bat perekatzen ari. «Ez du bulego bat, erakustoki bat baizik» pentsatu zuen Nottobek. Nekez utziko du).

- ... hobeki erran... BIZPAHIRU aireko... Ta hirugarrenagatik gudari multxo batzu (ez mikromizilak, ahatik ! Gizonekin hitz egiten ahal !) ... Oinezkoak, aintzineko garaletan bezala... herria ikustera... ofizialki bederen. «Batzuek hango ohoinekin guduxka egin ba-

dute, beren problema da...»

Miaulisek yatagana ta irriñoa bat batean utzi.

- «Gainera, Sam, zuen laguntzaren mugak ezagutu nahi genituzke».

- «Goizik hasi zaizte... Bainan hasia izanez gero... 3gn Planara jo behar».

Miaulisen sorbaldak apaldu pixkat : hitz erdizka ulertu baitzion.

- «Aaa... Bihar arte beraz ? Agur».

Teheranen, Iraneko lendakaria ere Lurraren mapa behatzen ari. Reza Ayatollahen gudariak Indian burrukan ala guduxkan ziren, bainan Indiako gobernu berriak ONUri dei egin, Robota Urdinek bi gudulariak herritik kanpora botatzeko. Erabaki horrek Ayatollah harritu, Indiatar guziak beldurrez itoak zirela segur bait zen. Rezaren arpegi mehe ta beltzaranak baketsua zirudien, bainan bere baitan India (Indonesiaren atea alegia) ez zuela goiz aski hartu pentsatuz gero eta hasarreago zen... Orain dena ONUren eskuetan zegoen.



## EGIA

Anaiz buildingean tarrapatata sartzean seinale bat ozendu. Zer ? A bai, bere karta elektronikoa eskuan zuen oraino.. Karta markagailuko saski mugikorra botatu zuen. «Hobe dut Weberi dei egitea, bertzela ihes egiten diodala ulertu du eta berriz ere guardiatuko nau» pentsatuz beriganera murgildu zen, non ez baitzen pareta buruz jo. «Bilatzeke astia behar dut !»

Bere bulegotik Weberi ikusfonatu zion : «Zer nahi galdeginen diot. Lanerako zerbait». Ikusfonoak ez zizkion Weberen boza eta arpegi ederra eman ; injinadoreak ihardesgailua piztu. «Weber jauna bilkura berehalako batera gomitatu dute. Goiz guziko. Mezu bat uzteko 3 minutu baduzu. Berriz diot. Weber jauna bilkura berehalako batetara...» Anaizek mezu gisa ondoko week-end libroa zuela erran zuen. «Oso zozoa, bainan Jepek itsutuki maite dudala... hots, zozo sentimental bat naizela sinetsiko du».

Beraz, Weberik ez, zertan ari zen begiratzeko. Lan guti, gainera. Neska terminalaren aintzinean jadanik jarria zen. Idazgailua lehenik piztu : ordinadoreari galdegin zizkion dokumentu guzietz oroitzeko zerenda bat egin behar. Hori dena inprimagailuz idatzi hobe. Bai. Ez. ! Ezetz ! Arrastarik ez ! Idatzi bakarrik. Dena kentzeko prest egon.

Zer tituluak galdatu zituen ?

«Bazter-zikintzea» alferrik.

«Gopoila» alferrik.

«Bazter zikintzea» sailak ez baitzuen gopoilarik, ez eta hyperglassik aipatzen.

«Gopoila» sailean, Hyperglassik ez.

Idazmakinako «KEN» atzola berehala hunkitu zuen : pantailan dena itzali egin. Hori. Arrastarik ez. Anaizek bere lanaren lehen lerroa idatzi, norbait sartuko balitz lanean ari zela sinetsarzteko. Hyperglass saila galdatu behar. Bai, ZO ordinadoreari dei eginez. Hyperglass sail bat bazen (beharrizan ! Hari buruz berak lan egin zuen eta !) Anaizek «hyperglass» galdatu ; «hyperglass saila» agertu.

**HYPERGLASS**

---

**AURKIBIDEA ■**

1) osakiak

2) propietateak

3) erabiltzeak

3.1. gopoila

3.2. besteak

3.3. xehetasun teknikoak

Urratsak pasagian ! Anaiz jautzikaratu, ateari so. Haren eskua lot/buka atzolaren ondoan zen, dena kentzeko prest... Ez. Urratsak urruntzen ari. Neskak In titulua galdu. Pantailan esaera gorri bat klixletan agertu.

**ZURE KODIGOA EMAN ■**

Anaizek OO.2027.30.15. 1524 a jo. Pantaila horitu : ZO memoriak dokumentoa berehala erakutsi zion. Interesgarria, berak egindako zatiak salbu. Bainan besteek ere ez zioten gauza handirik ikasi. Orduan, 3gn saila (3.3) galdu zuen.

Pantailan xingola gorria berriz ere hedatu.

**ZURE KODIGOA EMAN ■**

Berriz ere Anaizek ZO ri bere zenbaki pertsonala igorri zion. Beste esaera bat agertu.

**HUTS BAT EGIN DUZU**

**BERRIZ GALDEGIN ■**

**BESTE ZERBAIT IKASTEKO AURKIBIDERA ITZUL**

Telediskari gazteak «ZUZEN» atzola hunkitu eta berriz galdegin zuen.

**HUTS BAT EGIN DUZU**

**BERRIZ GALDEGIN ■**

**BESTE ZERBAIT IKASTEKO AURKIBIDERA ITZUL**

Anaizek dena kendu, «hyperglass»ari buruzko aurkibidea berriz galdu. «Ea... «BIDAL» atzola jo dut, ezta ? Baietz. Nere kodigoa : OO.2027.30.15.1524. «BIDAL» jo. 3.3 titulua jo. BIDAL jo. Pantaila horia izanez gero, ZOri dei egin diot, ez da dudarik, hari lotua natzaio !» Pantailan xingola gorri bat hedatzen ari.

**HUTS BAT EGIN DUZU**

**BERRIZ GALDEGIN ■**

Pantailan xingola urdin bat hedatzen ari. Pollikiegi.

**BESTE ZERBAIT IKASTEKO AURKIBIDERA ITZUL**

«Ez. Titulua lehen. BIDAL. Nere kodigoa. BIDAL...»

HUTS BAT EGIN DUZU...

Anaiz, ordena aldatuz, eta galdera moldatzeko atzol guziez baliatuz, bere galdera molde guziez antolatu zuen. Alferrik. Dena egin zuela segur zen. ZO zaharraren memoriak etzion ihardetsi nahi. Nihork etzion sekulan erran memoria batek ezin zuenik ihardetsi. Bietatik bat : ZOren barnean zerbait makur ibiltzen zen, ala ongi zihoan. Bainan ordinadoreen hutsak ihardespren faltsuak izaiten ziren. (Eta hori bakan bakan gertatzen zen). Zirkuitu bat erretzean, argitxo bat pantailan agertzen, ZOK itzulia antolatu arte. Ez zuen sekulan holakorik ikusi !

ZO normala bazen, hark dokumentoa ukatu zion. Berriz ere galdegin... Esaera noiztik agertu ? Anaizek bere kodigoa eman eta. Ihardespren hori segetetu bat zitekeen... Anaizentzat debekatua Gaitzitu egin zen telidazkari gaztea. «Lan gaitz bat haiei eman eta, ohoin bat bezala erabiltzen naute. Esqwalduna naizelakotz, ote ? Bainan horregatik hautatu ninduten ! Lendakaria baintz, aldiz, bai, lend...» Gogoetak gelditu zitzaizkion. Bihotza pil pil, terminala deslotu zuen. Gelako ixiltasun handia somatu zuen. Bai eta ere bere baitako ixiltasun beldurtia. Luzaz bertan egon zen, xuri-xuria, arpegia eskuetan murgildurik. Gogoetak esnatu, laisterka, zirimolaka, uhainka,... Anaiz txoratu arte ; ordinadoretan klixketan ihardesten zuten ziliziumezko «kuku-soak» baino laisterrago : lendakaria... bake solasak... lendakaria New Byornera omen... New Byornen jadanik... Zigmak... hyperglasse... Weberen gorputz goxoa... «Week-end etan ere lanaz ari ! Goazen dantzara !» Miradora... Hyperglass... Segetetua... Herritarrak kanpora... Gorkaren erasiak... Baldi ! New Byorneko aterbea, New Byorn Zigmatiarrentzat... Panslabiako lendakaria New Byornera berriki etorria... Weberek terminala deslotu... hark zerbait zalielakotz.

Azkenean, neska arras polliki zutitu zen. Bere gorputza emazte xahar batena bezain aztun eta gogortua iduri zitzaion. Zahartua zelakotz.

Egia ulertu zuelakotz.



**TELEMINTZALDIA**

New Byorneko villa guziek bezala, Sam Nottoberenak ere solarium edo iguzkitegi bat bazuen. Hobeki erran, argibaso eletronikoez argi eta beroa zabaltzen zituzten. Argibasoak ez ageri ; izpiak tronadura eta xokoetarik «naturalki» ateratzen ziren. Gela ttiki hori etxearen erdian zegoen. Parabisu ttiki bat, argi urdinxka goxo bateratzen ziren. Gela ttiki, bero batez ; edo gela ilun-iluna egoiten. Musika batekin edo musikarik gabe. Bakotzak bere giroa hautatzen ahal. Arratsalde hartan, solariumeko argia urdina zen. Barnean bi gizon famatu, biluzigorriak, biskozezko ohetan etzanak, horma bati so eta so... Nottoberen sabela relaxazionaren erritmoaz goititzen ta beheititzen ; Miaulis aldiz, ezin lasai egon. Azkenean, itxarotzen zuten «KLIK» ozendu. Gela itzali, hiru gizonen irudiak hiru neurritan agertu : Nala Gandhi, Indiako lendakaria ; Reza Ayatollah ; indonesiako buruzagia ere bai. Gero beste arpegiak banaka agertu : hasia zen bakerako urrutizaldia.

Indiari lehen hitza. Nala Gandhik ile beltz kizkolak eta begi beltz handi sakonak. Shivaren harriduri baten aurpegi gogor leuna. Boz ezti batez zioen : «India neutroa izan arren, bi herri kanpokoak beren eztabada manu militari gure lurretan antolatzen ari dira. Biltzar hunen aintzinean haien joalea eta sinkusa ofizialak galdatzen ditugu. (Hitz egitean Baghavat Gita gogoan zuen. Gerlarik ez zuen nahi gudari gazte bat errege itsu zahar baten aurka.

- Barkatu !» (Oihuka ihardetsi zion Miaulisek). India neutroari, herrialde adixkideari barkamendua galdegin dezaiokegu. Halere, beste eztabada hori argian ezarri behar da. Inditar guziek, herri bakotzak bezala beren gobernua hautesteko eskubidea balin badute... (lasaikiago jarraiki zuen). «gaurko egoera ulertu nahi ginuke. Indiako gonia aldatu egin da. Beste bat sortu. Bainan anartean bi aireko panslabiar suntsitu dute. Nortzuk ? Indiarrek ? Ez, Indiarrek onhartzten baitgaituzte ! Aireko baten azken mezua grabatu dugu. Ez da dudarik ! Irandarrek suntsitu dituzte ! Indiako zeruaren erdian !» ixtripu haren ondoan, bi gizon bizi ziren... ta batto Iraneko LUR-GUDARI batzuek preso eraman dute ! Indian harrapatu dute ! Nun dugu Indiaren neutralitatea ? Nun dugu, Europa gurean, Espainan, gure mugetan gogotik onhartu dugun Iran ? Gudari menturatzale batzuen zozokeria dela erranen dauku Iranek ! Itxaro dut bederen !»

Nala Gandhi poliki zutitu. «Bi gudulariek joaitea ukatzen badigute, Indiak haien joera eza-dixkidetzat hartuko du eta ONUri laguntza galdatuko dio, hark bakearen bidea atxeman diezagun». «Bakea» hitza erraitean irriño ezti bat egin zuen. Erraitekoak erranak.

Rezaren iduria beti mugitzen zen eta zaila zen haren arpegiaren ikustea. Bere marmolezko pizinean, besalki gorri batean jarria zen, soldado short kaki batez jauntzia, zangoak urean ; besalkia haruntz eta honuntz. Hitzak aldiz, fadink gabe, argi eta garbi eman zituen... «Besteen zorrak guk ordaindu behar ginituzke ! Nala Gandhi jaunaren ustez India neutroa guk bortxatu dugu. Miaulis jaunak otso beltza gu garela sinetsarazi nahi luke. Nik ere nere oharrak emanen ditut. Lehenik ; Indietarik iragaiten zen aireko panslabiar gaixo hori - harrapatu ginituen gizonena alegia - MILITARRA zela. Nork nahi bila dezake nun dugun, Indiaren neutralitatea - bila, ala ... Panslabiari galda ! Bertzalde, uranium meatzeak ikustatzen dituzten «turista» Panslabiarrei buruz fitxik ez dut erranen. Nottobe jaunak aldiz Perpiñanetik botatu dituen turista Irandarrez zer ?»

Bost minutuen buruan, aintzinamendurik gabe gelditu zen urrutitzaldi orokorra... Txina, Indonesia ta U.S.W. etako lendakariak aparte jarraiki zuten. Miaulis, bi pirula irentsi ta villako gela batean pausatu zen. Gero, oren bete bat automatikoki itzaliak egon ziren irudi eta soinu guziak. Lendakari bakotzak bere herritaren iritzia terminalen bidez bil zitzen. Ofizialki bederen. Bakotzak toki gordezko batera joan behar zuen, gero handik telhautesteko. Munduko lendakarien artean nihork ez zakiene besteak ziren lekuaren berri. Urrutitzaldiak egiteko makinak arras ttiki ta arinak ziren ta nora nahi eramaiten ahal. Bainan lendakari bakotzak aparte egoiteko alia beste

baten ondoan egoiteko eskubidea bazuen. Hala hautatu zuten Nottobe ta Miaulisek. Hauteskuendean apailatze teknikoetan etzen gizon-eskurik sartzen ; dena logizialen medioz egiten ; mail hartan beraz, ezin zen salakeriarik gerta.

Oren baten buruan, iduririk gabe ta automatikoki hasi egin zen telhautestea.

Lao Hito, Txinako lendakariak, India gogotik «Tinaratuko» zuela pentsatuz bere bulegoko armairu batetik liburu faltsu bat ateratu zuen. Liburuan atzol bat hunkitu : I zenbakiarena ; bere boza emana zuen. Indonesiako buruzagiak egurrezko jauregi airos batetik bere boza igorri. Hark otso beltzak elgar jan zezaten gutiziatuz I atzola jo. Nottobe solarium ondoko pizina ttikira joan. Eskua urera sartu eta pizina horman atzol bat hunkitu. Solariumera itzuli eta, Miaulis, haren zai zegoenari «E finita la commedia» erran zion. I zenbakia jo zuen. Miaulisek hasperen bat eman. Nala Gandhik, kaliren tenplo batean kokoriko, ONUren erabakia pantailan ikusi zuen. Haren aintzinean, pantailaren gainean, Kaliren irudi beltza, bere hortz zorrotzekin, kaskezurrez inguratua. «Klik. Berri ofizialaren seinalea ageri : pantailan izar gorri bat kliskan, alegia. Orduan hitzak agertu. Banaka. Xuriak, xingola gorriak lerroka hedatzen zirela. Izar gorria beti klikketan.

**BERRI OFIZIALA BERRI OFIZIALA  
ONUK INDIAREN DEIA BAZTERTU  
ONUREN URRUTIBILKURAK INDIA AHO  
BATEZ KONDENATU  
PLANETAKO EZTABADERI BAINO BE-  
REN BARNEKO BAKEARI KASU GEHIA-  
GO EMAITEN DUEN HERRIAK JOERA BE-  
REKOIETA ARRAZISTA BATETARA  
ERORI BAITA**

Nalak Mahabharata gogoan zuen. «Errege itsua... eta orai guhaurrek gure begiak zilatu behar». Kaliren irudiari so, nigarrez luzaz egon zen. Hari bost axola, bakarrik baitzen. Gero, yoga pixkat egin eta, berria zabaltzeko terminalako klamera jo zuen.

Miaulisek New Byornetik ONUren antolabideari eza eman.

Nottobek U.S.W.ak Panslabiaren ondoan gudan sartuko zirela aitortu.

Komedia bukatua zen.



Gorkaren etxeko atea (zurrezko ate guntzadun bat) erdi idekia zen. Barnetik heldu zen bizen arrabots berezia, Anaizek errexki ezagutu zuen : bilkura batena. Denak arrazoinka. Etxean ez zuen atxeman Baldi. Anaiz une bat duda mudan egon : nundik hasi ? Erretxena baizik ez zuela egin, ulertzen ari zen. Egia erran, ibilaldi batera bezala bulegotik «ihes» egin zuen, nihork ez baitzion kasurik ere eman ! Ez pasagietan, are gutiago arroltzmaticoen geltokian. «Dena den, egia ulertu dudala ez dut bekokian idatzia ; eta Zigmatiarrek ez dute gehiago arkgirafa xume batez kezkatzeko astia : hori, egia asmatu dudala beste froga bat liteke. Behar nautenean abiatu naizela ikusiko dute. Agian bakean utziko nauten !» Arroltzmaticoa herriko plazara jautsi eta Baldiren etxera zuzenki joan zen ; nihor ez. Ez zen bere gurasoengana joaitera ausartatu : «Bi-

latzen banaute, etxera ikusfonatuko dute» Baldi topatu banu hobe ; mutilak aspaldi ixilki maite zuela baitzakien.

Baldirik ez. Orduan Anaizek gogorrena hautatu : Gorkarengana joaitea alegia. Neska jautzi-karatu, ate erdi idekitik emazte mehe beltzaran bat ateratu baitzen.

- «A-NAIZ ! Hemengo aldiz !

Anaizek ezin ihardets. Gorkak publizitate ederra egin ziola segur.

- «Anaiz ! Zer duzu ? Hatsu ezin hartuz eta kasik nigarrez !
- Maialen... otoi... astirik... ez gal... Gorka berehala ikusi NAHI DUT !
- Bainan hasarr...
- Beharrezkoa da.

Maialen marmarka sartu eta berehala itzuli zen, Gorka zuela lagun. Anaiz bere auzoak ile xuri batzu bazituela ohartu zen. Bai eta ere akitua zela ; 50 urtekoa iduri. Haren arpegi belztuak ez zuen sentimendurik salatzen ; hitzek aldiz : «Zer berri da ? Eta lehen, nola jakin duzu bilkura bat egitekotan ginaudela ?»

- Simplea da : ez nakien. Zu ikusi behar zaitut. Gorkak irri maltzur bat : «Zigmaren izenean mintzatzeko ?»

- Ez ; gaur goizean nere lana betikotz utzi dut eta...»

Pausa bat. Anaizek Gorkaren bekokiko ximur finak nabaritu zituen.

- Jakin dudana jakin eta, ez dudalakotz halako jendeekin lan egin nahi.
- Zer dakizu ba ?
- Zertarako Zigmak hainbeste herritar New Byornetik botatu duen.
- Hori denek badakite ! Haien etxeak Zigmattarreri emaitako !
- Beste gauza bat badakit, Gorka ; astirik ez gal, otoi ; deneri lehen bai lehen erran behar !

Gorkaren begi urdinetan harridura lehen aldikotz ageri. Gizonak Anaiz besotik hartu zuen : «Bainan xuri xuria zaude zu ! Zer da ba ?»

- Denei erran behar diet».
- Zato nerekin».

Anaiz sartzean herritar guzietan begi xuriak egin zizkioten. Gorkak ixilarazi zituen. «Anaiz, erraiezu orai».

- Gopoila zertarako den badakit, Zigmak ez baitu egia osoa erran. Hyperglassen propietadeak bilatu ditut eta ordinadoreak ez dit xehetasunik eman nahi izan. Dokumentoa ikusteko nere kodigoa eman behar nion ; kodigoa eman eta, ihardepenik ez.

- Fitxik ez dakizu, beraz !

Anaizek ez zion Gorkaren ateraldiari kasurik eman ; kasik oihuka segitu zuen :

- Bai badakidala ! Jadanik ikasi nuenari esker asmatu dut ! Hyperglass ez da bazterzikintzearen kontra bakarrik ! Erradiodurak edo erradiazioak ere gelditzen ahal ditu ! Horregatik Zigmak New Byorn gopoilarenpean ezarri du ! Horregatik hainbeste ordinadore berri New Byornen ezarri dute ! Horregatik USW eta Panslabiako Jakintsunetarik famatuena New Byornera» gomiatu dituzte ! Bake denboran, New Yorkeko ordinadoreek Europa guzira balio izaiten dute ; gerla bat gertatzen bada aldiz, hel bideak eten litezke ; ordinadoreak gopoilarenpean ezarri behar ! Horregatik behar ez zuten janaria mordoka

herritarreri erosi diete : gerokoak bildu behar. Horregatik herritarrek gopoila beren lurretan onhar dezaten bazter zikintzeari buruz zerbait faltsu batzu eman dizkiete, ez baitzuten pentsatu norbaitek zerbaitak beste titulu batez ordinadoreari galdutako zionik. Nik gezur hori uste gabetarik atxeman dut». «Jes» ito bat entzun eta Anaiz Baldi han zela azkenean ohartu : «Adizu, Anaiz... bazter zikintze arrisku guti badugula noiz ulertu duzu ? Zerbaitengatik ?»

- Ez, nere lagun baten era bitxia iduritu zitzaidalakotz.

- Weberena, ezta ?»

Baldiren irriño tristea ikusi eta Anaiz lotsatu, Gorkak mahaina ahurrez jo.

- Zer Weber eta zer...! (Baldiren arpegiari so egin eta gelditu zen). Bon ! Tira, Baldi, otoi, kalakak utzi !

- Lendarakia New Byorneko gopoila estrengatzen etorri zela ikasiz geroz segur naiz.
- Ez keza, Anaizetxo, bainan erran zenizkigunak iduripenak besterik ez dituzu !
- Barka, Aita, bainan...

Klik. Dilin. Denen eskumuturretako mikroirradi tresnak automatikoki piztu ziren ; Aidako trunpetak ozendu : deiadar ofizial baten seinalea. Bakotxa bihotza pil ixildu.

- «Berri ofiziala. Berri ofiziala. U.S.W.eta Panslabiako gobernuek Irani gerla aitortu diote. Huna mezu ofizial batzu...»

- «Arrazoi duzu, Argia» aitortu zuen Gorkak.

- Xo !

- «...BESTE MEZU BAT : A 1001 taldeko Zigmatiar guzietan eguerdi aintzin New Byornen izan behar dute. BERRIZ DIOT:A1001 ZIGMATIAR GUZIEK...»

Gorka xutitu zen. Gazteago ta arindua zirudien. «Irratitresnak hil !» Erran eta egin. «Denok Byornera ! Anaiz eta Baldik beste herrietako auzapezeri ikusfonatuko diete. Lagun batzuek ahal bezinbat arroltmatiko huna heleraziko, nork ?»

- Nik ! Guk !

- Eta gero, denok Byornera ! Gurea baita aterbe hori. Ez gara aterbetik kanpoan efradiodurez edo gosez lehereginen !»



Goizeko 11,30tan, herri guzietatik ateratzen hasi ziren, gehienak arroltmatikoez, besteak oinez. Bidetan ziren arroltmatiko guzietan gabe hartu zituzten. Herriko laserzerra guzietan eskuratu zituzten. Laserium, edo makilak eskuetan zituzten. Batzuek zakuak harriz bete.

Anaizek ikusfonoko besoa emeki lotu zuen. Leihoa idekitzera jeiki zen, jenden harramantza egongelara sartu ; neskak leihoko atzola berriz hunkitzean, «Hela» bat gibeletik heldu zitzaion. Gorka atondoan xutik ikusi zuen. «Aintzina ; nihork ez du New Byornetik ihardetsi» erraitean Anaiz alki batera kasik erori zen. Neskak «Ez duzu akitua izaiteko eskubidea» edo holako zerbait alferrik igurikatu, Gorka atsedenean baitzen. Haren begi urdinek ez zuten Anaiz ikusten. Harele, Anaizek. «Orai beste guzietan badakite» erran zionean buruz baieztu zuen. Biltzarkideri manamenduak eman zizkienean,

edertu zela pentsatu zuen Anaizek. Orai, bere eguneroko itxura zuen : larru beltzatu bat bekokian, bai eta ere begi eta ezpainen xokoetan biziazen atzaparrek utzi ximurdura finak ; aho triste bat. Gizon sendo mehe bat, gorputza xut, oraino gaztea, biziak zauritua. Anaizek Byornekikoteleharremanak jadanik ebakiak zirela erran zuelakotz, itxaropenak polliki, kasik amul-tsuki ihes egin zion... Neskari begiratu zion : hark ete ulertu zuela bixtan zen. Anaizen begiak haren eskuetako bilo gorrietan ohartgabe gelditu zirenean, esnatu ta ahalge izan zuen Gorkak : neska hori New Byorneko aterbean lasai egon zitekeen...

- Anaiz... erran nahi nizuke... zera... Zigmatiara izan zara ta...

- Berriz ere ! Zigma ezker eta Zigma eskuin ! Zer dizut egin ba ?»

Gorkak nahigabeki eta herabeki irri egin.

- Anaiz, otói... entzun ! Arroltmatikoak Zigmarenak dira, ezta ? Beraz, zer behar dugu egin ? Behar bada zertan ari garen badakite !

Anaiz xutitu zen eta Gorkari hurbildu. «Dena, den, hobe dugu hara joatea. Zerbait egin behar. Bainan Zigma ez gehiago aipa, Gorka ! Bertzela ez dizut sekulan barkatuko !

Gorkaren aurpegi akitua gorritu zen pixkat. «Ados. Bakea merezi duzu. (Ilundu zitzaion aurpegia). Baldiren arroltmatikoan leku bat atxemanen duzula segur naiz».

- Zurekin joan nahiago dut.

Gorkak ahoa ideki, hetsi, irriño ahul bat egin, eta bat batean, bere harrotasuna ahantziz Anaiz bortizki besarkatu. «Anaiz... Bark...» Anaizen musuak gizona ixilerazi zuen, harentzat zaharregia zela erraiteko kuraia hari galerazi arteraino.

Gero, Gorkarena Anaizek egin (ondokoerasien beldurrez ote ?) : besoak bere lagunaren gorputzetik batbatean kendu eta «goazen» gogor bat erranez atera joan zen. Gorkak hitzik erran gabe jarraiki zion. On egin zion Anaizen musuak.



Arroltmatiketako krasko zilar kolorekoak bide zaharretan gainetik airatzen ziren ; barnean eramaiten zituzten gizon-emazteek mehatxu ala beldurra zuten aurpegian, haurrek harridura. Bide bazterretarik oinez ari ziren bizkarretan, biskozezko zakuak gauza beharrezko batzuen hautatzeko astia atxeman sutela seinale. Weberek ostean Anaizen aurpegia alferrik bilatu eta amor eman, besterik baitzuen egiteko: Jendea hurbiltzean taldeka aintzinatzen zirela ageri ; hots, nihork ez zuela burua galdu. Gehienak IIIgn munduko gerla ezagutu zutelakotz, behar ba.

Weberek pantailari so egin : han zenbakiak klixletan : K-10. «Jadanik !» Jep New Byorneko Pantailen Gela Nagusian zegoela bat batean orhoitu. Pantailetan, Esqwal Baserriko bizilagunak beti aintzinatzen ari. Weberek haien laistertasuna klaberaz galdatu : eguerdi aintzin New Byornen izanen zirela ordinadoreak frogatzean, seinale gorri bat soinu mehe batean piztu. Weber gero ta urduriago :

- «Hori! Haiek behar ! Bainan zer egin ? Atea idekitzeko ERE huna igorri naute ! Ea... haiek direnez...» Injinadore gazteak ateari so egin : har-

tan hiru argi gorri piztu : atetartekoan hiru gizon, beraz ; atarteko kamera piztu eta pantaila tikiak kasko soil bat argipean diz diz, bigote beltz famatuak, sudur konkora bat ezagutu zituen eta atzol gorri bat hunkitu : 2gn ate perde ilun borobila «Kffff...» arin batekin lerratu. Handik Natanael Opusday, Omar Miaulis eta Sam Nottobe jaunak ateratu.

K-7 : pantailetan herri bat taldeka beti hurbiltzen ari, New Byornerraino joateko prest. «Ezin duzue haien bozak graba ?» galdegin zuen Opusdayk.

- Bai, jauna. Irudi haiek mikrosatellita salatari ezin ikusi batek hartzen ari zaizkigu. Soinua, nahi baduzue... (Jepek zenbaki bat klaberaz jo).

«BYORNERA ! BYORNERA ! BIZI NAHI DUGU !» entzunez Miaulisek bere erhi-pototsa ausikikatu. Opusday jarri zen : «Soinua ken. Ez du balio». Pantailetan zenbakiak itzultzen : K-7 ; New Byorneko gopoilatik 7km ra etorri ziren jadanik. Opusday xutitu zen : «Besterik gabe... sartu nahi lukete... Ez dira sartuko, ez beldur izan. Ez dakit nola jakin duten, bainan norbaitek salatu bagaitu ere, orai axolarik ez duela segur zaitezke, ta... Nottobe jauna ?»

K-5 ; Nottobe, gibelaz itzulia, beste klamera bat jotzen ari zen ; pantailan New Byorneko planak (hiria borobila bilakatu zelakotz errexi irakurtzen zen) gopoilako hormaren ondoan gizakumerik ez zela argi ta garbi erakusten. «Ez da nihor» erran zuen Nottobek irriparez.

Opusdayek irriparez ihardetsi : «Naski, Nottobe jauna ; ez beldur izan ! bizilagun guziak lurpeko aterbe zaharretan sar erazi ditugulakotz. Gopoilarena berantago jakinen dute. Anartean, ez dute kanpoan gertatuko dena ikusiko».

- Eta salataria ? Herritarrek nunbaitetik ikasi !  
- Salataria kanpoan dago ta kanpotikako telemezuak aspaldi gelditu ditugu, oraintxe ikusten ari zaretenak salbu, naski. Herrien arteko teleharremanak utzi dizkiegu... Weber ! Esna ! K-4tan dituzu jadanik !»

«Behazue» (Miaulisen orroa entzunez hiru gizonak jautzikaratu !). «Beha, Sam ! Zure pantaila tikiak ! Norbait ! Norbait ez da aterbean sartu !»

Nottobek hiriko planari so egin. «Zer, Omar ? Izar perde horik ? Klixketan direnak ? Ez ! Gopoilako horma barnetik estaltzen ari diren robotak dira ! Haiei esker New Byornдарrek ez dute kanpoko herrialdea ikusiko...»

«Ongi, bai... bainan ... eee ? Beha ! Izar gorri bat hemen piztu da.»

Orduan lau gizon terminallez lanean hasi. Opusday-ren erhi gizenak euli zangoak bezain laster atzoletik atzolaraz jautzen ziren... Robotak «norbait» ez ezagunaren bila igorri zituen.

- «K-3, Weber !»

- Lasai, Omar. Weber prest dugu.

Weberek burua altxatu. «Barka, Jaun Lendaria ; nik ez dut holako erabakirik hartzeko eskubidea. Zuri, jauna. Atzol hau hunkituko duzu.» Nottobe Weberen aurpegi xurituari kasu eman gabe terminalaren aintzinean jarri zen.

- Eta hormaren ondoan egon dena ?

- Robotak laister atxemanen dute. Bost axo-la !»

Bai, norbait gopoilako hormaren ondoan,

horma oraino zehargi zen leku batean robotetarik urrun egon zen. Ez zen Irandarra, ez eta Zigmatiarra, ez eta espiuna, ez eta salataria. Ganix zuen izena ; gopoila zertarako zen ez zakien. Be-giak harriduraz ala nigarrez nir nir zituen, ez-painak hyperglassaren gainean. 7 urteko mutiko bat zen. Jendea lurpeko aterbetan sar arazi zutenean, bere amari ihes egin zion ; EZ zuen aterbean sartu nahi, besterik ez. Fitxik ez zuen asmatu, bainan orai, Baserritarrak hasarre zirela ulertu eta haiek hurbiltzen ikusteko (edo hobeki erran ikusiz, nahigabeki) bertan egon zen. Aterbean, bere ama izebek nun zen jakin nahiz ikusfonozko dei bat egin. Mutikoa herritarren aurpegiei gauza debekatu bati bezala so eta so...

«K-2, Nottobe jauna. Zuri, Jaun Lendakaria !» U.S.W. etako lendakariak xiribixta gorri bat bultzatu.

Orduan mutiko galduak hyperglassen gibeletik dena ikusi. Bere lehen kusia Libe ezagutu eta alferrik oihiu egin zion ; eta bat batean dena aldatu : aintzintzen eta aintzintzen ari zen jendea uzkaiki, erori, lehen lerroak zerbait buruz jo balu bezala. Xutitu eta laserezko tiroak gopoilara botatu nahi zituzten gizonak, arpegi gorputza odoletan berriz erori. Mutikoak ez zuen orrorik entzun, ahoak idekitzen ikusi baizik ; berak hatsa galtzen. Libe nun zen ezin asma. Norbait megafonoz zerbait oihustatzen... jendea nola nahi iheska, kolpatuak (kolpatuak ala ????) Ganixek ez zuen jakin nahi) lurrean utziz. Mutikoak bere buaruari urte aintzindako zer galdegin bazuen. Betikotz airatu zitzaion haurtasuna.

Pantailen Gela Nausian, Weberek teminalak itzali. Lau gizonak une bat ixilik egon.

- «Joan dira ; indar aldeak ederki bulkatu ditu» komentatu zuen Nottobek».

Hormaren ondoan, robotak mutikoa nigarrez atxeman eta, nekerik gabe aterbeko eritegira eraman zuten.

«Gopoila eta indar-aldeak zein balio duten frogatua dugu» erran zuen Opusdayk».



India'n, arma zaharren bidez etzuen ez bata ez besteak aintzintamendurik ardiesten. Orduan mikromizilez eta bomba nuklear ttikiez hasi ziren. Lehenik, Panslabiak Palestina bunbardatu zuten. Jerusalem etzen harriren gaineko harririk. Egun hartako arratsaldean Iranek mikromizilak Retrograd, Lituaniako hiriburura igorri zuten. Zohikaztegiak erradioduratara murgildu ziren. Suzko lore bat. Mahabalipurameko eskulturak, Tadj Mahal airoa, Angkor Handia etziren oroitzapenak baizil. Sivak India guzia irentsi eta Parvatiren bular ezitia urratu zuten.

Kezko onddo bat. Rio-n etzen gehiago ihauteririk izanen. Izpahan-en erradiozko arrosak zabaldu ziren eta emazte guziek herioaren arpegia zuten. Mazurian horma urdin gehiagorik ez.

New Byorn-en Zigmatiar guziak egon ziren, eta gobernuak indutrigizon eta jakintsun ainitz han bildu zuten.

Ameriketean, bai eta Europa zati gehienetan apokalipsa zen. Kontinenten arteko irrti eman-kizunak ebakiak ziren. Jende ainitz, etxerik eta itxaropenik gabe egon zen. Hego Amerika sutan zegoen ; New York-en ondoan, kutsadura aurkako horma hautsi zen.

New Byorn hyperglasspean. perla bat bezin dirdiratsua eta osorik egon zen.



#### HITZ BATZU ....

zehargi : transparent  
 atzol : touche  
 klamera : clavier  
 telidazgailu : teletex  
 hyperczko : hypercure (paperaren ordezkoa)  
 inprimagailu : imprimante  
 lot / buka : connexion / fin  
 ikusfono : visiophone  
 arroltzmatico : ibiltzeko arroltze baten formako tresna  
 Byorn : «baien...Bayonne» ingles moduan  
 gopoila : coupole  
 ezpaloi : trottoir  
 berigana : ascenseur  
 indar-alde : champ de forces  
 Wisla : Vistule ibaia  
 pasagia : couloir  
 sinkusa : excuse  
 krasko : coque  
 xiribixta : manette  
 erredira : muble

# URTZOAK

## eñaut etxamendi

« Zazpi urtzo duhatze  
« Hamalau hegalez airian...»

(kantu zahar).

«Zer dela pentsa : xurixko, latxko, pentsatzeko gaixtoxo ?».

Hori erran nakon Erramuni, eta etzuen pentsatu zer zen. Erramunek hamasei urte zituen eta nik sei. Gure etxean egoiten zen mutil eta biziki gixakoa zen, irri pollit bat bazuen. Bere aita frantsesa zen eta lhila. Ama gure herrikoa. Erramunek «Zerdela-pentsaka» etzakien. Arratsetan gaztaina erre jatean zerdela pentsaka artzen ginen karka-llaka, eta ere «ikuxi-mikuxika».

«Ikuxi mikuxi, nik ikusi Xo !

- Xoxua
- Ez !
- Xotina
- Ez
- Xotxa
- Ez etaree
- Xoferra !
- Eez
- Xotila !
- Ezetz
- Aaa... xokoleta !

- Ez, ez, ez !
- Xoria !!
- Baaa ! Bai, bai, bai xoria !».

Erramun ahoa puxka bat idekirik guri so egoiten zen, eta gero irri pollit hura egiten zuen.

Behin landan lur arhatzen ari ginen biak : hura arhe-zain eta ni itotsemaile. Erran zautan :

- «Xurixko, latxko, pentsatzeko gaixtoxo, zer den erten badaaxu... xori kafiaño bat eman dauxut.

- Egia ?
- Ba egia
- Arrunt egia'uxu hee ?
- Baietz arrunt egia. Horra kurutzia !
- Ez takixia zer den zerdelapentsa hori ?
- Ez
- Hori'uxu GATZA !
- Aaa !
- Uai xori-kafia behar daaxu eman gio !
- Bai, bai, bai...»

Eta ereman ninduen berekilan oihanerat Orhe-Malda alderat. Bazen han lurta bat : lur larrutu pezoin handi bat zuhamuen pean argi ilun batean. Pezoinaren zohizko ezpainen pean, erro xeheen artean xori-kafia. Xilo ttipi

pollit bat goholdiz eginik. Hartan bi erhi sartu eta arrultze ñimiño gorraxta bat athera zuen Erramunek. Oixe ! Zer kuxkula xorragarria ! Pollikiño, nik ere erhia sartu nuen eta kafiaren zarpa zolan arrultzeak hunki, hautsi gabe ! Zer loria !

- «Zoin xoriin kafia da ?
- Pettit erregiaina. Izena dixi ere Kikixoria. Xori guzietan ttipiena'uxu.

Ondoko egunetan toki hartarat jaiten nintzan bethi, arrultzeak hunkitzen, kondatzen eta han egoiten luzaz. Gerezitze bat bazen han haizeak edo lur larrutzeak aurtikirik, bainan erro batzu lurrean baitzitu, bizi zen gotor. Enborretik sorturik laia xuxen batzu xut-xutak bazauzkan, eta heietan Erramunek ganitaz piko pollit batzu oxkarran eginik.

Itxura ezpaindun batzu egiten baitziren laiak loditzean. Zer makilagai pollitak ! Han zen bada Erramunen josta-lekua. Inguran zuhamu mota guzietarik : Haritz haundiak, leiza lerdanak, gaztigar xuxenak eta orotarik. Bakartasun tokia zen.

Kikixoriak han gaindi zabilizan kantuz ene inguruan. Erreka bat turruxtan ari zen ondoan eta urrunago oihanean mila ta mila xori kantuz. Gerhezi pinpirinak baziren lurrerat eroririk eta ihintz xortak erortzen ziren hostoetarik. Primaderak zituen oro trixte... Jaz Kattalin gerhezitzetik erori zelarik bezala. Zer irigarrikeria ! hila zen... eta gero berriz hatsa jin zitzaion. Kurrulla egiten zuen hatsa hartzean bildotxak egiten duen bezala lepotik ganita aitak sartzen zakolarik.

Kikixorian kafian umeak sortu ziren. Begiak hetsirik zituzten lehen egunetan bainan laster iratzartu ziren eta tarrotu. Egun batez kafia barnetik eskuetan ateratzen ari nuelarik bat hegaldaka eskapatu zitzaion. Beste batek berdin egin zautan. Eta horrela denak inguruetako sasuetarat juan ziren. Xori aitamak harat eta hunat zabilizan zirurika eta ttiunttaka firrindan hosto artetan uste baitzuten umeak galtzen ari zitezkeiela.

Gero berriz jin nintzan biharramunean pezoin hartarat, bainan kafia hutsik zagon, ahoa xabalik, luma xahar batzu ezpainetan. Oihana deika ari zen kukuaren kantuz, iduri baitzuen Kattalinen ahotsa ohetik deitzen zuelarik : Ama, ama !

Ondoko urtean bi kikixori hatzeman nituen nihaurek. Bat erakutsi nakon Migeli, gure etxetik Migelen etxerat biderditan zen.

- Etzakoxula nehori eakuts gio !
- Ez, ez, ez, ez !

Bi arrultze baziren kafia hartan. Eta kikixori amak egun oroz bat geihiago erruten du. Bi egunen buruan juan nintzan sogiterat : lau arrultze izanen ziren ! Bainan... xorikafia-gunea

hutsik zen, lurrean goholdi puskak, arrultze hautskinak... Miguel adixkide nauken ordu artean.

Geroztik berrogoi urte iragan zauzkigu, ez dakot sekulan sekreturik erran, eta behin (duela hogoitabost urte) paso bat eman-ahalakoa eman izan dakot moskoaren gainean.

Ikasi nuen xoxo kafia harrapatzen. Uzkinazo kafiak ere harrapatu nituen. Belekafiak, eta behin buzoka kafia ume batekin. Sekulan ez dut kafia bat berreiatu.

Oseba Peiok eta Mañexek xederak ezarri zituzten mahastian bai eta mahasti bazterreko sasuan ere urte batez. Han xoriak, xoxoak eta biligarroak sartzen ziren. Zer gauza xoragarriak ! Argitu baino lehen iratzartzen nintzan eta mahasti bazterrerri gogoetan egoiten geihiago ezin lokartuz. Amentsetarik xoriekin kantuz galtzen nintzan sagardoiko hesibros-tetan.

Xederan xoria hegalak xabalik ithoa ikustean bihotza pil pil hasten zitzauban. Eskuak ikaran haren hartzerakoan, xuandor eta ollakaranen burdats artetarik behatzen neien haratagoko xedereri : hantxet beste xori bat ! urrunago xoxoa zalapartaka oraino bizirik !

Etxerateko bidean xorieri lumak berriz leguntzen nezkeien, mokotik dilindan zoin pollitak ziren behatzen... mahain gainean ezarri eta, barnean lanbro bat banuela ohar-tzen nintzan, zintzurrean pilota bat. Bozkarioak nigar gustu bat bazuen. Eznakien nundik eta nola kordoka hori idek.

«Xori hok nola kantatzen zuketan barda arratsian... Juan den primaderan nun eginak othe zituzten kafiak ?»

Buruila jin zen. Urtzo liliak gaztaina petan agertu ziren goholdi artetik. Iratzeak gorrailetzen ari ziren. Larrazkenaren usain gogor ez-tia hartzen ginduen sudur hegalak ikaratuz goiz gorrietan. Aztalez ipurdia joz irrirtzina ta kantutan gaztaina biltzerat johaiten ginen. Aitak harma berekin ekartzen zuen, «urtzo zonbait jiten balitzee Jee Olaarriko haizteirrat...» Aitaren aurpegi garratza arraitzen zen orduan, irria ere eskapatzen zitzakon mintzo zelarik urtzuez larrerateko bidean.

Iratzetan hasi ginen goizik, behar ginituela haboroxak bildu ta arbatu urtzoak abiatu gabe. Gero urrian aitak jua gogo baitzuen ihizirat Oriuneko oihanerat. Goiz batez ni eninduten bestekin batean jeikarazi. Iratzartu nintzalarik gizonak irasailerat johanak ziren. Amak erran zautan «askaria behau'xu iasalleat eeman, Kattalin egun dendari eskolarat juanik baita».

Juan nintzan bai. Oi zein gogotik ! hego dolamena ahapetik kantuz ari zen oihanetik eta artadian artondoek ostoak zerabiltzaten bolant-jantzarien xingolak iduri. Errailetan jantza jauzien soiñua pikoka ari zitzauban eta papoa hant ahala hantzen nuen sudur mizpirak zabalduz. Mendien leihorri guzia irhesten nuen begiez eta hatsez. Pagadoiak urrunean.

Xendra-hegiko potxa beroa eskuz perekatzen nuen :harriak duen gogo iraunkorra !Otar-Biz-karreratu nintzalarik aitak iratze maldatik «heldu xirea Koxke Karabillante ! askari beruainkin ?

- Ba, ba, heldu !

- So'ixu hortxetako haitz hortarik hirritun ari zauzkun horier.

- Zee ?

- Hortxet hortxet ! etxia kusten ?

- Oo ! ze ? urtzuak !

- Baa ! guri hirritun...»

Bi urtzo ziren haritz adarretik dilindan !  
Bi urtzo !

- «Nik hilak tiro'atez ! Olaariko ziluan !

- Tiro'atez biak !

- Baietz ! tiro'atez biak».

Zer gauza pollitak ! Urdin eta xuriak. Zein xori haundi ederrak. Pereka ta pereka ari nintzakoten. Aita hegoz moxkor zen ; elhe ta elhe ari zen, iruzki leiñuru bat begitar-tean.

Urtzo hibi haundiak beste astean abiatuko ziren. Orduan aita Zaldeterat johanen zen ihizirat. Etxe guzia hegoak harturik gindauden. Amak xingar puxka finena beiratzen zuen aitari jatekoen ezartzeko zarpan ihizirako. Gu zoin geihiagoka iratzetan lanen aintzina-tzeko urriko.

Urrian, eskolak hasi ziren. Haritzpe batean, hiru harri potxa aldean, eta iratze malda baten azpian zagon gure eskolatxo. Tiroak pin-pan Oriunetik. Errientak etzuen gogo haundirik. Gu josteta ihiztarika. Nexkak ziren urtzoak : eskuak erabiliz hegalak bezala lasterka eskapi zohatzen eta guk (gizonek) «tau ! tau ! xu hila xira Kattin !.

Bai bainan Kattin aintzina eskapi. Behar ginduen «untza hiltzeko» harma muturraz «urtxoak» hunki, orduan lurrerat errortzenen «ihizia». Zer kalapitak ! Harmatako makila bat xedera moldean bihurturik.

Urtxoka eneatu eta, basurdeka artzen ginen. «Basurdeak» mutiko batzu, ihiz-horak beste mutiko batzu eta tiariak ere mutikoak : hauk «buruzagiak». Gu jauzi ta putinka othatzeen gainetik, sasu-brosta zokotarik zirripistaka eskapiz «baf ! baf !» eginez, peña kaskoetarat jauzinez, punpe ta firurika. «ago hor xoxan ! hi hantik ! nik heentik tiratuko diakoat !»

«Tau ! tau ! tau... tiroak. «Basurdia kolpatia !» (berak zuen erraiten hori basurdiak) eta «basurdia» herremelka, itzulipurdika, «baf, baf !» mainguka eskapi... «untsa hiltzeko» triparat behar zitzakon harma muturraz hiru tiro tiratu. La, orduan hila zen. Ihiztariek irrirtzinak egiten zituzten, zerurat tiroak tiratzen. «Basurdia» bizkarrean eskolarat ekartzen ginduen. Nexkatuak inguruan jantzen berek kantatuz... Zer loria ! Gero artzen ginen denak kantuz eskuz-esku elgarri loturik inguruka : mutiko bat eta nexkato bat ukuluaren erdian. Hauk ahapetik batek bestearen behar-rirat hautatzen zituzten ondoko inguruko erdirat beharko ziren nexka eta mutikoa. Bertsoa



gelditzen zelarik erdiko nexkak ingurukarrietan mutiko bat besotik hartzen zuen, halaber egiten zuen haren lagunak nexkato batekin, eta pare berria erdiratu zeneko, bertso berria kantuz inguraka berriz.

Oriunetik bethi tiroak. Eta hegoa orenen ergelgarri bethi zuhamu, artadi eta iratze maldetan josteta. Etxerateko bidean ur-erreak. Han ertzaroz amarrainak nabari ziren. (Hegoa-ekin arrainak «kanpoan» dabilta). Gure eskualdeko bidetik baginen hamabiko bat elgarrekin bidean, arrainka ere artzen ginen, orthutsik urean, nexkatoek zaiak goititzen zituzten gerriraino. Zifli zafla arrainka. Hori besta ! Tipitoak bazterretik gure puzken zain.

Gero oihanari gora aztaparka pendoitz zizturrari gora hurrankako bidez. Ordokiño ttipi bat bazen oihan buruan eta han ondoan bi sagartze eder urrian sagarrak erortzen zitzezkeienak. Sorhopilan jar eta sagar jaten, eskolako zarpak belauten gainean, «oo ! xori hurni ! zer da hau ?

- ilda xoria'uxu oo !»

Nuntik edo nola gertatu zen oraino ez dakit. Edo untsa baino hobeki dakitalakotz menturaz dut ezin idatz zer gertatu zen. Bethiree, amak «bildu» ninduen. «Bai» erran nakon. Bai, eskola haundi baterat johaiteko. Aphez eskola baterat johaiteko... bai !.

Sekulan orhoituko niz : lo-alditik jeik eta gertatu zen delako «baia». Gero, atsaldaskariaren gizoneri eremaiterat igorri ninduen pota haundi bat emanik. Kanporatu eta hurrats egitean lurra oinez ez nuen seinditzen. Gizonak eskolarateko bidean hesi egiten ari ziren. «Hor xirea Koxke Karabillante atsaldaskariakin ?! «egin zuen aitak ; gogoan lanho nuen. Etzen hegirik. Sorhatxa heze zen, eta harri kotorretako peñak doluan ziren. Oihan arteetik eskolatxoa ageri zen, ixililik. Buruila zen berriz ere. Beherean erreka nigarrez. «Eztuk behar geihiago emazte-gairik...» egin nuen. Jendeak ogi ta gasna jatean elhaka ari omen ziren, eznituen aditzen. Amatxi-zenaren ehortzketako elizkizunak gogoan zerabilzkitan. Beldurra sartu zitzaudan hezurretan. Eliz eta hileeri etziren geihiago josta-leku, eta hango musikak inguma bilakatu zitzaizkitan gogoan.

Zer iruzki sartze iluna !.

Buruileko azken goiz hura... Aitak baliza haundia bizkarrean, ni gibeletik. Gaztaiña-haundaitan behera juan ginen. Gohonetxeko Errekako zubian iragan. Eskola parrean : hango usainak heldu zitzaizkitan beste mundu batetarik, leize baten harainditik. Hango jantza-kantuak hileerrietako musikekin nahasten zitzaizkitan orai. Oriuneko pagadoia ixililik, etzen tirorik. Biziari adio sekulakotz.

Herrian automobil bat gure beha zagon. Baziren ene beste bi lagun beren amekilan... heiek ere urte hartan xederetan kokaturik. Autoak kalte egiten zautan. Bidean tripak bota nituen kanporat. Leku batean gelditu ginen eni kafea emaiteko. Emazte eder bat zen kafe-emaile. «Hemen Luhuso da...» entzunik orhoit niz bakarrik. Erran izan balute gerla eta Rusoak Donibaneratuak zirela ere berdin izanen zitzautean. Berdin ? ez !. Pozik izanen nintzan : «Izorra ziizte hor ! zien aphez-eskola ta botigekilan, nik emazte-gairik ez tuamaz behar gioz !».

Goiti bottakinak sudur mizpiretan banituen, erradura bat mustardak bezalakoa egiten ere baitzautaten.

Zintzurrean biper saporea nuen, eta ostatuko leihotik mendien potxa nabarrak ikusten nituen.

Otoan berriz sartu eta burdinbidea ikusi ginduen : marra xorrotx horiek halako zirrista beltz bat bihotzean egin zautaten eta matela autoko athe gogorrari aurka danga danga ari zitzautean. Tripak nahasiak nituen eta kokotza gogor. Barnean peña bat opiltzen ari zitzautean. «Bakotxak bere opilaz axola !» zion Pekotxeko izebak. Ni ere orduantxe hasi nintzan neure opilaz axolatzen.

Eskolaratu ginen, delako apheztegitatu. Ez nuen ezbairik han oro zirela euskaldun. Apheza gure herrian euskarazale hutsa zen, errientak ziren bezeinbat. Ze ba ! etzen ez eta hitzik euskaraz ! Dena frantsesez delako apheztegian. Arratsean othoitzak frantsesez !!! «Zer duk hau ?» Oixe ! ene opila kantuz hasi zen.

«Ez tiakiat noiz edo nola, bana nik astotei huni adio errain diakoat».

**HAMABI URTE.** Nun zen lehengo bizia ? Juana ? Bizia bururatua. Ravel-en soiñua dola-menki heldu zitzautean gogorat, inguru-inguru, minbera ta minbera, berriz eta berriz beretik, danga-danga ingura eta ingura : tirurite herio-tzea. Amaren sabel beroa ta beroa, galdua ta galdua, eta soiñua ingura eta ingura, goizalde trixte atherbe gabeak, beroa, ai ! bero galdua. Sabel-buba, sabel-bubak airatuak. Izotza samatsean, aita baizik ez etxean. Ttitti-liliak baratzean... noiz ziren ? noiz ! Ah ! ba... delako amaren ixterreri eskuz loturikakoak... Lehen baratzea, primadera zitekeen, ttittilili urdin beltzaranak suzko bihotzekilan... baratzean primaderan oi !!!

«Kusten duxia elurra han Urkulun ? han

han, iruzkiain giilian, Urkulun elurra... ?»

Morroña mertxikondoaren pean... eta nolako ezpain urdinak karrikako harrusuan otzalilik ! Zirritan su zen, otsalleko errakinak. Ihautlariak etxean, gerrenean xingar puxkeki-lan, ihautlariak samatsean kantuz :

«etxe huntan lau ardi  
lauek zortzi beharri  
egundaino ez naiz ez izan  
egun bezain egarri...»

Pentzeberriko erreka itzalean zein hotz ! Zuhamu-enborra zurhibi. Sorhoan urak gir-gir iruzkirat. Leizor-liliak baziren. Indarteko eskolarateko xendrak... Pentze hartako sagarrek nolako gostua ! Behi adarkaria bazen : Kattalinen beldurra zaia gorria zuelakotz ! Eta leizorrek loretan ibilki !... ene nigar erre-kak sorhoa nola bustitzen ! Juana zen delako iruzkia. Bukatu zen bizia. Hantik ageri zen denbora hartan gure etxea. Bizi nintzan denbora hartako gure etxea. Han zen beste mendian, gure etxea. Zein etxalde zabal oihantsua !!! eta gohoragoko mendi heiek

oro ? Baziren, baziren zuhamuak han ! eta gora, biziki gora, nunbait han nunbait artzainak... elurra den leku izigarri heietan. Han baziren urrun, oh ! zein urrun jendeak ! Abar-kak ere erabiltzen zituzten basurde-ihizlari heiek. Eta, neguan orrazeak zangotan elurrez-elur ibiltzeko !!!

Huntzostodun bordaren ondotik jende a-barkadunen munduaren hegala ikusten zen lehen. Elurdun bortuen haraindian. Nolako euskara zerratua zuten ! Zer gizonak ! Galtzamatz zurpailak larruz estekaturik... Zurtalepoko elurliliak... Hantik jiten ziren batzu. Oi ! bainan, hori zukan ni bizi nintzalarik. Itsasotra urez dauzkat matel eta burdikoak. Zein polliki leiran ibilki ziren hegoan Bonein-pentzeko leizar luzeak ! erreka hartan nolako arrain pollitak... beharritat komisione segetuzkoak han eni erranik lehen, gure bizian.

Gauak zirrista urdinak oraino goizaldeari eta mendi gorribeltzak jeikitzen lotarik. Zuhamuak beren baitaraturik kopeta higika beren amentsez ezin untsa orhoituz... Eta nik galdu nuen haize-lilien baratze xuria. Orai zendako bizi ? Errakinen usainak hegotu daut barnea, bide goretan espartinek oinetan harri xurizko ibilgietan, haize idor goxoa Ahezkoako zerutan.

Ai ! ereman naute leku behekerat... denetan heze ta lohi den heremuatarat. Argi bustia den tokietarat. Bi zilo huts eni begira ilunaren harrusu hortarik. Hal-gan lerratu nintzan eta leizerat nindohan... nola bereganatzen huen bethiko horrek ! Adio lipular ederra... leize hegian zendako hindagon hegoan irriz ? Adio negulili ber-dea, adio gohorako elurrak, adio pago oi-hanak, adio otsoen jauregiak...

Geihegi minartuko nuke gaur araino toki hartako lehen egunak idatzi behar banitu. Hitz batez erraiteko : bi bizi hasi ziren ber-hala enetzat : bat zen hango harat-hunat eta antzerkia, bestea ene gogoan naukena. Hango bizi hotz kiretsa, eta gogoko oihan hegodun, nexkatx bilo usaindun, erreken amentsa. Hango leiho burdindun, othoitz erdaldun eta gizon emagabedunen bizi traketsa, eta gure Behobiko goizalde doñudun, oihan urtzodun eta irasail bestadunen irrintzin el-hotsa.

Egun batez jin zitzaiztan amaren eskuthitza eta zama bat xarmanta. Bazterren xahut-zen ari gineñ : batzuk izuzkiak, besteek ura, beste batzuk alki ta ofeak lekuz aldera. Her-rauts hartan eskuthitza irakurri nuen zintzur-rean pilota batekin. Juan behartu ere nintzan hantik beldurrez eta lagunek ene nigarrak ikus.

Zama ideki nuelarik ! usain bat moxkorgar-ria : aitag hil urtzo bat han bazen amak erra arazirik. Geroztik urtzokiak badauka enetzat Jinkozkotasan bat osoa. Zalveteko urtzoa...

Urtzoki hura jatean, jaten nituen gure sorle-kuko mendi hegi gora eta pagadoi beltzak. Aldiz leihoko burdin geheta artetik ageri ziren apheztoki hartako mendixka txar hitsak... Urtzoki harekin Behobiko hegoa heldu zitzaiztan erraien barnerat. Aldiz, eskola hartako herrauts pizu artztik nabari zen hango zeru heze apala.

Bazen ere ukan nuen zama xarmant hartan untzi ttipi batean ezti beltza : Anaia Attinek Antsoloko oihanean harrapatu bas-erlearen ezti ! Attin etxeko artalde zain egoiten bait-zen artzain-saroan Antsolon. Ezti haren ezti ! Agerre Saroko hegia hartan ikusten nuen, bai eta Attonddoko potxak, Irupile, Darteko oihan hegaleta, Antsoloko borda eta... Ezti haren ezti ! hola izaiten ziren ezti nexkatxen ahurrak eskuz-esku ingurukako jantza egitean peña arteko eskolan «basurdia» hil eta.

Nigar eta irri, etsi eta itxaropen, ifernu eta zeru, zer feria ene baitan ! Bainan papo xiloan banuen bethi harri bat, potxa bat, gogor eta beroa gau egun. «Ehute berenduko ! heentik eskapiko nuk».

Urte beltzak luze dira. Mila aldiz egina nuen gogoan hantik jalitzeko lehiabidea. Erran behar balira oro zer elheberria ! Behin jatea utzi nuen. «Jan gabe egonez erituko nuk eta etxeat igorriko nie». Eman zautaten sendatzeko -eri nintzala bainauken- gatzpurga bat urdanda zahareri bezalakoa. Atxikak hor. Biharamunean jatekoa ekarri zautaten khetan eta ofe aldeko mahainean ezarri. Ez nuen hunki. Ondoko egunean berdín. Eta hola zortzi egunez... Etziren kantitzen ere. Medikuri ez besterik ez. Jatekoa eta jatekoa. Azeri zahar heiek zepoen berri jakinki. Goseak pozkario egiten zautan, eginen zautan oraino luzaz... bainan ofe gibelesko hormako tegian bainan bortu gasna bat gaitza.. Antsoloko usaina ! Burutzarik ez niron egin. Hortarik jaten hasi. Oi atheka ! Aldi hartako borrokan garhaitua nintzan bainan gogoan bethi kantuz ari zitzautean Ur-Sorgi aldeko pago oihanen hegoa : «Zaite, zaite, enuzie ez oono peat bil dia !»

Noizbait hemezortzi urteko gizona egin nintzan eta gorri-gorria jokatu : egun banoha etxerat. Hanartean hango jabeek erraiten zautaten aphezgoago bidetik bazterten banintzan ainitz eta ainitz arima nere faltaz ifernur rat eroriko zirela...

Egun hartan, goiz hartan, batek aditzerat eman zautan hantik johanez bizia huseginen nuela. «Ezagutzen zaitut, pasionedun mutikoa zira. Nexka bat maiteko duzularik, galduko baituzu berdin, etzazula zure burua hil. Hori xe dautzut erranen azken hitz». Milesker erran nakon bere biatikoa ez eta adio.

Etxean aita alargun zen haurride ttipienekilan. Amak begiak hetsi zituen aintzineko urtean. Haurride zaharragoak hegaldatuak ziren etxetik urrun. Zonbait egun iragan nituen kusi baten etxean, hori, aitari aintzinetik jakinarazteko heldu nintzalako berria.

Buruila zen etxerateko bidean, eta Gaztañ-Maldako bidean gaztaña pikorak baziren. Hegoa. Bozkarioa trixte nuen etxeko penaz. Bidean Juana zaharra buruztatu nuen : «Koxke ! eta arropa ? nun duxu arropa ?

- Eniza beztitia Juana !
- Ba ba... Na,
- Juana, xu zendako etxinen seroratu ?
- Na... nik enixin bokazioneik !
- Aa, Nik/ee ez.
- Bana Koxke xu holako mutiko intelisenta, apheztu, behar xindien !



Iragan ziren ikasketak. Tituluak bildu nituen. Ezkondu, Afrikarat juan. Saheleko heremuetan ilda-xoriak Land Rover-aren aintzinean jantzan ikusten nituelarik gogorat heldu zitzautean : «hi, xina xori pollita, menturaz gure Aita zaharren Arhanaitako pentzian ibilia hiz juan den urrian...» Eta hondar porroskak hortzen artean karruskatzen ni-

- Intelisenta baniz hobe. Na, intelisentak oro apheztuz, ze behar duu harren Herrian ? Asto-saldo'at ?

- Alo Koxke, etxetela kexa !».

Adar ondo berotua nuela ohartu zen eta utzi ninduen hortan. (Gaixo Juana, juan zauku kasik ehun urtetan, ez aspaldi. Hak etzituen maite Behobiko mendiak ?).

Etxerat hurrantzen ari nintzan. Borturako bide-juntatik, zuhamuen hutsgunetik etxea agertu zitzautean bere pentze eta artadien erdian, iratze-metak aldean, borda han gibelean.

Etxagibelesko alorreko seheilán Aita, han zagon. Boneta buruan, seheila hagaren gainerat gorputz-gaina pausatutik, besoak kurutzatutik, esku haundi dorpeak ukondoetan. Aita beha. Bethi hola egoiten zen. Baitzakien ni etxerat nitzaneko tenorea. Han zagon etxerat heldu nintzan oroz. Bainan ere etxeko beste norbait kanpoan ibilirik sartu beharra balinbazen etxerat, Aita bethi Etxiitako seheilatik beha egoiten zen. Hango mendiak bezala, beha.

- «Jin xirea Koxke !

- Ba ba. Untsa xirea aita ?

- Ba. ba. Berotia xira. Xauri xauri.

- Nola xira, Aita ?

- Baa, zahartzen ari giela. Ze errain duu ? Behar txu edan Xade, xade...»

Eta haurridekin besarkatzen ari ginela, ekarri zuen arnoa. Bere arnoa. Xedera tokiko mahasti hartarikako arnoa. Goporrean ekartzen zuen, beretik basoa betetzen eta emaiten. So egiten zeien untsa ene jestu guzieren. Arnoaren usaina usnatzen nuen lehenik. Aitarene arpegia jabaltzen zen. Gero jastatzen nuen : «Ze anua ! erreusitu'uxu aurten/ee.

- Baha, etxu ez gaixtua... (irri apal batek elhe bahitzen zakon)

- Ze ano goxua !

- Emakozie salda. Gosetia/ree xira engoitik !».

Kasik ahalge zen bere plazerraz...

Etzuen Aitak HITZ-ik aipatu aphezgaigoaz ez garaitikoz. Etxeko berriak eman zauzkitan xeheki, polliki, gostuan. Arratsaldean denak sorhotarat juan ginen Gañeko-Landa bazterrerat. Aitak herriko berriak kurritu zauzkitan ziren bezala edo zazkien bezala. Etzuen sekulan nehor beltzatzen.

Erran nakon ikasketa luzeak egin gogo nituela eta harek : etzuela ez dirurik bainan uste balinbanuen neurez neur ixtudioak egin nitirola, harek bere aldetik eginen zuela ahal zuena. Beste hiru tipiak ere han ziren eta...

tuen ortzondo gorrieri buruz herrautsean jo haitean. Zintzurtean erre bat banuen kanzerak egiten lukeen bezalakoa. Iruzkiaren suari begira begiak gogortzen nituen.

Afrikarat jin zitzautean berria larrakzen hartan : Aita bera gelditu zela sortetxean bakarrik. Denak johaki ; Ameriketarat, Afrikarat. Mauritaniako ur-mahel ondoetan

urtzoak ikusten nituen ere... «Koxke Karabillante, so'ixu nola hirritatzen giuzten !»

Aitaren eskuthitza ere ukan nuen.

«Haur maitiak'

Zien letrak mila plazer in diaxu. Ziek untsa zireztela jakitiak nihauri osaarria maiten diaxu. Untsa nuxu Jinkuari eskerrak. Ardiak saldu diazkotxut Indarteko Beñati. Behiak parte bat saldiak txit. Bestiak urribazketan txu. Patin soldado'uxu Rochefort-en, etxi Algeriako gerlarat juaiteik ukan. Patin ! debruillatu, debruillatu gizona ! Batita Algerian kolpatia izan zela ta...

Aurten urtzo gutti zuxun. Alta paatxa bazelaik. Etxii heen nehok fortuna haundiik in. Ni Zalveten izan nuxu behin eta lau ekarri txit. Bego bethi Oriune zaharra nausi ! Enuxu aurten gehio biziki iiltzen ahalko, belauñ tzar huntaiak arrunt maingutzen ari nuxu. Zahartu, hara.

Atsetan Sauseat juaiten nuxu lo iteat. Egunak oono paasten txit ba nunbaitan, bana gaua luze'uxu etxe hutsian bakarrik.

Holako'uxu Koxke heen gaindi. Izan zizte untsa eta Jinkuak launt zitzaizela. Mila gohaintzi.

Zien Aita».

Jin ginen Afrikatik. Bi urte juañ ziren Euskal Herritik urrun oraino.

Noizbait lana aurkitu nuen hemen. Aita jiten zen gure etxean egoiterat. Zahartzen ari zen eta maingu zen. Gure haurreri irakurtzen erakusten zeien, eta ere euskaraz mintzatzen. Andrea nik Herri Beheretarra baitut. Arrats batez, ni etxean ez nintzan batez, andreak erran omen zuen ; «ongi, orai janen dugu.

- Ba, Koxkeren beha gauden ixtaño bat». Denbora johaki. Andreak berriz :

- «Auhalduko gira orai Aita !

- Koxke ez da oraino etorri.

▽ ▽ ▽

Iphar Euskal Herrirat urtzo ihizirat kanpotiarrak jiten hasi ziren ehunka. Gure jendeak etziren batere ados. Tiragietko lepoan berrogoi gizonak Bordeles ihiztariak atakatu zituzten : Harmak hautsi eta zaflako zombait eman. Poliziak eta guardak etorri ziren : berrogoiek harma kargaturik puntaz horieri ezarri. Hortan egon zen behin.

Gero talde batzu azaldu ziren urtzoen zaindari Burdingurutzetan Irati aldean eta biltzar egiten hasi Maulen, Donibane Garazin, Senperen eta garaitiko. Enintzan jarraiki. Axolatua banintzan asko lanez. Bainan opil bat barnean banaukan.

Egun batez juañ ginen ene sortherrirat, Behobirat, auhariz, andrea ta ni bai eta uda hartan gure etxean lanean arituak ziren azoko mutil neska batzu. Urtzoak jan gintuen. Solastatzerat jin zitzañtan etxeko nausia, lehengo Behobiko eskolako «basurdekari» lagu-

*MAIATZ. 50*

- Begira Aita, nahi baduzu zu egon Koxkeren beha, nik ezgutzen dut : hamarrak edo gauherdi dateke etorriko deneko».

Aitak burua apaldu omen zuen, ixil ixila.

Ni etorri hamarrak ondoan. Biharamunean andrea mila penetan horrela hitzeginek aitarekilan. Bainan Aita jeus ez balitz bezala goxoki mintzo, begirat behatuz.

Egun batez solasak ekarri zuen : Aitak etzuela itsasoa sekulan ikusi. «Hola'uxu, Alemanian gaindi soldado iili nuxu ta itsasua oono etxit ikusia».

Biharamunean Donibane Lohitzunerat juañ ginen. Aita loriaturik itsasoari begira. Ziburun, Bidarten, Hendaien gaindi ibili ginen. Hantik erakutsi Ondarhobiko leihorriak. Itsashegiko potxa-ondo batean jan ginduen zaraan ekarri janaria. Eta gero Aitak erran zuen : Doniane Lohizunen nik paatuik botilla goxo bat edan beha'ixiu».

Erran bezala egin ginduen. Itsas untzi arbatoki ondo bateko ostatuan edaten ari ginen.

Aitak galdegin zakon saria zombait zen arnoa ekarri zaukun gizonari, eta hunek eskatua Aitak eman zakon xuxen. Gizonak erran zakon : «Dis donc ? tu ne veux pas que je te rende aussi la monnaie ?»

Burdin bidearen zirrista bikotea iragan zitzañtan aurpegian. Utzi nuen denbora puxka bat johaiterat. Eta gero Paristarren azentuz erdaraz hitzeginez eskatu nuen ostatuan delako gizonaren izena. Erran zautaten : DETHROUG.

Untsa behatu nakon ez bainiz aurpegizale ona, orhoitzeko nolakoa zen delako gizon itxurako hori. Haren supegia gogoan idatzirik ezarri nuen.

Urte batzu iragan ziren. Aitak begiak zerratu zituen. Gaua iragan nuen bere gorputzaren ondoan, othoitz kartsuenetan. Esku zabal beroak hotzak ziren oraj, Aitaren eskuak !.

na. Elhe ta elhe. Aita-zenak hitzegin ginduen.

-«Zalveten iiltzen zuxun gaizua ihizin.

- Ba, ba, ta Gohosaron/ee !

- Ba ta Tirrako xoxa, baakixu nun den Koxke ? hari «Menddiburu-in» posta erten diakoxie oono/ree.

- So'ixu !

- Ba heen ba'ixiu Doniane Lohizuneko bat zien Aitain xoxan artzen dena ihizin Zalveten.

- Aa ba ?

- Ba. ba. Kontent duxu, posta huna dela. Atzo/ree lau urtzo hil tiila.

- Aha ! ta nor da, edo zer du izena ?

- DETHROUG.

- So'ixu ! Ba, gustu hak/ee urtzo ihizin.

- Baa, ba hori bera...»

Biharamunean berean andreari erranik sortetxerat nindohala, Zalveterat juañ nintzan. Lekuak etzagutzen bainituen. Polikiño hurrandu nintzan. Han ziren bai zazpi zortzi gizon

erdaldun ihiztari. Brosta batean gorderik egon nintzakoten goiz guzia barrandun. Kalakan frantsesez dena espantu ari ziren aho haundi heiek. Urtzo zombait heldu bazen, barranban tiroak.

Arratsaldean jua nintzan Intzagarairat. Aita-zenak han utzia zuen bere harma. Atsaldaskari egin ginduen (enetako baskari). Harma neurekilan jin nintzan sortetxerat. Orduan etxea hutsik zagon. Lo egin nuen Aita-zenaren eta Ama-zenaren ofean, ezarririk neure ondoan Aitaren harma. Lo egin... erraiteko zer bat da. Ez nuen ez lo egin, aments sobera banuen buruan.

Argitu baino lehenago abiatu nintzan bidez-bide Behobirat. Hegoa zen eta iratze usaina bazen.

Argizari xuritarat Sauseko-Bixkarretik nabari zen gure lehengo eskolatxo xuria, oraitzena idekitzen geihiago.

Banindohan jua-ahala jua, harmaren burdina bero-beroa naukela eskuan. Haritzetan Otxabagitik jin haizea ari zen elhotska gauekaren hurubiak hedatuz ibar luzean behera. Ur-Sorgitan gora ezpel putxuketan aztaparka lotuz igaran nintzan Karrika Zaharreko galtzaraino. Haran-Ederreko naba haundia eskuin aldean nuen eta urrunago Orreagako aldetik Goiztiri Izarrak leiñuruak dirdiratzen zituen. Esku, besanga eta belaunetan odola banuen nun-nahi. Banindohan aintzina larru puskar harri kozkorretan utziz. «Gorputzik aski balinba'uk Zalveten tiruain tiratzeko, nahikua ba'uk. «Hegoak gorago eta geihiago kantu egiten zuen pagoetan. Erraiak mila sortze beriz betetzen zitzauzkitan. Alaitasun batek egiten ninduen mendien senhar, eta gorputza pizten zitzautan lurra besarkatzean. Izarrek benedikatzen nindutela banakien eta Oriune guzia ene laguntzaile hatsangan hegoan amodio lanetan ari zela.

Argi xirrintean Zalveten nintzen. Zerutik sugar zirrista bat sartu zen Haran-Ederreko baraturrezko distiran. Urtzolili eder bat ezarri nakon harmaren kanoieko erhaztunari, eta jarri nintzan gorderik delako brostan.

#### HITZ ZERRENDA BAT (idatziaren erronkan)

arhatu : herser (arhea : herse)  
 itots emaile : gidatzaile (behier «ots» egile)  
 zuhamu : arbol mota, essence  
 pezoïn : talus  
 zohi : souche  
 goholdi : goroldio  
 zarpa : sakela  
 pettitt erregia : kikixori, larre pittitta, roitelet  
 oxkarra : dentelure, dentelle  
 mosko : moko  
 xuandor : cornouiller (arbol bat)  
 ollakarana : bourdaine (arbol bat)  
 arbatu : ancrer (arbada : ancre)  
 irasaila : fougeraie (iraztorraren lankia)  
 leinuru : halo, rayonnement  
 potxa : rocher  
 ihiz-horra : ihizi zakurra («hor mehia oro kukuso»)  
 sasu-brösta : entre taillis et buisson  
 xara : chablis  
 herremelka : en titubant beaucoup  
 ukulua : korraila, basse-cour (enclos rond)  
 ertzaroz : frayage (erditzeko aroa)  
 pendoitz, ziztur, erroitz : pente raide, ravin  
 ilda xori : bergeronnette  
 bethree : toujours est-il que  
 tirurite : tourbillon  
 samatsa : paillage (othezkoa)

ttitti lili : primevere  
 morroifia : bourrache (lili bat, jaten ere dena, erremedioz)  
 harrusu : harresi  
 otxalili : pervenche  
 zurhibi : zurubi, zubi  
 leizor lili : lamier pourpre  
 zango-orraze : raquette (elurretan ibiltzeko, Ahezkoatarrek baliatzen zituzten) ustei gazteinezkoak, xiri batzuekin)  
 elur lili : crocus, perce-neige  
 burdiko : oreiller  
 leizar : lizar  
 haize lili : anémone  
 halga : brachipode (belar bat, «halga-larre» tik diteke «akelarre»)  
 lipular : hélébore («negu lili»)  
 geheta : barriere (seila, langa, jela)  
 urdanda : zerrama  
 harren : beraz, donc  
 ilda xori : xina xori, bergeronnette  
 gaueka : chouette, glocopix  
 hurubia : hurlement  
 naba : vallon  
 hatsanga : essoufflement  
 urtzo lili : urri lore, colchique  
 heigoraka : en lamentations

Etorri ziren ihiztari arrotzak. Urtzo pasaia hasia zen, eta berhala tiroka hasi ziren. Untsa begiratu nakon sortetxe hustuari : han zagon xuri-xuria, bera, goizaldeko argi urdin-gorrxatan, pentze berdeen erdian, norbaiten beha...

Arrotzak ari ziren «Attention ! attention ! voilà un vol !», DETHROUG erdi erdian zagon bere tripa haundiarekin. Poker bat egin zuen urtzoak finkatzean. Kanoiak goititu zituzten : «Un, deux !» egin zuten eta tiratu nuen. DETHROUG mustupilka lurrerat erori zen, eta gainbehera laster egin nuen punpeka, besteak han heigoraka ari zirela.

P.S.

1983-ko Urriaren ondarrean Gaskoiniako erdal egunkari batek berri hau agertu zuen : «Un accident de chasse peu banal.

Un chasseur bordelais, résidant à Saint-Jean de Luz, Monsieur DETHROUG, a été hospitalisé à la clinique d'ISPOURE, en Pays Basque, atteint d'une balle à... la partie la plus large de sa personnalité... etc...»

Bainan geroxago' Baionako astekari ttipi batek ekarri zuen :

«Un coup de téléphone adressé à notre agence de Garazi ce 2 Novembre nous apprend que la balle dans le cul de Monsieur DEUXTROUS est revendiquée par une mystérieuse organisation inconnue jusqu'à ce jour et dénommée «BESTALDIAN GOHORAGO»

Gauza horiek irakurri eta ipui hau asmatu nuen eta idatzi 1983-ko Azaroaren azken gauean.

Hau guzia amentsa othe zen ? egun-argizkoa othe da ? Ezin diot erran.

KOXKE.

# ONDIKOTZ ONDIKOTZ ONDIKOTZ ONDIKOTZ ONDIKOTZ ONDIKOTZ

Rafael ZUHANETA Rafael ZUHANETA

## ONDIKOTZ

Arimako ondaketa (nuen) nik ere zorrotza...  
Gero pobren hatsa baino naiago neure baratza :  
Artemeak Narzizari, dirdiratzat zizt garratza.  
Nusten noiznai nunai aurkit nirola MAIATZA  
Ta gauak badoazkit heremuts neure bihotz latz karhatsa.

Bizi naiz hark zirozkeen maitasun ihauteritan  
Urgoiez edo burgoiez hark galdu arratsteritan...  
Aspertzen naiz jan finetan, festa zait gizenkeritan  
Amentsez... aste oso dut garta ta bixilkeritan  
Iñork ez baitaut aurwezten ofea berotzerikan.

Ondikotz ! hautu txar egin dutan nago gogoetan  
Gel nai ediozoin turriran egarriz neure birritan  
Orai aments (iadanikan) sarko ez naizen zerutan  
- Etzindakiena edo ? emeki izar-herritan !  
Deuseren da norbait horri artzea kitzikeritan.

Moralist ezbaiekotan naukazu aspaldanikan  
Gizon ahulazkarretan... baina ba dut edanikan  
Bertze hoinbertze oañikan moxkorture gaberikan  
Horrelako ibai frango zilotik atherikan  
Ikusirik, eta ere igoki ene gaindikan.

andaketa : tension  
artemeak : arta emeak, soins délicats  
nusten : uste nuen  
heremuts : désert vide (pleonasmoa)  
urgoiez : herabez  
burgoiez : buru-goiez (xiberotarrez), urguluz  
sarko : sartuko

## ARBEIT MACHT FREI

### KRONIKA ABEREZALEA 3

Geltokien Aroan garela ! Hori behatunian lehen aldian, halako so dudakor batekin: ba dakik ba dela segur afixarik gure inguruetan. Orduan bat gehiago ... Bainan geroxago behatu niakoian xehekiago : beti bezala, erdi marrazki, erdi margo apainketa, argazki lantu eta beste. Ba die ideia publizitario horiek. Errana duk ere gure barneko piru haiek hunkitzen dituztela eta horren medioz gure buru fuinetako eremu asko kilikatzen eta guk ez nahi ginukeen bezala batzuetan abia arazten. Apezek erran lezaketek gure «jaidura» txar horiek ferekatuz itxuraldakuntzaldiak pizten dauzkutela. Hola duk. Nik itxurak arras maite ditiat eta askotan beha niagok publizitateen emaitza horier : baituk hor zer ikas. Lerratzten nuk ene solasetik, bainan behar bada ez hainbeste. Delako afixa hartan ikusten huen, erdi erdian plantatua, eremu gehiena hartuz dorre handi baten azpikaldea, eraikitzen ari den dorre batena. Segur nauk pentsatua dukala, «Babel-eko Dorrea»ren itxura bat. Hala duk, eta publizitalariak hain segur lehenagoko zerbait kopiatua dikek. Babilonia hortan ba zitean espantu : zeruraino igan nahi zitean dorre horrekin. Pentsemak orduan zer obrari lotuak ziren : estaiez estai, alimaleko zimendu batzu egin eta, langileak osteka. Eta Dorrea, goitiago eta hertsiago... mugatua beraz ! Liburu zaharrek hori kondatzen die. Erraiten die ere hor munduko mintzaira guziak erabiltzen zirela. Ba zukan orduan kasaila eta saltsa. Azkenean, ba dakik, dena erori zian. Demokrazia sobera ala diktatura zelakoan, hail jakiteat. Gainera hitz horiekin kasu eman behar dik gaurko egunean, aise tronpatzen ahal haiz. Afixa hortan ba huen beraz dorre hori, ez oraino eroria, eta dorre pean, zilo beltz batzu ikusten hituen, ahoak iduri, eta horren barnera heldu zituan treinak eta trenak, eskualde guzietarik. Kurioski, denak sartzen bezala dorrean, eta deus jalitzen. Dorre gaineko langile itxuren artetik, haatik, ke bat bezala ba huen, eta horrek zerbait hala johan ez zen bat sortzen ziatan. Ba hola, zerbait johan ez zena. Segidan munstro zerbaiti pentsatu nian. Ikusten hait hor, munstro horietaz irri egiten dukala, hik ere, ba zakiat. Ez omen duk munstorik ! Ba, ago: ohartu haiza amensten diren gauza guziek egizko oinarriak dituztela ? Ez, ez Freud bere Wienako gelatxoan utziko diat, bainan gogoaren zutabe horiek ba die interes. Orroit nauk apez batek Jainko bat ba dela frogatzeko erran zautala gis guziz bizidun batek ez duela ez den gauza bat pentsatzen ahal, EZ DENA EZ PENTSATZEN AHAL. Balio dik hortaz pentsatzea... Eta, nola Jainkoa gizonek pentsatua baitute, beraz Jainkoa ba dela ! Bo, paso, bena munstro batzu momentu berean gogoan nintian, Hieronimus BOSCH-en famatu haiek. Beti harritu nik hunek, nola berak deitu zuen «Deliziustasunen Baratzea» pintura hortan, zendako hainbat gauza bitxi agertu zituen. Ba zitean Babel-eko dorre horren zilo beltzek holako, eremu hortako, bitxikeria bat. Barnean, Baratze Deliziusetara sartzen zena ala bizia ikazteko labe batzuetara ? Hor piska bat urrun johan nauk baina, ni ere, ohartua nuk Babilonia hortan ifernuko garrak eta atsegin lizun deliziusak arras elgarretarik hurbil direla. Garetako eta treinetako amentsen berri menturaz ez dakikalakoan, ene oharpen horrek harrituko hau. Antaa, bizidunen arimak ikaztera burdin bideetan gauko amentsek baderamazkitela...hainbat bizidun... Treinak lehen ez gintian ezagutzen soldado joaiteko baizik. Hainitz jendeek ez die horren itxura baizik, egun ere. Orroit haiz 14eko soldado horietaz, johan zitian ustez Berlinerara uda bero baten

erdian. Pesta batetara bezala... beren zilo lohitsu-  
 etan, haragi puska ustelduek okaztatu khaña  
 batzuetan, horri pentsatzen zutea oraino ? Beti  
 okasione haundiak dituk treinak, halako urrungo  
 ez jakin dudakor hori datxikola, nahi edo ez.  
 Gogoan diat gau batez gertatu zitzaidana Baionako  
 gara hortan. Pariserako azken treina gauerditan  
 ba zoak. Frangotan, lehen segurik, Hendaiatikako  
 treinak beranta zian, Espainolen trein ter ter  
 horien bizkar zitean beti hori. Eta hola egoiten  
 hintzan batzuetan oren bat, kanpoan, neguko hai-  
 ze umi hotzean, beha eta beha. Nehor ez dukala-  
 rik ezagutzen, arras momentu peningarriak dituk.  
 Behatzen duk batzuetan aurpegi hotz itsu horier  
 bakotxa beretik ari diren horier, eta hutsaren azta  
 hor duk, gaueko akidura eta lotsarekin orraturik.  
 Maitasun guti duk hor gaindi. Aferagile, paraxu-  
 tista, harat johan diren ikasle mutu batzu... eta  
 noiztenka, urrungo norbaiten aurpegian amultsu-  
 tasun zerbait, sekulan berriz kurutzatuko ez  
 dukana, hutsa dorpeago ekartzen daukana .  
 Beste mundu horiek ez die hire bakartasunaren  
 berri nahi. Gureak gure ! Eta hor trein bat. Hetsia,  
 bainan leiho ttipi batzuekin, eta garako argi  
 ahulean, dirdira batzu. Utzirik kaia bazter ixil  
 arrotz eta etsai horiek beren behalari trixtekin,  
 hurbildu ninduan. Eta behako batzu eni buruz.  
 Begi batzu. Kabala batzu trein hortan : aratxeak.  
 Ixil horiek ere, parrean dituzten jendeak beza-  
 la. Luzaz beha egon ninduan. Norat ari dituk ?  
 Nungo pentzeak utzi ditie gau hotz huntara  
 jiteko ? Preso, tropaka, leihoaren marratik kanpo-  
 ri begira. Jendeak bezala. Preso diren jendeak  
 bezala. Hiltoki batetara eramaten zituzten depor-  
 tatu batzu bezala. Hori baita horien heltoki duda-  
 rik gabezkoa. Hiltoki batetara ari direla, ba daki-  
 tea ? Deportatuek ba ote zakiten ? Zitzi afila  
 batzu zibilizatu gizen batzuentzat bilakatzeko...  
 Jendeak horiek ? Antaa, kanpoa eta barnearen  
 arteko diferentzia egiten die. Kanpoa ikusi nahi,  
 usaindu nahi... Behar ba da lehen aldikotz hurbil  
 den itsasoaren hatsa goxatzen zitean ? Kanpoa  
 ikusi nahi, hango argi den mendren hura libertate  
 seinale. Jendeak bezala. Jende poetak bezala  
 omen. Eta eni beha. Zer erran nahi zaitaie ? Aku-  
 satzen nutea zerbaitetaz ? Gizonak balire, hain  
 segur. O, ez duk nehor hainbat kexatzen milaka  
 egunero garbitzen dituzten gure bizidun lagun  
 horietaz... Hurbildu ninduan, eni beha zagotzin  
 begi horier buruz : eskua pasatu nian leiho arteka  
 hertsitik eta bizpahiru aratxeen kopeta eta mu-  
 turrak hunkitu eta perekatu. Batek eskua milika-  
 tu zataian. Izanen zutena beste lagunik esku hilt-  
 zailea hurbildu baino lehen ? Bainan Hendaiako  
 treina heltzen zela zioan garako batek. Lasterka  
 ene puskekin burdin bidea kurutzatu nian eta  
 aratxeen begi dirdirak utzi. Noiz arte ? Ez ditiat  
 begi horiek ahantziak oraino eta frangotan ikusten  
 ditiat Poloniako goiz hormatu horietan Auschwitz  
 eko deportatze leku haietara azkenean heltzen  
 ziren begi dirdirant horien galde mutuak bezala,  
 ikusten zutelarik, ate ilunaren gainean, treina  
 sartzean, Babiloniako munstro aho beltzaren  
 sartze beldurgarrian bezala, alemanez izkribatu  
 hiru hitz hauk, ARBEIT MACHT FREI, «lanak  
 askatzen du».....

Lucien ETXEZAHARRETA




mos **EGIAZE Istorio Bate**



XVI - XVII garren mendekoak,  
Herri ttipi ttipi batean...

... sorgiñak  
omen dire...

... Pues! Pues!  
Aparte Satan!...



De Lancre eta D'Espagnet...

Joan dire sorgiñen kontra...!....






... Su...



... min, nigar, odd...



... nigar...



leunetako bakea...

Vin d'honneur offert par la ville de Bayonne à MM d'Espagnet et de Lancre: Nous Charles de Sorhaindo lieutenant général de la présente ville et cité de Bayonne mandons à vous sieur Estienne Daymar, trésorier des deniers communs en l'année présente, que vous receviez par vos mains tant la somme de 40 livres 10 sols qu'aultres frays fournys par nostre commandement sçavoir est: 39 livres, pour une barrique de vin claret que la ville à baillé de présent à MM d'Espagnet et de Lancre, président et conseiller en la cour du parlement





**BAIONAN**

Jakin: 8 avenue Foch  
 La rue en pente: 29 rue Poissonnerie  
 Musèe basque: 1, Marengo karrikan  
 Zabal: 52, Pannecau karrikan

**BILBON**

Galeria del libro: Ercilla, 35  
 Herriak: Lizenzado Poza, 11  
 Kirikiño: Colon de Larreategi, 11  
 Universitas: Alameda de Mazarredo, 6  
 Verdes: calle Correo

**DONAPALEUN**

Amikuze liburutegia  
 Barthaburu liburutegia

**DONIBANE GARAZIN**

Maison de la Presse

**DONIBANE LOHITZUNEN**

Rouan liburutegia: Gambetta karrikan

**DONOSTIAN**

Bilintx: Fermin Calbeton, 30  
 Kabo: Plaza Gipuzkoa, 13  
 Manterola: Manterola, 8

**GAZTEIZEN**

Herrikoia: Cuchilleria, 76

**HAZPARNEN**

Carrère Pantxoa: rue de l'Ursuya

**HENDAIAN**

Derro liburutegia: 18 rue du Port

**IRUINEAN**

Abarzuza: Nueva, 81 (Pza S. Francisco)  
 Auzolan: San Gregorio, 3  
 Centro Arturo Campion: calle Comedias, 14

**MAULEN**

Belatxa liburutegia: 44, Victor Hugo karrikan

**MIARRITZEN**

Eki: 21 av. de Verdun

**PARISEN**

Euskal etxea: 10 rue Duban 16é

**maiatz.**

15, Pontrique karrikan - 64100 Baiona  
 Tél.: (59) 59.86.33 - Banco de Bilbao - 20007014004

Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) : 90 F edo 1 500 Ptas  
 sostengu gisa : 150 F edo 2 800 Ptas.

**HEGOALDETIK ABONATZEKO**

Diru emaitza (giro bancario) bat egin behar da Banco de Bilbao-  
 rentzat (Baionako bulegoarentzat) zenbaki huntara: 20007014004.

itzul iezaguzu

Deitura: .....  
 Izena: .....  
 Hebidea: .....  
 .....  
 Posta zenbakia: .....  
 Hiria: .....  
 Herria: .....

Honako xehetasunak eman ditzazkezu, nahi baduzu:  
 Adina: ..... Lanbidea: .....  
 Telefono zenbakia: .....

•  
 Edité par l'association MAIATZ  
 Responsable de publication Maya Bovard  
 Dépôt légal : 2ième trimestre 1984  
 Imprimerie Impriminute à Bayonne  
 Imprimerie Mugalde à Hendaye

# MAIATZ.

15, Pontrique Karrikan 64 100 Baiona. Telefona (59) 59.86.33. Dépôt Légal 2ième trimestres 1984. ager arazle

*maiatz.* batasun, Baionako Balichon eko M.J Can. Legezko arduradun : M. Bovard.

Inprimatzalle : Mugalde Hendaian, Impriminute Baionan. 1984. eko apirila. Hiru hilabetekaria : 25 F edo 400 pta.

Urte osoko harpidetza : 90 f edo 1 600 pta. Banco de Bilbao : 20 007 014 004